

2

## Haurren eta gazteen astialdiko talde- eta hezkuntza-prozesuak

Bildumaren izenburua:  
Astialdiko monitorearen eskuliburua

Izenburua:  
Haurren eta gazteen astialdiko talde- eta hezkuntza-prozesuak

Editorea:  
© Nafarroako Gobernua, Nafarroako Gazteriaren Institutua

Testuak:  
© Adela González Díez. Urtxintxa Nafarroa. Aisialoiko Hezitzaileen Eskola

Maketazioa:  
Exea Comunicación

Inprimaketa:  
Rodona

DL NA 1493-2025

# Aurkibidea

## 01 KAPITULUA

<b>Haurren eta gazteen garapen psikosoziala aplikatzea astialdiko jarduera-proposamenetan .....</b>	<b>5</b>
1.1 Sarrera.....	5
1.2 Garapen pertsonaleko faseak balioestea: haurtzaroa, nerabezarora eta gaztarora .....	6
1.2.1 Pertsonen garapenean eragiten duten faktoreak .....	6
1.2.2 Pertsonaren garapen integrala.....	7
1.2.3 Jolasa, pertsonak garatzeko tresna ahaltzua.....	8
1.3 Haurren, nerabeen eta gazteen garapenean esku hartzen duten arloak identifikatzea.....	10
1.3.1 Bigarren haurtzarora (3-6 urte).....	10
1.3.2 Haurtzaro berantiarra (6-12 urte) .....	13
1.3.3 Nerabeak (12-18 urte).....	16
1.3.4 Gazteak (18-25 urte).....	18
1.3.5 Astialdiko jardueren lehentasunak eta proposamenak adin-taldean edo bilakaera-estadioen eta heldutasun-mailaren arabera balioestea sistematizatzea.....	20
1.4 Hezkuntza-inplikazioak garapen-mailaren eta heldutasun-mailaren arabera balioesteko teknikak.....	21
1.5 Jardueretan parte hartzen dutenen heldutasun-estadioen eta errealitatearen arabera balioesteko eta hezkuntzaren bidez esku hartzeko prozedurak.....	22
1.6 Gazteen garapen psikosozialari eta soziologiari buruzko informazio-iturriak aztertzea eta kudeatzea .....	22

## 02 KAPITULUA

<b>Hezkuntzan esku hartzeko teknikak, aniztasun indibiduala eta taldearena kontuan hartuta .....</b>	<b>23</b>
2.1 Sarrera.....	23
2.2 Aldez aurreko zenbait kontzeptu .....	24
2.3 Gizarteratze-estrategiak haurren eta gazteen astialdiko jardueretan .....	25
2.4 Jokabide asozialak, arrazistak eta/edo xenofoboak prebenitzeko eta detektatzeko oinarrizko teknikak eta baliabideak.....	33
2.5 Desgaitasuna duten pertsonekin lan egiteko teknikak .....	36
2.6 Kulturarteko hezkuntzan esku hartzeko estrategiak eta teknikak .....	39
2.7 Hezkidetzeta-metodologia: rolen, aniztasunaren, intimitatearen eta abarren eraikuntza soziala .....	42
2.8 Banakako eta taldeko aldaketen aurrean baloratzeko eta jarduteko prozedurak .....	50
2.9 Banakako eta gizarteko arazoak lantzen dituzten oinarrizko zerbitzu espezializatuak: gizarte zerbitzuen oinarrizko sareak.....	51

### 03 KAPITULUA

Talde-teknikak haur eta gazteentzako astialdiko jarduerak garatzeko .....	52
3.1 Sarrera.....	52
3.2 Taldeak balioesteko eta kudeatzeko metodologia: tipologia, elementuak, rolak, faseak eta talde-dinamikak .....	52
3.3 Astialdiko taldeen ezaugarri bereizgarriak balioestea .....	55
3.4 Talde-teknikak aztertzea eta aplikatzea .....	56
3.4.1 Aurpezpen-teknikak.....	56
3.4.2 Ezagutza- eta konfiantza-teknikak .....	57
3.4.3 Sormen-teknikak.....	57
3.4.4 Balioak adierazteko teknikak.....	58
3.4.5 Gaiak aztertze eta lantzeko teknikak .....	59
3.4.6 Iroa sortzeko teknikak.....	59
3.4.7 Talde osoak aktiboki esku hartzeko beste teknika batzuk .....	60
3.5 Monitorea taldean dituen eginkizunak balioestea .....	62
<b>04 Bibliografia .....</b>	<b>64</b>

# 01

## Haurren eta gazteen garapen psikosoziala aplikatzea astialdiko jarduera-proposamenetan

### 1.1

#### Sarrera

**Astialdiko monitorearen eskuliburuaren** bigarren argitalpen honetan, pertsonen garapen integralaren faseak aztertuko ditugu, eta, horretarako, zenbait arlo izanen ditugu hizpide, hala nola fisikoa, soziala, kognitiboa, espirituala, emozionala eta afektiboa. Horrezaz gainera, adinaren arabera hezkuntza-jarduera egokienak balioesteko teknikak identifikatuko ditugu, eta haurren eta gazteen garapenari buruzko informazioa hautatzeko beharrezko irizpideak eskuratuko ditugu.

Aztergai izanen ditugu, orobat, talde-kontzeptua, taldea arautzen duten prozesuak eta bilakaera. Horri guztiari esker, gai izanen gara talde-heldutasuna islatzen duten teknikekin eta baliabideekin lan egiteko.

Aniztasunak banaka zein taldean duen garrantziaz ere hausnartuko dugu, eta hezkuntza inklusiboa eta berdintasunezkoa gauzatzeko tresnak eskuratuko ditugu.

Era berean, talde-prozesuetan esku hartzeko tresnak geureganatuko ditugu, kontuan harturik betiere haurren eta gazteen portaera eta bilakaera-ezaugarriak.

Hasi baino lehen, geure buruari galdetu behar diogu zer beharko dugun astialdiko monitore gisa lan egiteko. Garrantzitsua da jakitea zein bilakaera-unetan dauden aisialdi- eta astialdi-programetan gurekin izanen ditugun pertsonak. Horren arabera hautatuko eta programatuko dira jarduerak, bai eta hezkuntza-prozesuetan emaitzak optimizatzeko kontuan hartu beharko ditugun alderdiak ere.

#### Hasi aitzin...



Astialdiko hezkuntzan haur eta gazteen garapenaren alderdi bereizgarriak identifikatu, jarduerak parte-hartzaileetara egokitu ahal izateko.



Esku hartzeko edukiak eta estrategiak hautatu, pertsonen eta taldeen aniztasuna aintzat harturik.



Talde-teknikak aplikatu haur eta gazteentzako astialdi-jardueretan.

## 1.2

### Garapen pertsonaleko faseak balioestea: haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora



### 1.2.1

#### Pertsonen garapenean eragiten duten faktoreak

Faktore biologiko eta sozialen konbinazio konplexu baten eragiten dio pertsonen garapeneri. Faktore horiek modu dinamikoan jarduten dute interakzioan bizitzan zehar, eta elkarri eragiten diote. Hala, ondorioak eragiten dituzte hazkunde fisikoan, emozionalean, kognitiboan eta sozialean, eta garapen indibiduala moldatzen dute.

Interakzio hori ulertzea funtsezkoa da pertsonen garapen integral eta osasungarria sustatzeko.

#### Faktore biologikoak

- HERENTZIA ETA HELTZEA (FISIKOA ETA PSIKOLOGIKOA)

#### Faktore sozialak

- IKASKUNTZA. Jokabide iraunkorra eskuratzea.
- SOZIALIZAZIOA. Taldeko arauak, ohiturak eta bizikidetzak.

#### Zertaz ari gara heltzeaz, herentziaz, hazkundeaz eta garapenez mintzatzen?

##### ○ Herentzia

Gurasoen tasun eta ezaugarri jakin batzuk seme-alabei transmititzea ugalketaren bidez.

##### ○ Heltzea

Pertsona bere zelulen, nerbio-konexioen eta abarren garapen maximora iristea. Aldaketa kualitatiboa da, eta faktore hereditarioen (indibidualak zein giza espeziearenak) eta ingurunearen (elikadura, baldintza afektibo eta sozialak...) interakzioak baldintzatzen du.

##### ○ Hazkundera

Organismo baten gorputz-tamaina handitzea eboluzio-une desberdinetan. Fenomeno kuantitatiboa da, barne-faktore genetikoek eta kanpo-faktoreek (elikadura, ingurune sozioekonomikoa eta kulturala...) zehaztua.

##### ○ Garapena


Pertsona bati —ernaltzen denetik hiltzen den arte— gertatzen zaizkion aldaketa fisiko, intelektual, moral eta abarren prozesu sekuentziala, kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Garapen indibidualaren etapak dira haurtzarora, pubertarora, nerabezarora, zahartzarora... Horietako bakoitzak hazkunde- eta heltze-maila desberdinak ditu.

## 1.2.2

### Pertsonaren garapen integrala

Astialdiko hezkuntzaren esparruan, funtsezkoa da pertsonaren garapen integrala. Hari esker, haur, nerabe eta gazteek dimentsio guztietan (intelektuala, soziala, fisikoa, afektiboa eta espirituala) garatzen ahal dituzte beren gaitasunak eta talentuak.



#### ○ Arlo fisikoa

Pertsonen hazkundearen eta garapenaren alderdi biologiko guztiekin dago lotuta, baita bizitzako etapa guztietako osasunarekin ere. Barnean hartzen du trebetasun motor finak (idaztea, marraztea...) eta larriak (ibiltzea, korrika egitea...) eskuratzea, edo are zentzumen- eta pertzepzio-sistemetan izaniko aldaketak.

Ohitura osasungarriak sustatzea oso lotuta dago arlo horrekin, eta nabarmentzekoa da elikaduraren, jarduera fisikoren eta gaixotasun fisiko eta mentalak prebenitzearen garrantzia.

#### ○ Arlo afektiboa edo emozionala

Emozioei eta bizitza osoan emozioak esperimintatzeari, adierazteari eta maneiatzeari buruzko zatia da. Alde horretatik, norberaren eta gainerako pertsonen emozioak identifikatzea eta ezagutzea lantzen da. Helburua da identitate emozional osasungarri bat eraikitzea, emozioak autorregulatuta eta gainerakoekin lotura afektiboak ezarrita.

#### ○ Arlo Soziala

Arlo horrek gainerakoekin lotzen gaitu: taldea, alderdi komunitarioa, herritarrak... Ikasten diren alderdien artean ageri dira, esaterako, bizikidetzara-arauek, kultura-aniztasuna, desberdinekiko errespetua eta bakean eta bizikidetzan hazteko aukera ematen diguten balioak identifikatzea. Helburua da pertsonen arteko trebetasunak garatzea eta gizarte-rolak askotariko testuinguruetan ulertzea, bai eta partaidetza eta herritartasun aktiboa bultzatzea ere.

#### ○ Arlo intelektual

Jakintzaren, egitura mentalen eta hizkuntzaren esparruan kokatzen da. Garapen intelektual edo kognitibotzat hartzen da pentsatzeko eta arrazoitzeko trebetasunetan bizitzan zehar izaniko bilakaera, baita memoriari eta informazioa prozesatzeari loturik izanikoa ere. Horren barnean sartzen da kontzeptuak ulertzeko, arazoak ebazteko, erabakiak hartzeko eta hizkuntza eta komunikazioko trebetasunak garatzeko gaitasuna.

## ○ Arlo espiritual

Garapen espiritual pertsona baten kontzientziaren bilakaerari eta alderdi transzendentalarekin duen loturari dagokio. Prozesu horren barnean sartzen da bizitzan helburu bat bilatzea, sakoneko balio eta sinesmenak ulertzea, eta norbera baino gailenagoa den zerbaitekin lotura garatzea; izaten ahal da filosofiaren bidez, naturaren bitartez, erlijiora jota edo espiritualtasun pertsonala landuta.

Garapen espiritual osasungarria sustatzea positiboa da osasun mentalerako, pertsonen arteko harremanetarako eta estresari eta ezbeharrari aurre egiteko gaitasuna areagotzeko, eta hobetu egiten ditu pertsonen bizi-kalitatea eta ongizate orokorra.

### 1.2.3

## Jolasa, pertsonak garatzeko tresna ahalsua

Jolasa funtsezko jarduera da giza garapenerako. Jolasaren bidez eta etapa guztietan —haurtzarotik helduerara— garatzen dituzte pertsonak trebetasun fisikoak, kognitiboak, emozionalak eta sozialak, zeinak funtsezkoak baitira beren ongizate orokorrerako.

Errealitate antropologiko bat da, etengabea giza espeziearen bilakaeran, eta garai eta kultura guztietan ditu ezaugarri propioak, garatzeko aukerak eta balioespena.

Jolasa bat-bateko jokabidea da, irekia eta askea, eta plazer sortzen du. Dibertsioa esan nahi du, eta norbera eta besteak hobeki ezagutzeko aukera ematen du. Sozializatzea ahalbidetzen du, hazten laguntzen du, eta geure buruarekiko estimua ekartzen digu. Era berean, geure burua gehiago maitatzen laguntzen digu, konfiantza eta lankidetzaren sortzen ditu pertsonen artean, hobetu egiten du komunikatzeko eta gatazkak konpontzeko dugun gaitasuna, entzuten irakasten digu, eta gure frustrazioak gainditzen laguntzen digu, beste abantaila batzuen artean.

Haurtzaroan, jarduera ludikoa portaeraren alderdi bat da, eta funtsezko egitekoa du garapenean. Etapa horretan, autonomia eta autokonfiantza elikatzen ditu; izan ere, nortasuna eratzen laguntzen eta portaera soziala indartzen du, helburu jakin batzuei jarraikiz.

Jolasa lagungarria da haurren garapenean funtsezko bost alderdi lantzeko: afektibitatea, motrizitatea, gaitasun kognitiboak, sormena eta soziabilitatea.

Gainera, pertsonak beste alderdi batzuk ere garatzen dituzte jolasaren bidez, eta monitore bakoitzak bere esperientziatik abiatuta osatzen ahalko ditu:

- ✓ Gure trebetasunak eta besterenak deskubritzea.
- ✓ Irudimena eta sormena garatzea.
- ✓ Norberaren gaitasunetan konfiantza izaten ikastea.
- ✓ Behaketa-ahalmena sustatzea.
- ✓ Gainerako pertsonekin hobeki komunikatzea.
- ✓ Norberaren iritzia defendatzen ikastea.
- ✓ Taldearen presioari aurre egiten eta ezetz esaten ikastea.
- ✓ Gorputz-pertzepzioan eta kontaktuan hezteak.
- ✓ Mugimendu fin eta larrien motrizitatea estimulatzea.
- ✓ Orientazio espazialaren zentzumena hezteak.
- ✓ Bizkortasuna eta trebetasuna bultzatzea.
- ✓ Segurtasun- eta taldekidetasun-sentimendua garatzea.
- ✓ Oreka-zentzumena estimulatzea.
- ✓ Bizitzan sortzen zaizkigun arriskuak eta oztupoak gainditzen ikastea.
- ✓ Bizitzaren erronka eta betebeharrak berriei modu kontzientean aurre egitea.

Hainbeste dira jolasaren onurak, ezen zaila baita zerrenda hau zehaztea.

**Jean Piagetek** ikusi zuen jolasa funtsezkoa dela haurren garapen kognitiborako. Jolasaren garapenean, zenbait etapa identifikatu zituen, zeinak bat baitzetozen garapen kognitiboaren teoriako beste etapa batzuekin.

Jarraian, hainbat egilek gai horri buruz egindako ekarpenen laburpen-taula bat paratuko dugu, gaian kokatu ahal izateko eta jolasak pertsonen eboluzio-etapa guztietan duen garrantzia ulertzen laguntzeko.



### Jolas sinbolikoa

Piagetek nabarmendu zuen jolas sinbolikoa (edo simulaziozkoa) funtsezkoa dela pentsamendu abstraktua eta sormena garatzeko.

Haren esanean, tresna ahalsua da haurren garapen integrala lortzeko, eta dimentsio askotan arakatzeko, ikasteko eta hazteko espazio bat eskaintzen du.

EGILEA	EKARPEN NAGUSIAK	OBRA AIPAGARRIAK
<b>Jean Piaget</b>	<p>Garapen kognitiboaren teoria, jolasak haurren ikaskuntzan eta garapenean duen garrantziari buruzkoa.</p> <p>Psikologo suitzar hori aitzindarietako bat izan zen haurren garapena aztertzen. Piageten aburuz, jolasa jarduera garrantzitsua da haurren garapen kognitiboan. Haren esanean, mundua arakatzeko, trebetasun mentalak eta sozialak garatzeko eta ingurunea ulertzeko modua da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>La formación del símbolo en el niño.</i></li> <li>• <i>El juego y la imitación en la infancia.</i></li> </ul>
<b>Lev Vigotski</b>	<p>Hurbileko garapen-eremua; gizarte- eta kultura-ingurunearen rola garapen kognitiboan.</p> <p>Vigotski ere funtsezkoa da haurren garapenaren azterketan, eta hark ere garrantzi handia eman zion jolasari bere teorian. Haurren garapen kognitiboaren maila islatzen zuen jarduera gisa ikusten zuen jolasa. Haren ustez, jolasak garapena adierazi ez ezik bultzatu ere egiten du, eta, haren bitartez, haurrek rol sozialak praktikatzeko, arazoak konpontzen eta komunikazio-trebetasunak garatzen ahal dituzte.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>El desarrollo de los procesos psicológicos superiores.</i></li> <li>• <i>Pensamiento y lenguaje.</i></li> </ul>
<b>Brian Sutton-Smith</b>	<p>Amerikako Estatu Batuetako ikertzaile horrek luze-zabal jardun zuen jolasa eta kultura ludikoa ikertzen. Sutton-Smithek diziplina anitzeko ikuspegia eman zuen jolasari buruz, eta jolasak giza garapenean, sormenean, ikaskuntzan eta egokitzapen sozialean duen eginkizuna izan zuen aztergai.</p> <p>Haren ustean, jolasa jarduera konplexua da, dimentsio asko hartzen ditu eta helburu bat baino gehiago ditu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>The Ambiguity of Play.</i></li> </ul>
<b>Friedrich Fröbel</b>	<p>Hautzaindegien sortzailea. Defendatzen zuen jolasa funtsezko jarduera dela garapen osoa lortu ahal izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>La educación del hombre.</i></li> <li>• <i>El juego de la madre y canciones de la familia.</i></li> </ul>
<b>María Montessori</b>	<p>Behaketa zientifikoan oinarritutako hezkuntza-metodo bat garatu zuen, zeinean jolasa eta jarduera autogidatua ikaskuntzaren parte baitira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>El niño en la familia.</i></li> <li>• <i>La mente absorbente.</i></li> </ul>
<b>Johan Huizinga</b>	<p>Kulturaren eta giza zibilizazioaren funtsezko elementu gisa defendatu zuen jolasa, eta haren izaera arakatu zuen gizartean eta kulturaren.</p> <p>Huizingaren iritziz, jolasa giza esperientziaren funtsezko jarduera bereizgarri bat da, eta funtsezko eginkizuna du kulturaren eta zibilizazioaren eraketan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Homo Ludens: El juego y la cultura.</i></li> </ul>
<b>Patricia Montero</b>	<p>Haren ikerketa-ardatza jolasaren pedagogia izan zen; hau da, zer eginkizun duen jolasak hezkuntza ez-formalean eta garapen sozioemotionalen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>El juego en la educación no formal.</i></li> <li>• <i>Pedagogía del ocio.</i></li> </ul>
<b>Joaquín Gairín Sallán</b>	<p>Astialdiko hezkuntzan egin zituen ekarpenak; jolasa eta astialdiko hezkuntza baliatzea gazteak garatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Pedagogía del ocio y tiempo libre.</i></li> <li>• <i>Educación en el tiempo libre.</i></li> </ul>
<b>Henry Caldwell Cook</b>	<p>Play Way metodoa inplementatu zuen; jolasa hezkuntza-prozesuaren funtsezko osagai gisa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>The Play Way.</i></li> </ul>
<b>Erik Erikson</b>	<p>Psikoanalista horren ustean, haurrek gatazka emozionalak esploratzeko eta konpontzeko modu bat da jolasa. Eriksonen aburuz, jolasa jarduera terapeutiko bat da, eta haurrei aukera ematen die beren nahiak eta antsietateak modu sinbolikoan adierazteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Infancia y Sociedad.</i></li> </ul>

## 1.3

### Haurren, nerabeen eta gazteen garapenean esku hartzen duten arloak identifikatzea

Haurtzaroak, nerabezaroak eta gaztaroak beren berezitasunak dituzte. Jarraian, eboluzioaren etapa bakoitzaren ezaugarriak zehaztuko ditugu, eta zenbait jarduera- eta jolas-gomendio eginen ditugu astialdiko monitorearentzat, bizitzako etapa bakoitzeko heldutasun-maila kontuan hartuta.

#### 1.3.1

##### Bigarren haurtzaroa (3-6 urte)

Aldi horretan, oso garrantzitsua da aparatu sentorio-motorraren bilakaera. Haurra gai da korrika egiteko, salto egiteko edo eskailerak igotzeko, eta independentzia lortzen du bere higie pertsonalean.

Funtsezko etapa horretan, eskolaren eta/edo jolaskide-taldearen bidez hasten da sozializazioa. Horrek helbete-garapena ekartzen du, bai eta ingurunean eragina izatea ere.

Fantasiak eta irudimenak imitatze gaitasunarekin bat egiten dute, eta jolas sinbolikoa hasten da; haren bidez, haurrak gai dira beste pertsona batzuen lekuan jartzeko. Hala, egoera errealean ordez asmatuiko beste batzuk izaten dira, aita-ama izatera jolastea, salerostera, mediku edo erizain izatera eta abar.

Alderdi kognitiboari dagokionez, etapa horretan hizkuntza-gaitasuna garatzen da pentsamendu sinbolikoari esker (2-4 urte), eta bide ematen zaio pentsamendu intuitiboari.

Bost urtetik zazpi urtera arte, jolasak imitazioaren parte garrantzitsu izaten jarraitzen du, baina, sozibilitatea gartzeari esker, alderdi kolaboratibo bat gaineratzen zaio. Haurrak besteekin lankidetzan hasten dira. Jolasari ekin baino lehen, beren jarduna planifikatzen dute: egitekoak banatzen eta funtzioak koordinatzen dituzte, eta kontakizun bat sortzen dute, helduen aurrean irudikatzen saiatzeko.

Jolasean parte hartzen duen haur bakoitza protagonista sentitzen da, eta egokitzen zaion rola jokatzeko duen datutako funtzioen arabera.

Fantasiari helburu praktikoa bat gehitzen zaio: ekintza gertatzen den agertokia prestatzen da, publikoarentzako aulkiak jartzen dira, pailazoentzako pista, lehoientzako kaiola eta abar. Eta dena prest dagoenean hasten da jolasa.



##### Arlo fisikoa

Haurrak beren joan-etorrietan trebeak izaten hasten dira (psikomotrizitate larria) eta eskuak erabiltzen hasten dira (psikomotrizitate fina). Energia handia dute, eta ariketa fisikoa egin eta aire zabalean jolastu behar izaten dute. Autonomia handiagoa hartzen dute: gai dira jantzeko, garbitzeko, beren kabuz jateko eta laguntza-lan txikiak beren gain hartzeko, hala nola jolaserako eta eskulanetarako materiala jasotzeko.

Kontzientzia handiagoa garatzen dute beren gorputzei eta espazioan mugitzeko moduari buruz. Gorputz-kontzientzia sustatzen duten jardueretan parte hartzen ahal dute, hala nola haurrentzako yogan edo mugimenduen jarraipena egiteko jolasetan.

Indarra eta erresistentzia garatzen dituzte. Haurrek jarduera fisiko erregularretan parte hartzen duten heinean, muskuluak indartzen zaizkie eta erresistentzia fisikoa hobetzen dute.



##### Arlo intelektuala

Hizkuntza-egiturak barneratzen dituzte eta komunikazio-trebetasunak garatzen hasten dira. Etapa horretan, haurrek gustuko izaten dute elkarriketetan parte hartzea, eta beren jakin-min naturalak ikasitakoak gozatzera bultzatzen ditu.

“Zergatik?” galdetzeko etapa hasten da.

Jakin-mina sortzen da, esploratzeko zaletasuna, gauza berriak aktiboki deskubritzekoa.

Haurrek pentsamendu sortzailea garatzen dute, eta disfrutatzen egiten dute artistikoki adierazteko aukera ematen dieten jardueren —hala nola marraztea, margotzea, plastilina modelatzea edo irudimen-jolasetan parte hartzea—.

Atentzio handiagoa paratzen ahal dute.



## Arlo espirituala

Mugarik gabe erakusten dituzte sormena eta irudimena.

Haurrak kontzeptu abstraktuez interesatzen hasten dira, hala nola heriotzaren ondoko bizitzaz, maitasunaz, ontasunaz eta beraiek baino handiagoa den zerbaitekiko loturaz.

Bizitzaren helburuari eta esanahiari buruzko galderak agertzen dira.

Istorio eta ipuinen bidez, balio moral eta etikoak barneratzen hasten dira, hala nola zintzotasuna, ontasuna eta besteekiko errespetua.

Haurrek naturarekiko lotura berezia sentitzen ahal dute, eta zerbait sakratua hauteman.



## Arlo soziala

Haurrak gai dira arauak errespetatzeko, zereginak egiteko, agindu errazak betetzeko eta partekatzeo. Gustatzen zaie gauzak beren kabuz egitea, baina laguntza eskatzen jarraitzen dute. Oraindik bakardadean jolastea gustatzen zaien arren, partekatu egiten dituzte jolasak gainerako haurrekin, sexua edozein dela ere.

Jolas sinbolikoa oso garrantzitsua da etapa horretan.

Jolas eta jardueretan, beste haur batzuekin parte hartzen hasten dira. Horrek aukera ematen die gizarte-trebetasunak praktikatzeko, hala nola partekatzea, txandak hartzea eta taldean lankidetzan aritzea. Horri esker, empatia garatzen dute.

Adiskidetasun-harreman sendoagoak ezartzen dituzte, eta gizarte-harreman garrantzitsuak izateko interesa erakusten dute.

Nor diren ulertzen hasten dira gainerakoekiko, barnean harturik generoa, familia-rolak eta gizarte-talde zabala-goetako kide izatea.



## Arlo afektiboa

Maitatua sentitzea gustatzen zaie. Eta gainerako pertsonen errespetua adieraztea.

Etap horretan, haurrek kontrolatzen ahal dituzte beren erreakzioak; ulertzen dituzte besteen sentimenduak eta gai dira berenak adierazteko.

Oraindik ere funtsezkoa da ukimena, bitarteko afektibo gisa.

Haurrek emozionalki seguru eta babestuta sentitu behar dute mundua esploratzeko eta modu osasungarrian garatzeko.

Norbere buruarekiko kontzeptua eta estimua garatzen dira. Nor diren eta zer balio duten ulertzen hasten dira. Haurren autoestimuan, eragina dute beren burua haute-mateko moduak eta gainerako pertsonetikiko interakzio positiboek.

Etap horretan, trebetasun sozialak ere garatzen dira. Haurrek besteekin modu eraginkorrangoan interakzioan aritzen ikasten dute, eta zenbait trebetasun praktikatzeko dituzte, hala nola partekatzea, txandak hartzea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta taldean lan egitea.



*Jolasak aukera ematen digu gure ametsak egia bihurtzeko eta gure mugak onartzeko, une atseginak ospatzeko, baita frustrazioak onartzeko ere.*

*Finean, bizitza datorkigun moduan bizitzeko aukera, batzuetan ahaztu egiten baitugu bizitza jolas bat dela*

Fidel Delgado



## MONITOREARENTZAKO

### Irakokizunak

- ✓ Jolas sortzaile eta sinbolikoan aritzeko aukerak eman.
- ✓ Jolas askea sustatu, irudimena pizteko.
- ✓ Gaiak haurren interesetan zentratu.
- ✓ Eguneroko elementu praktikoekin arakatzeko eta esperimendatzeko aukerak eskaini.
- ✓ Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapena sustatu, elkarriketen eta irakurketaren bidez.
- ✓ Oinarrizko gizarte-trebetasunak irakatsi, hala nola partekatzea eta gatazkak konpontzea.
- ✓ Ingurune bizigarri eta aberasgarri batean modu aktiboan arakatzeko, esperimendatzeko eta ikasteko aukerak eman. Haurren garapena sustatu: horretarako, hezkuntza-material egokiak eta dibertigarriak eman, jakin-mina pizten dutenak, eta, aldi berean, ikaskuntza-prozesuan laguntza eta orientazioa eskaini.
- ✓ Adin horretan, hasten ahal da ohitura osasungarriak sustatzen. Jarduera fisiko erregularren eta dieta orekatuaren garrantzia landu, baita gorputza behar bezala zaintzearena ere, hala nola eskuak eta hortzak garbitzea.
- ✓ Planteatzen ahal zaizkie beren neurrirako indar fisikoa eskatzen duten jarduerak eta mugitzeko jolasak; hala, estimulazioa hobetuko dute eta bizitza osoan praktikatu ahal izateko moduko ohiturak hartuko dituzte.
- ✓ Segurtasuna erakutsi eta eskaini, konfiantzaz ikasteko eta esperimendatzeko, maitasun-adierazpenak baliaturik. Arreta eta laguntza emozionala eskaini, trebetasun sozial positiboak modelatu, eta enpatia praktikatzeko eta gatazkak konpontzeko aukerak eman.
- ✓ Garapen soziala sustatu jolas kooperatiboaren bidez. Gatazkak konpontzeko trebetasunak irakatsi, portaera sozial positiboak modelatu, eta, beharrezkoa denean, laguntza eta orientazioa eman.

## JOKO-MOTAK

### ○ Jolas sinbolikoak

Rol-jolasak sustatzea, eta, horretarako, moztarrok, jostailuzko sukaldeak edo lanabesak ematea, haurrek aukera izan dezaten askotariko rol eta egoerak irudikatzen.

### ○ Eraikuntza-jokoak

Eraikitzen eta sortzen aukera emanen dieten jolasak garatzea, hala nola eraikuntza-blokeak (Lego eta abar), edo sormena eta arazoak konpontzea sustatuko duten buru-hausgarriak.

### ○ Talde-jokoak

Jolas kooperatiboak antolatzea, haurrek elkarrekin lan egin dezaten helburu komun bat lortzeko bidean; esate baterako, errelebo-jolasak edo taldean eraikitzen.

### ○ Rol-jokoak

Haurrek bizitza errealeko rolak eta egoerak antzestu ahal izateko jarduerak, hala nola mediku, irakasle, dentista eta abar izatera jolastea.

### ○ Trebetasun-jokoak

Mugitzeko trebetasun finei aurre egiten dieten jolasak, hala nola aleak harian sartzea, edo piezak sartzekoak.



### Jolasa

Jolasa funtsezko tresna da aisiaren eta astialdiaren arloko hezkuntzako esku-hartzeetan.

## 1.3.2

### Haurtzaro berantiarra (6-12 urte)

Latentzia-garaia ere esaten zaio. Fase erabakigarria da haurren garapenean, aldaketa garrantzitsuak gertatzen baitira arlo sozialean, emozionalean, kognitiboan eta moralean. Garai horretan sendotzen dira trebetasunak, ezartzen dira gizarte-harremanak eta arakutzen dira nortasuna eta interes pertsonalak.

Haurrek independentzia eta erantzukizun handiagoz jokatzeko dute, lankidetzan aritzen dira eta ekimen handiagoa dute. Garai horretan, jada hartzen ahal dituzte beren gain etxeko lan batzuk, baita, adibidez zereginak, materialak eta arauak ere.

Etap horretan, berdinen taldearekiko interesa agertzen da, eta jarduera asko haiekin batera egiten dituzte.

Haurrek jakin-min handia dute inguruan duten guztia ezagutzeko. Helduen mundua deskubritzen dute, zeinak erreferentzia eta eredu gisa balio baitie. Miretsi egiten dituzte helduak, autoritatearen erreferentzia eta ordezkari gisa, baina batzuetan jarrera zentzugabe samarrik izaten ahal dituzte, haien arreta erakartzeko.

Zenbaitetan, segurtasunik eza erakusten dute, eta, hori estaltzeko, monitorearen ondoan paratzen dira. Oro har, ziurgabetasun- eta autobaieztapen-etapa bat bizi dute, eta gainerakoekin alderatzen dira.

Areagotu egiten dira beren burua aditzera emateko eta ulertzeko bitartekoak eta baliabideak, eta gai dira komunikaziorako tresnak eskuratzeko, hala nola elkarrizketa eta esperientzia zehatzei buruzko arazoiketa.

Urteak bete ahala, haurrek bizitasun handia erakusten dute: mugikortasunean, energian eta alaitasunean nabari izaten zaie.

Niarekin identifikatzearen poderioz, beste sexuareganatik bereizten hasten dira.

- Garapen kognitibo konplexuagoa, arazoiketa logikorako gaitasuna barne.
- Interes eta trebetasun zehatzagoak.
- Autonomia eta independentzia handiagoa.

8 eta 11 urte bitartean, berdinen taldeak bizitzaren aurreko nortasuna, balioak eta jarrerak definitzen laguntzen die, eta eragin handiko sozializazio-agente bihurtzen da. 11 urtetik aurrera, oso garrantzitsua da lagun-taldea, eta haurrak familia-nukleotik urruntzen hasten dira.



#### Arlo fisikoa

Ekintza handiko etapa bat hasten da, eta haurrek beren gorputzaren bitartez adierazi nahi izaten dute.

8 edo 9 urterekin, bizkortasuna eta oreka hartzen dituzte.

Jolasa energia adierazteko eta askatzeko sistema bat da.

Arauak dituzten jokoak eta eraikitzeak hartzen dute protagonismoa.

Jarduera guztietan lehendabizikoak izatea gustatzen zaie, eta litekeena da borrokak sortzea eta tranpak egitea.

Jolasa eta lana identifikatzen dituzte, baita bereizi ere.

Eboluzio bat hautematen da.



#### Arlo intelektuala

Eragiketa zehatzen etapa hasten da. Haurrek era askotara adierazi nahi dute beren burua. Behatzeko gaitasun handia dute, eta xehetasunei erreparatzen diete.

Pertzepzio mugatua dute espazioaren eta denboraren inguruan.

7 eta 8 urte bitartean, adimen intuitibotik pentsamendu erreflexiboagora igarotzen dira, eta logika ulertzen saiatzen dira.

8 urtetik aurrera, adimena praktikoa da eta sinesgabetasunak hartzen du tokia.

Niaz jabetzen dira.

Haurrak, 9 urtetik aurrera, egiten dutenari balioa ematen hasten dira eta aintzatespena bilatzen dute.

Zintzotasuna ageri da.

Memoriaren garapen handia hasten da.

Justiziaren zentzu handia garatzen da.

Gai sexuarekiko interesa erakusten dute.



## Arlo espirituala

Hobeki ulertzen dituzte errukia, ontasuna eta esker ona.

Balio moral eta etikoak agertzen dira, hala nola zintzotasuna, justizia eta besterekiko errespetua. Haurrek erabaki etikoak hartzen ikasten dute, baita beren ekintzen gaineko erantzukizuna asumitzen ere.

Gai dira ongiaren eta gaizkiaren balioespen morala egiteko, bai beren jokabideari dagokionez, bai gainerakoen jokabideei dagokienez. Justiziaren gaineko nozioa eskuratzeko dute.

8 urtetik aurrera, garapen morala harreman pertsonaletara bideratzen da. Jokabide ona besteei gustatzen zaiena da.

Barkamena onartzen dute, eta gai dira eskatzeko ere. 10 urtetik aurrera, eginbeharrak betetzea, aginteari errespetua erakustea eta taldeari ekarpenak egitea da portaera ona.



## Arlo soziala

Garai garrantzitsua da, eta haurrek espazio berriak konstatzen dituzte beren kabuz: eskola, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar.

Lankidetzak eta erantzukizun-jokabideak agertzen dira.

Talde espontaneoetan integratzen dira, jolasteko eta beste zeregin batzuk egiteko.

8 urtetik aurrera, berdinen taldeak lagundu egiten du balioak eta jarrerak eraikitzen, eta eragin handia hartzen du garapenean.

11 urtetik aurrera, lagun-taldeak gero eta eragin handiagoa du, eta tokia kentzen dio familiak duen eraginari.

Gauzak eta pertsonak idealizatzen hasten dira, heroi-bila hasten dira.



## Arlo afektiva

Etapak honetan, afektuaren beharra izugarria da. Beste modu batera maitatzen hasten dira, eta babesa bilatzen dute gizartean topatzen dituzten egoera berrien aurrean.

Adierazpen emozionala konplexuagoa da. Adin horretako haurrek osotasun handiagoz eta ñabardura gehiagoz ulertzen dituzten beren zein besteren emozioak. Era askotako sentimenduak adierazten ahal dituzte, hala nola poza, gogoa, tristura, haserrea eta frustrazioa. Gainera, modu zehatzago eta landuagoan ematen dituzte aditzera.

Aurre egiten diete egoera gatazkatsuei, eta desadostasunak kudeatzen eta arazoak modu baketsu eta eraikitzailean konpontzen ikasten dute.

Haurrek eskolan, etxean eta beren bizitzako beste arlo batzuetan erronka eta esperientzia berriei aurre egin behar dieten heinean, haien autoestimuan eragina dute beren lorpenek, interakzio sozialek eta beren buruarekiko pertzepzioak. Autoestimu positiboa gara dezaten, garrantzitsua da babesa eta aitorpena adieraztea egiten dituzten ahalegin eta lorpenengatik.

Garrantzitsua da espazio pertsonalaren eta pribatutasunaren beharra errespetatzea, eta, aldi berean, garapen emozionalean eta sozialean laguntza eta orientazioa ematea.

7 eta 8 urte bitarteko haurrak autonomoago bihurtzen dira.

Askotariko aldarteak izaten hasten dira, eta ulermena behar dute ez desorientatzeko.



## MONITOREARENTZAKO

### Iradokizunak

- ✓ Babes emozionala eskainiko dien ingurune bat sortu, haurrak baloratuta, onartuta eta seguru senti daitezen beren emozioak esploratzeko eta adierazteko. Trebetasun sozialak praktikatzeko, harreman garrantzitsuak garatzeko eta beren nortasuna eta autoestimua indartzeko aukerak eskaini haurrei.
- ✓ Garapen osasungarria sustatu, jarraitu beharreko ereduak emanaz, eta enpatia, errukia eta gizarteratzea sustatu interakzio sozial guztietan. Komunikazio asertiboa, entzute aktiboa eta konpromisoa lantzeko trebetasunak proposatu eta praktikatu haien interakzio sozialetan.
- ✓ Kontuan izan behar da talde-lana eta taldeko bizitza direla protagonista nagusiak 8 urtetik aurrera, eta horregatik dira garrantzitsuak jarduera kooperatiboak.
- ✓ Neska-mutilei banakako eta taldeko prozesuetan lagundu, eta, bide horretan, balio egokiak transmititu. Kontuan hartu behar da astialdiko monitorea erreferentzia eta eredu bihurtzen dela.
- ✓ Gai espiritual eta etikoei buruzko elkarrizketa mamitsuak eskaini, eta balioekin eta sinesmenekin lotzen diren jardueretan parte hartzeko aukerak eman.
- ✓ Ingurunearekiko errespetua landu eta bizikidetzara-arauek barneratu.
- ✓ Adinerako erronka intelektual eta akademiko egokiak eskaini.
- ✓ Interes pertsonalak eta trebetasunak esploratzen lagundu.
- ✓ Erantzukizuna eta erabaki autonomoak har ditzaten sustatu betiere muga egokien barnean.

## JOKO-MOTAK

### ○ Mahai-jokoak

Lehia adiskidetsua eta trebetasun kognitiboen garapena sustatzen duten jokoak, estrategia eta pentsamendu kritikoa eskatzen dutenak, hala nola xakea, kartak eta mahai-jokoak.

### ○ Aire zabaleko jokoak

Jarduera fisikoa eta talde-lana sustatzea, hala nola pilota-jokoak, bandera harrapatzea edo ezkutaketa ibiltzea.

### ○ Kirol-jokoak

Kirol-jardueretan parte har dezaten sustatzea eta talde-lana eta lehia osasungarria sustatzea.

### ○ Sormen-jokoak

Material artistikoak eta artisautzakoak eskaintzea, haurrek beren sormena araka dezaten pinturaren, marrazkiaren edo eskulturaren bidez.

### ○ Estrategia-jokoak

Plangintza eta pentsamendu estrategikoa eskatzen duten jokoak. Nork bere burua ezagutzeko, entzuteko eta lankidetzan aritzeko jokoak.

### 1.3.3

## Nerabeak (12-18 urte)

Etaparen horretan, bi fase bereizten ahal dira: pubertaroa edo nerabezaroa eta nerabezaroa. Lehendabizikoan, garapen fisiko eta intelektualak da nagusi; bigarrenan, berriz, aldaketa fisikoek garapen-arloetan dituzten ondorioak antzematen dira, batez ere gaitasun kognitiboan. Eraginak izaten dira aparatu motorrean, eta mugimenduak zurrungoak, zakarragoak eta traketsagoak izaten dira. Eskuzko trebetasunak ahuldu egiten dira.

Etaparen horretan, aldaketa fisiko eta hormonal garrantzitsuak gertatzen dira: pisua eta altuera handitzeak gainera, bigarren mailako ezaugarri sexualak agertzen dira. Aldaketa horiek onartu beharra eskatzen dute, eta, bazuetan, segurtasunik eza eragiten ahal dute.

Identitate pertsonala eta autonomia bilatzen dira, eta berdinen taldeek eta nortasun kolektiboak eragin handiagoa izaten dute.

Portaera ezegonkorrak eta inpulsiboak agertzen dira, eta, alderdi emozionalean, bat-bateko umore-aldaketak gertatzen dira, beraiek ere ulertzen ez dituztenak.

Askotariko sentimenduak agertzen ahal dira, hala nola larritasuna, zorigaitza, bakardadea, herabetasuna, errebeldia...



### Arlo fisikoa

Etaparen horretan, garapen fisiko handia gertatzen da hazkundearen azelerazioak eraginda: areagotu egiten dira altuera eta pisua, eta ezaugarri sexualak agertzen dira.

Gorputz-aldaketek segurtasunik eza eta larritasuna eragiten ahal dizkiete, beren gorputzarekin gustura sentitzen ez direnean.

Trebetasun motorrak osatzen dira.

Emakumeen kasuan, lehen hilerokoak izaten dituzte, eta gorputzaren itxura aldatu egiten da: bularrak, aldakak eta abar. Gizonetan, gehiago garatzen dira muskuluak, indar fisikoa areagotzen eta ahotsa larritzen da...

Hazkundera harmoniarik gabekoa da, eta horrek eragina du aparatu motorrean. Ondorioz, mugimenduak zurrungoak eta traketsak izaten dira adin horretan, eta galdu egiten dituzte eskuzko trebetasunak.



### Arlo intelektualak

Helduaroari dagokion pentsamendu formalak finkatzen da, zeinaren ezaugarria baita arazoak modu abstraktuan planteatzeko eta konpontzeko gaitasuna, eragiketa zehatzak egin beharrik gabe.

Hobeki erabiltzen dute informazioa, eta hipotesiak formulatzeko eta arrazoiketa deduktiboaren bitartez egiaztatze gaitasuna lortzen dute.

Arazoak ebazteko estrategiak agertzen dira eta pentsamendu abstraktuari buruz arrazoitzen dute. Era berean, prozedura logikoak ez ezik, analisiarekin eta sintesiarekin loturikoak ere egiteko gai dira, eta espiritu kritikoa garatzen dute.

Modu sofistikatuagoan komunikatzen ahal dira, eta kontzeptu linguistiko konplexuagoak ulertzen ahal dituzte.

Etaparen erabakigarria da nerabeen garapen intelektuale-rako.



### Arlo espiritualak

Pentsamendu abstraktuari esker, ulermen espiritualak eskuratzen dute etaparen horretan. Gai dira kontzientziaren garapenarekin eta arrazoiketa moralarekin lotutako balioak barneratze gaitasuna.

Gehienek mundu-ikuskerak idealista izaten dute, eta gaitasun estimatu egiten dute beren burua.

Autoprestakuntza.



### Arlo sozialak

Talde bateko kide izateak jabetzen dira. Norberaren erakuntza (autokontzeptua) loturik dago besteren iritziekin.

Nortasun kolektiboa.

Rolak eta estereotipoak.

Familia-harremanak urrundu egiten dira, nolabait, eta berdinen taldera eramaten dira.



## Arlo afektiboa

Nerabeak gai dira beren indarguneei eta ahuleziei buruz hausnartzeko, eta beren nortasuna eratzen dute.

**Autokontzeptuak eta autoestimua** osatuko dute haien identitate pertsonala.

Eta horretan, sozializazio-prozesuak eboluzionatu egiten du, eta adiskidetasunak sendotzen joaten dira, eta garrantzi handia hartzen. Independentzia- eta autonomia-premia handia sentitzen dute, eta, horren ondorioz, jokabide eta emozio berriak sortzen dira. Horrek ezegonkortasuna eragiten die, eta haiek ere ulertzen ez dituzten bat-bateko umore-aldaketak izaten dituzte. Maizago agertzen dira apatia, suminkortasuna, sentimendu kontraesankorrak, aldaketa emozionalak eta sentiberatasuna.

Ulertezintasun- eta ezintasun-sentimenduak agertzen dira, eta, aldi berean, askatasun-nahia sentitzen dute eta beren burua helduen munduan proiektatzeko nahia.

Harreman afektiboak estuagoak dira, intimoagoak, eta kezka, sekretuak eta zalantza partekatzen dituzte.

Indarkeria-arazoak, autoestimu txikia, depresio-gertakariak, antsietate-atakeak, gogo-aldarte baxua eta halakoak agertzen ahal dira.

### JOKO-MOTAK

#### ○ Rol- eta simulazio-jokoak

Beren bizitzarako garrantzitsuak diren gaiak aztertze-ko moduko jokoak antolatzea, hala nola erabakiak hartzea, pertsonen arteko harremanak edo arazo sozialak. Fikziozko munduak ere esploratzen ahalko dituzte.

#### ○ Estrategia-jokoak

Joko konplexuagoak sartzea, pentsamendu kritikari heltzeko eta arazoak konpontzeko gaitasunak indartzeko —konparazio baterako, mahaiko estrategia-jokoak edo bideo-jokoak—.

#### ○ Aisialdiko jarduerak

Jolas-jarduerak antolatzea, hala nola aire zabaleko txangoak, kanpaldiak edo kirol-jarduerak, talde-lana eta sozializazioa sustatzeko.

#### ○ Kooperazio-jokoak

Lankidetzeta eta talde-lana sustatzen dituztenak, hala nola, ihes-gelak edo onlineko abentura-jokoak.

#### ○ Sormen-jokoak

Sormena eta adierazpen pertsonala estimulatzen duten jokoak, hala nola arte-jokoak, eskulanak edo diseinu digitalekoak.



### MONITOREARENTZAKO iradokizunak

- ✓ Espiritu kritikoa garatzeko tresnak eman.
- ✓ Autonomia eta espazio pertsonalaren beharra errespetatu, eta, aldi berean, laguntza eta orientazioa eman.
- ✓ Sormen-adierazpenerako eta bizitzarako trebetasunak garatzeko aukerak eman.
- ✓ Erabakiak informatuta har ditzaten eta ondorioez jabetu daitezzen sustatu.
- ✓ Taldeetan agertzen ahal diren heldutasun-aldeak detektatzen jakin.
- ✓ Nerabeak pazientziaz eta ulerkortasunez tratatu.
- ✓ Arretaz erreparatu, elkarriketarako espazioak sortu eta entzun.

### 1.3.4

## Gazteak (18-25 urte)

Garapen soziala eta garapen afektiboa dira etapa hone-tako protagonistak, eta dagoeneko ez da aldaketa garrantzitsurik gertatzen maila fisikoan, ezta kognitiboan ere.

Gazteak lasaiago daude eta gai dira arazo larriagoei aurre egiteko.

Denbora ematen dute nor diren jakiten, eta gogoeta egiten dute beren intimitatea deskubritzen duten bitartean.

Independentzia-premia handia dute.



### Arlo fisikoa

Etap horretan bukatzen da hazkundera eta ugalketa-funtzioen heldutasuna.

Ohitura osasungarriak hartzeko unea da: elikadura orekatua, ariketa fisikoa, estresa kudeatzea eta abar.

Helduaro osasuntsu eta aktiboa izateko oinarriak finkatzen dira.



### Arlo intelektuala

Aztertze eta hausnartzeko gaitasuna garatzen da. Modu objektiboan pentsatzen dute errealtatean, ez hain fantasiosoan.

Ikaskuntza intelektualerako etaparik onena da.

Norberaren ideiak sailkatzeko joera izaten da.

Lan-etorkizunean proiektatzen dute beren burua.



### Arlo espiritual

Etap horretan, alderdi espiritual garatzen da. Gazteak gai dira beren bizitzaren zentzua, esanahia eta xedea bilatzeko, eta, aldi berean, beren sinesmenak esploratzen, esperimendatzen eta garatzen dituzte.



### Arlo soziala

Interes altruistak dira nagusi, eta inguruan duten munduaz arduratzen dira. Lehen inposatuak ziren arauak; orain, berriz, aztertu egiten dira ontzat eman baino lehen.

Oposizio nabarmena izaten da helduekiko, independentzia bila.

Gainerakoen beharra dute, ulertzen dituztela sentitzeko.

Gizartean eta ibili ohi diren lekuetan ezarritako arauak buruz hausnartzen dute.

Kezkaturik agertzen dira inguruko arazoekin, eta konpromisoak hartzen dituzte.



### Arlo afektiboa

Afektibitateak garrantzi handia hartzen du. Autonomia garatzen da, eta afektu- eta gizarteratze-beharrak aragotzen dira berdinen taldeetan.

Gazteak bere ni propioa adierazten du bere buruaren gaineko hausnarketaren bidez, eta bere intimitatea deskubritzen du. Arduraturik agertzen da bere izateko moduz eta etorkizunaz, eta independentzia bilatzeari eta gainerako pertsonak ulertzeko duten beharrari buruzko jarrerak izaten ditu.

Etap horretan, intimitatea beharrezkoa da: gazteak harekin konektatzeko espazioak eta denborak aldarrikatzen dituzte, eta errespetatu egin behar dira.

Sexualitateari dagokionez, nortasuna sendotzen dute, eta horrek autoestimua positiboa lortzen laguntzen die.

Gazteak, oro har, animatuak dira, positiboak, irekiak, gauzak lasai hartzen dituzte eta arazoei aurre egiten diete.



## MONITOREARENTZAKO

### Iradokizunak

- ✓ Gizarte-arazoen inguruko partaidetza eta kontzientzia sustatu, eta, eginahal horretarako, konpromisoak hartu, eta ekintza zehatzetan, gazte-mugimenduetan, elkarrekin eta halakoetan inplikatu.
- ✓ Nortasun kolektiboa eraiki eta zehaztutako rol sozialak hartu ondotik, portaera-ereduak sendotu, esperimendazioaren, bizipen pertsonalen eta besterekiko interakzioen bitartez. Etapa garrantzitsua da autokontzeptu positiboa garatzeko aukera emanen dieten proposamenak egiteko, eta hautsi egiten dituzte batzuetan askatasuna etiketatzen eta murrizten dieten rola eta estereotipoak.
- ✓ Hezkidetzaren proposamenak egin, beren eskubideak eta betebeharrak berdintasunez gauzatzeko aukerak emateko eta eskaintzeko.
- ✓ Ohitura osasungarriak transmititu, beren buruaren gaineko kontzientzia har dezaten. Osasun fisikoarekin, mentalarekin eta ingurumenekoarekin lotutako alderdi guztiak kontuan hartu.
- ✓ Sexualitatea zentzurik zabalenean landu, barnean harturik informazio ona, prestakuntza, laguntza emozionala eta sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbidea. Sexualitateak garrantzi handia hartzen du etapa horretan, eta, beraz, ezinbestekoa da harreman osasungarriak eta bizipen seguru eta asegarriak sustatzea, pertsonaren ongizatea ahalbidetzeko.
- ✓ Erabili beren burua adierazteko aukera ematen duten metodo eta proposamenak, esate baterako, indarkeriarik gabe komunikatzea.
- ✓ Esker ona eta errukia, empatia, justizia eta adeitasuna landu, ulerturik gainerakoek ere badituztela gabeziak, geuk bezalaxe.
- ✓ Askatasunarekin konektatu eta askatasuna erantzukizunarekin eta bizikidetzarekin lotu.
- ✓ Errealitatea onartzeko lanketa egin, eta erresilienteak izateko, bizitzan agertzen zaiguna maneiatu ahal izateko.

## JOKO-MOTAK

- Beren burua ezagutzen laguntzen duten jarduerak, bai eta haien nolakotasunei, lorpenei, talentuei, trebetasunei eta gaitasunei buruz mintzatzen direnak ere.
- Beren izanarekin, existentziarekin eta identitatearekin konektatu ahal izateko dinamikak, heredatutakoa eta bizitzan zehar eskuratutakoa identifikatu eta bereizi ahal izateko.
- Espiritu kritikoa garatzea ahalbidetuko dieten jarduerak, beren nortasuna sendotzen lagunduko dietenak eta rola eta estereotipoak hautsaraziko dituztenak.
- Eztabaidak eta jardunaldiak, arduratzen dituzten gaiak jorratzeko; hala, parte-hartzea eta herritartasun aktiboa sustatuko dira.
- Aire zabaleko jarduerak, naturarekin konektatzeko eta ongizate fisiko eta mentala emanen dieten espazio osasungarriak aurkitzeko.
- Ametsak sormenez eta irudimenez proiektatzeko jolasak. Elkarlaneko fantasiako istorioak, irudimen handiko asmakizunak sortzea eta abar.
- Rol jokoak, beren bizitzak etorkizunean proiektatu ahal izateko.



### 1.3.5

## Astaldiko jardueren lehentasunak eta proposamenak adin-taldean edo bilakaera-estadioen eta heldutasun-mailaren arabera balioestea sistematizatzea

Parte-hartzaileentzat onuragarriak diren eta helburuak betetzen dituzten proposamen erakargarriak egiteko, beharrezkoa dugu ikuspegi sistematizatua. Hala, ziurtatuko dugu egokiak direla gure hezkuntza-proposamenak taldearen heldutasuna aintzat harturik, bai maila indibidualen, bai kolektiboan.

Lehen aipatutako bost garapen-arloak hartuko ditugu kontuan, pertsonen garapen integrala bermatzeko.

Horretarako, astialdiko monitoreak aisialdiko eta astialdiko jarduerak hautatzeko sistema bati jarraitu beharko dio. Urrats hauek eginen ditu:

1. Eboluzio-etapa bakoitzaren ezaugarri psikosozialak ezagutu, eta gure talde zehatzari dagozkionak identifikatu.
2. Taldearen eta parte-hartzaile bakoitzaren heldutasun-maila aztertu. Horretarako, baliatzen ahal dira, esaterako, inkestak, zuzeneko behaketa, elkarrizketak, foku-taldeak eta halakoak.
3. Helburuak taldeen behar eta interesetara egokitu, garapen-arlo guztiak kontuan hartuta. Berritu eta sormenez jokatu, eta agertzen ari diren joeretan eta jasotako *feedback*ean oinarritutako jarduerak berriak txertatu.
4. Lortu nahi ditugun eta gure hezkuntza-proiektua betetzen duten helburuak proposatu.
5. Eboluzio-etapa bakoitzeko jarduerak egokienak zein diren jakin.
6. Jarduerak hautatzeko, aintzakotzat hartu, batetik, taldearen ezaugarriak eta, bestetik, aurreikusitako helburuak.
7. Hautatutako jarduerak egokiak izan diren ebaluatu. Heldutasun-maila ebaluatuko duten adierazleak

zehaztu: alderdi fisikoan (gaitasun motorra eta erresistentzia fisikoa), kognitiboan (trebetasun kognitiboak, hala nola memoria, arreta eta arazoak konpontzea), sozialean (arauak onartzea, komunikazioa, entzutea), emozionalean (emozioak adieraztea eta norbere buruaren kontzeptua) eta espiritualean (balioak).



### Ariketa praktiko

Ariketa praktiko hau proposatzen dizugu, adibide gisa erabil dezazun lan-saio bat egiteko.

Gure herriko udalak oporraldirako antolatutako hiri-udaleku batean ari gara lanean.

Aisialdi-proposamen osasungarri eta hezigarri bat eskaini nahi du, eta, gainera, familia eta lana kontziliatzeko aukera emanen duena.

Lan-ordutegia 8:30etik 15:00etara izanen da.

Datorren astean, 12 eta 14 urte bitarteko haurren txanda bat izanen dugu.

Batzuek errepikatu egin dute txanda, eta ezagutzen ditugu.

Taldearen ezaugarri nagusia da motibazio handia duela jarduerak fisikoetan eta kirol-jardueretan.

Erraz parte hartzen dute eta kooperatiboak dira, ekimenez jokatzen dute eta proposamen asko dituzte; kezkatu daude kirolean berdintasunak duen garrantziaz eta gizon-emakumeek esparru horretan dituzten eskubideez.

**Azaldu modu sekuentzian zer jarduerak proposatuko zenituzkeen, eta lotu parte-hartzaileen garapen pertsonalarekin.**

**Egin bi egunetarako programa bat, garapen integrala jasoko duena.**

## 1.4

### Hezkuntza-inplikazioak garapen-mailaren eta heltze-mailaren arabera balioesteko teknikak

Hezkuntza-inplikazioak garapen-mailaren eta heltze-mailaren arabera balioesteko teknikak funtsezkoak dira. Irakaskuntza aisialdiko eta astialdiko gure programetan eta proiektuetan parte hartzen duten pertsonen premia indibidualetara egokitzeko aukera ematen dute.

Hezkuntza-inplikazio horiek proposatutako jardueren ondorioak eta eraginak biltzen dituzte, bai eta pertsonen garapen kognitiboan, emozionalean, sozialean, fisikoan eta espiritualean duten inpaktua ere. Jarduerak parte-hartzaile guztien garapen- eta heldutasun-mailekin lerrokatzeko diseinatu eta egokitu behar dira, eta gure proposamenekiko motibazioa eta inplikazioa kontuan hartuko dituen ikaskuntza integrala sustatu behar da.

Astialdiko monitoreak askotariko teknikak aplikatu behar ditu parte-hartzaileen inplikazioa ebaluatzeko, proposamenetan kontuan hartu ahal izateko.

- **Zuzeneko behaketaren teknika.** Pertsonen portaerak eta trebetasunak behatzeko aukera ematen du, espazio espontaneoak eta naturalak bilatzearen bidez. Portaera-ereduak eta trebetasun motor, sozial, kognitibo eta emozionalak detektatzen laguntzen du.
- **Galdetegiak eta elkarrizketak.** Banaka edo taldeka egiten ahal dira; esate baterako, galdera egituratuaren bidez, gure lanaren hartzaile izanen diren pertsonen kezka, errealitateak, beharrak eta motibazioak eza-gutzeko.
- **Ebaluazio dinamikoa.** Etengabeko jarraipena egitea. Horrek lagundu egingen digu programak heltze-prozesuetara (banakakoak eta taldekoak) denbora errealean egokitzen. Pertsonen ikasteko gaitasuna identifikatzea ahalbidetzen du, baita laguntza edo errefortzua behar duten arloak hautematen ere.
- **Jokoak aztertzea** Haurrak ebaluatzea, joko gidatuetan zein jolas librean dituzten portaerak, jarrerak eta trebetasunak kontuan izanda. Teknika horri esker, testuinguru natural eta erlaxatuan ebaluatzen ahal dira parte-hartzaileak.

- **Diziplinarteko taldearen bilerak.** Zenbait espezialistarekin egiten dira, eta balioespen integrala lor\_tzeko aukera ematen dute, ikuspegi bat baino gehiago erabilia. Baliagarriak dira prebenitzeko eta proposamenak premia zehatzetara egokitzeko.
- **Autoebaluazioak.** Parte-hartzaile bakoitzak testen, txostenen eta abarren bidez egindakoak. Nola bizi diren, zer sentitzen duten eta jardueretan duten motibazio-maila integratzeko aukera ematen dute.
- **Badira astialdiko hezkuntzaren alorrean hain ohikoak ez diren beste teknika batzuk, hezkuntza formalarekin edo haurren edo gazteen beste gizarteratze-eragile batzuekin koordinatuta dauden programetan kontuan hartzen ahal direnak.**

Gure hezkuntza-esku-hartzean, teknika horietaz gainera, garrantzi handia eman behar diogu **aniztasunari**. Haur eta gazteen astialdiko jardueretan gizarteratzeko estrategia eta tekniken bidez, aukerak eskainiko dizkiegu pertsona guztiei, betiere haien eskubideak errespetatuta.



#### MONITOREARENTZAKO Iradokizunak

- ✓ Ohar- eta jarraipen-koaderno bat eraman, parte-hartzaileen eguneroko behaketak, portaerak, lorpenak eta abar biltzeko.
- ✓ Objektibotasuna bilatu, eta, hala, fidagarriak ez diren kanpoko informazioak, zurrumurruak, estereotipoak edo interpretazio azkarrak saihestu.
- ✓ Hurbiltasuna erakutsi, komunikazio bizia, atsegina eta ulerkorra baliatuta.
- ✓ Enpatia erakutsi, parte-hartzaile guztiak ulertuak eta integratuak senti daitezten.
- ✓ Isolatutako pertsona kontuan hartu taldean, ekintzetan eta lasai dagoenean, eta, jakina, baita ingurunean ere. Baldintza fisikoak, espazialak eta ingurumenekoak aztertu.

## 1.5

### Jardueretan parte hartzen dutenen heldutasun-estadioen eta errealitatearen arabera balioesteko eta hezkuntzaren bidez esku hartzeko prozedurak

Psikologia ebolutiboaren esparruan, etengabeko eboluzio-prozesu gisa aztertzen da gizakiaren garapena. Pertsonen hazkundea eta aurrerapenak lehen deskribatu ditugun etapekin erlazionatuta daude, eta garapen horren arlo guztiek lotuta egon behar dute. Horregatik da garrantzitsua etapa bakoitzaren ezaugarrien berri izatea.

Ez da ahaztu behar pertsona guztiak ez direla erritmo berean heltzen edo hazten, eta kasu batzuetan atzerapenak gertatzen direla. Atzerapen horietan, eragiten ahal dute pertsona batek ikasteko duen abiadurak, ikasitakoaren kalitateak edo ikasitako trebetasun-, abilezia- edo jarrera-kopuruak.

Balorazio bat egiteko, garapenaren bost arloak hartu behar dira kontuan (fisikoa, intelektuala, espirituala, soziala eta afektiboa), eta kontuan hartu behar dira bai lortutako garapen-maila, bai pertsona bakoitzaren potentziala, bai haren inguruko faktoreak, bilakaera modu positiboan edo negatiboan baldintzatzen ahal baitute.

Monitoreen lanean, funtsezkoa da teknika egoki bat edo gehiago aplikatzea pertsonen garapena balioesteko. Teknika horiek prozesu indibiduala ez ezik sozializazio-prozesua ere jaso beharko dituzte, eta, beraz, taldearen heldutasuna funtsezkoa izanen da astialdiko hezkuntza-arloko esku-hartzeetarako ere.



#### GOGOAN IZAN

Monitoreen lanean, funtsezkoa izanen da pertsonen eta taldearen garapena eta heldutasuna balioesteko teknika egoki bat edo gehiago aplikatzea.

## 1.6

### Gazteen garapen psikosozialari eta soziologiari buruzko informazio-iturriak aztertzea eta kudeatzea

Gazteen garapen psikosozialari eta soziologiari buruzko informazio-iturriak aztertuta eta kudeatuta, errazago diseinatu eta ezarriko dira hezkuntza-arloko esku-hartzeak, eta hobetu egingen dira haien eraginkortasuna eta praktikotasuna, alderdi gehiago jorratuko eta funts sendoak edukiko baititu.

Astialdiko hezkuntzaren esparruan, soziologia eta psikologia iturri zientifiko fidagarriak eta inspiratzaileak dira. Diziplina horien bitartez, oinarri teoriko sendoak dituzten planteamenduak garatzen ahal dira, askotariko egoerak dituztenak eta esku-hartze prebentiboak errazten dutenak, erabiltzeen bizitzetara egokituta. Gainera, gaurkotutasun-gaiak jorratzen dituzte, joerak identifikatzen dituzte eta gizartearen benetako premiak asetzen dituzte.



# 02

## Hezkuntzan esku hartzeko teknikak, aniztasun indibiduala eta taldearena kontuan hartuta

### 2.1

#### Sarrera

Haurren eta gazteen astialdiko hezkuntzaren esparruan, gizarteratzea funtsezko oinarria da haurrek eta gazteek garapen orekatu eta osasungarria izan dezaten lortzeko.


Astialdiko jarduerak aisialdirako espazio bat eskaintzen dute, eta, gainera, garapenerako agertoki toki dira, maila pertsonalean zein sozialean. Pertsonen arteko harremanak eraikitzea eta trebetasun sozialak garatzea bultzatzen dute, bai eta lankidetzaren, enpatia, aniztasunarekiko errespetua eta halako beste zenbait balio ere. Testuinguru horretan, gizarteratzeko estrategia eraginkorrak diseinatzea eta aplikatzea funtsezko eginkizuna da astialdiko monitoreentzat.

Abiapuntu gisa hartzen dugu pertsona guztiak desberdinak garela: desberdin pentsatzen eta sentitzen dugu, eta gure modu independentean jokatzeko moduak ezaguri kognitiboak, afektiboak edo portaerari loturikoak gorabehera. Baditugu desberdintasun gehiago ere, esate baterako, gaitasunetan, beharretan, interesetan, heltze-eritmoetan, baldintza soziokulturaletan eta abarretan ageri direnak.

Hezkuntzan esku-hartze inklusiboa gauzatzeko, pertsona guztien partaidetza aktiboa, ikaskuntza esanguratsua eta garapen integrala sustatzen dituzten proposamenak hartu behar ditugu kontuan.

Proposamen horien bidez, "ohikotik" gehien aldentzen diren pertsonak, laguntzarik hoberenarekin, garapen pertsonal integrala izatera iritsi behar dute, baita taldeetan sartzera ere.

#### Hezkuntzako esku-hartze inklusiboan, nahitaezkoak dira...



## 2.2

### Aldez aurreko zenbait kontzeptu

#### Aniztasuna

UNESCOk emaniko definizioaren arabera, gizateria hain aberatsa eta konplexua bilakatzen duten identitate, sinesmen, balio, praktika eta adierazpen kulturalen ugaritasuna da aniztasuna. Definizio horrek nabarmentzen duenez, aniztasuna garrantzitsua da gizarte toleranteago eta inklusiboagoa sortzeko.

#### Talde-aniztasuna

Talde-identitatea talde sozial edo kulturaletako kide izatearekin lotzen da, baita talde horiek gure nortasunean eta kidesan-sentimenduan duten eraginarekin ere.

#### Aniztasun individuala

Hau da, gizabanako gisa nor garen hautematea eta nork bere burua eraikitzea.

#### Normalizazioa hezkuntzan

Ikuspegi pedagogiko eta sozial bat da, eta haren helburua da pertsona guztiei ikasteko eta parte hartzeko aukera ekitatiboak ematea, alde indibidualak alde batera utzita. Helburua da haur eta gazteen aniztasuna aitortu, baloratu eta errespetatuko duen giro inklusibo sortzea, erabateko garapen integrala sustatzeko.

#### Integrazioa

Gizarteratzea, zenbait egileren arabera, gizabanakoak gizarte edo talde sozial bateko kide onartu eta parte-hartzaile bihurtzeko prozesuari dagokio.



## 2.3

### Gizarteratze-estrategiak haurren eta gazteen astialdiko jardueretan

Pertsonak ez dute definitzen beren burua gizabanako gisa bakarrik; talde sozialetako kide izateak ere eragiten die, eta horrek, haien nortasunari ez ezik, beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko moduari ere eragiten dio. Nortasun indibiduala eta talde-nortasuna ulertzea funtsezkoa da gizartea eraikitzeko, lagungarria baita aniztasuna, inklusioa eta kultura- eta gizarte-desberdintasunekiko errespetua sustatzeko.

Nortasun indibiduala honetan datza: gizabanako gisa nor garen hautematea eta nork bere burua eraikitzea. Bereziatasuna, autokontzientzia eta benetakotasuna ditu ezaugarri.

Bestalde, talde-identitatea talde sozial edo kulturaletako kide izatearekin lotzen da, baita talde horiek gure nortasunean eta kidesun-sentimenduan duten eraginarekin ere. Ezaugarri hauek ditu: kidesuna, elkartasuna eta arau eta balio partekatutak.

Askotariko gizarte batean, nortasun indibidualak eta taldekoak adiskidetu egiten dira elkarrekiko errespetuaren eta inklusioa sustatzearen bidez, baita desberdintasunak aktibo gisa baloratuz ere —oztopo gisa balioetsi beharrean—.

Nortasun indibidualaren adibide bat izan liteke bere burua naturazaleztat jotzen duen pertsona bat, bere burua ingurumena zaintzeko grina duen pertsona gisa ikusten duena. Haren talde-nortasuna egoten ahal da lotuta mendizale-talde batean parte hartzearekin: talde horretan, bere balio eta helburuak partekatzen dituzte —hau da, ingurumena zaintzea— eta mendi-irteerak antolatzen dituzte asteburuetan.



Esteka honetan, UNICEFek identitateari buruz egindako bideo bat ikusiko duzu.



<https://bit.ly/45236f1>



Aniztasunean batasuna lortzeko gaitasuna izanen da gure zibilizazioaren edertasuna eta proba

Mahatma Gandhi



#### RECUERDA

Astialdiko monitorearen eginkizunen artean ageri dira, esaterako, pertsona edo kolektibo oro gizarteratu dadin ahalbidetzea, hezkuntzaren alorrean egiten dituen esku-hartzeen bitartez.

**Aniztasunari balioa ematen dion eredu baten aldeko apustua egingen dugu, giza eskubideekin lerrokatu. Horretarako, helburu inklusiboak lortu ahal izateko estrategiak, metodoak, ekintzak eta jarduerak bildu beharko ditugu.**

Aniztasuna sistema, kultura edo gizarte bat osatzen duten elementu-ugaritasuna da. UNESCOren ustean, bitarteko baliotsua da gizateriarentzat, ikasteko eta hazteko aukera ematen baitigu kulturartekotasunaren eta komunikazioaren bidez. Gainerako kultura eta komunitateen esperientzietatik eta ikuspegietatik ikasten laguntzen digu.

Gizateria hain aberatsa eta konplexua bilakatzen duten identitate, sinesmen, balio, praktika eta adierazpen kulturalen ugaritasun gisa definitzen ahal da. Aniztasuna aitortzen eta balioesten dugunean, hezkuntza-ingurune eraginkorrago eta atseginago bat sortuko dugu, bai eta gizarte bidezkoago eta ekitatiboagoak ere, pertsona guztiak errespetatu eta babestu daitezten.

Aniztasunean gehiago sakontzeko, **Claude Lévi-Strauss**, **Margaret Mead**, **Anthony Giddens** eta **Benedict Anderson** egileen lanak aztertu ditugu, besteak beste.

**Lévi-Straussek**, esate baterako, uste du aniztasuna gertaera naturala dela, eta kultura guztiak egiten dutela ekarpen berezia gizateria ulertzeko bidean, eta guztiak laguntzen dutela, orobat, munduaren ezagutza osoagoa eta aberasgarriagoa garatzen. Haren ustez, aniztasuna bitarteko baliotsua da, eta ideia eta soluzio berriak sortzeko aukera ematen digu.

**Meaden** esanetan, bestalde, aniztasuna bitarteko baliotsua da, gainerako kultura eta gizarteetatik ikasteko aukera ematen digun heinean. Egile horren arabera, aniztasuna mundu baketsuago eta gizatiarrago bat sortzeko bidea da.

Hezkuntzan esku hartzeko estrategietan aniztasuna txertatzeko, kontuan hartu behar ditugu hura baldintzatzen duten faktoreak eta aniztasun-motak:

Erref.: Mia Miñan. (2024)

Izenburua: Aniztasunaren kontzeptua, UNESCOren arabera: Egileen arabera, esanahia.

BANAKAKO FAKTOREAK		FAKTORE SOZIALAK	
Kontuan hartuko ditugu faktore heredatuak: genetika eta biologia, osasun fisikoaren edo mentalaren alterazioak, nortasuna eta izaera, trebetasun kognitiboak eta motorrak, emozioak adierazteko gaitasuna, bizi-esperientziak eta gertaera traumatikoak.		Ingurunea hartuko dugu kontuan: familia, eskola, kultura, berdinaren taldea, haurrak edo gazteak mugitzen diren inguruneak, komunikabideak eta teknologia, bai eta faktore sozioekonomikoak ere.	
<b>Norberaren identitatea</b>	Etnia, generoa, sexu-orientazioa, erlijioa eta gaitasunak.	<b>Kultura eta arau sozialak</b>	Aniztasuna onartzean eta sustatzean eragina duten arau eta balio kulturalak.
<b>Esperientziak</b>	Diskriminazio pertsonala edo inklusioa.	<b>Politikak eta legeria</b>	Hezkuntzan, enpleguan eta giza eskubideetan berdintasuna sustatzen eta diskriminazioa galarazten duten legeak eta politikak.
<b>Hezkuntza eta ezagutzak</b>	Hezkuntza-mailak eta aniztasunari buruzko ezagutzak eragina dute enpatiari eta desberdintasunak ulertzeari dagokienez.	<b>Egitura ekonomikoak</b>	Baliabideak eta aukerak eskuratzeari eragiten dioten aukera ekonomikoak eta desberdinkeria sozioekonomikoak
<b>Jarrerak eta sinesmenak</b>	Familiak, kulturak eta bizi-esperientziek osatzen dituzte, eta aniztasunarekiko interakzioan eragiten dute.	<b>Hedabideak</b>	Taldeak komunikabideetan ordezkaturuta egotea; eragina du dibertsitatearen gaineko pertzepzio publikoan.
<b>Komunikatzeko trebetasunak</b>	Jatorri desberdineko pertsonekin eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna.	<b>Hezkuntza-ingurunea</b>	Curriculum inklusiboak eta irakaskuntza praktika ekitatiboak dituzten eskola eta unibertsitateek aberastu egiten dute ikaskuntza-esperientzia.

Faktore horiek guztiek elkarri eragiten diote, eta eragina dute aniztasunaren gaineko pertzepzioan eta haren ku-deaketan. Inpaktu nabarmena izaten ahal dute haurren eta gazteen garapen holistikoa.

Aniztasunari buruz mintzatzen garenean, mota bat baino gehiago bereizten ditugu. Funtsezkoa da aniztasuna aitortzea eta baloratzea gizarte inklusibo eta ekitatibo bat sustatzeko, zeinean pertsona guztiek laguntzen ahalko baitute eta baloratuta sentituko baitira, haien arteko desberdintasunak alde batera utzita.

Astialdiko hezkuntzaren eremutik, aniztasuna aberastasan gisa lantzen duten eta gizarteratzea eta pertsona guztien arteko lankidetzak sustatzen dituzten programa asko garatzen ahal dira, mundu bidezkoago eta berdinezaleago bat lortzeko.

Hona hemen aniztasun-mota nagusi batzuk:

- **Etnia- eta arraza-aniztasuna.** Aurrekari kulturaletan, jatorri etnikoetan, arbasoetan eta arrazarekin lotutako ezaugarri fisikoetan ageri diren desberdintasunak.
- **Genero-aniztasuna.** Genero-identitatea (pertsona bakoitza zer generorekin identifikatzen den), genero-adierazpenak eta sexu-ezaugarriak hartzen ditu kontuan.
- **Sexu aniztasuna.** Sexu-orientazioa (heterosexuala, homosexuala, bisexuala, pansexuala...) eta genero-identitatea (zisgeneroa, transgeneroa, ez-bitarra...) biltzen ditu.
- **Erlijio-aniztasuna.** Pertsonen sinesmen, praktika eta tradizio erlijiosoei egiten die erreferentzia, baita erlijioarekin duten konpromiso-mailari ere.
- **Aniztasun sozioekonomikoa.** Barnean hartzen ditu estatus sozioekonomikoaren desberdintasunak, diru-sarreraren maila, hezkuntza, baliabide eta aukereta-rako sarbidea eta bizi-baldintzak.
- **Belaunaldi-aniztasuna.** Adinean eta bizitzaren etapan ageri diren desberdintasunak, baita belaunaldi bakoitzarekin lotutako esperientzia eta ikuspegiak ere.
- **Kultura-aniztasuna.** Ohitura, tradizio, hizkuntza, baliario, arau sozial eta praktika kulturaletan ageri diren desberdintasunak.

- **Trebetasun- eta desgaitasun-aniztasuna.** Trebetasun fisikoetan, kognitiboetan, sentsorialetan eta emozionaletan ageri diren desberdintasunak, bai eta pertsona baten funtzionamenduan eragiten ahal duten desgaitasun eta egoera medikoak ere.

- **Iritzi- eta ikuspegi-aniztasuna.** Pertsona bakoitzak dituen iritzi, balio, sinesmen, ikuspuntu eta bizi esperientzietan ageri diren desberdintasunak.

- **Ikasteko eta pentsatzeko estiloen aniztasuna.** Pertsonak informazioa prozesatzeko, trebetasun berriak ikasteko eta arazoak konpontzeko duten moduan dauden desberdintasunak.

## ○ Aniztasuna txertatzea

Astialdiko monitoreak parte-hartzaileen arteko desberdintasunak kontuan hartuta programatu beharko ditu jarduerak, eta, horri esker, garapen individuala zein taldekoa lortzen lagunduko du. Aniztasuna lantzeak, orobat, parte hartzen duten pertsona guztien artean komunikazioa, enpatia eta lankidetzarako trebetasunak garatzea ahalbidetzen du; gizarte globalago bat onartzeko prestatzen ditu, eta, horretaz gainera, herritartasun aktiboan inplikatzeko laguntzen die.



### GOGOAN IZAN

Astialdiko monitoreek garapen individualan zein taldeko garapenean lagunduko duten astialdiko programak taxutu behar dituzte.

Parte-hartzaileen premia individualak eta taldekoak hautemanez, gizarteratzeko aukera ematen duten jarduerak inklusiboak proposatzen ahalgo dira.

Lehenik eta behin, aniztasuna aberastasun eta balio gisa hartuko dugu, eta balizko integrazio falten arrazoiak aztertuko ditugu. Kontuan izanen ditugu pertsonen garapenean eragiten duten faktoreak, bai alderdi indibidualean eragiten dutenak, bai sozialean esku hartzen dutenak.

Faktore batzuek eragiten ahal dute pertsona batek komunitate batean erabat integratzeko duen gaitasunean.

○ **Faktore indibidualak:** autoestimua, komunikazio-trebetasunak eta erresilientzia.

○ **Faktore sozialak:** diskriminazioa, hizkuntza-oztopoak eta baliabideak eskura izatea.

Faktore horiek ulertuta, integrazio eraginkorra eta ekitiboa sustatuko duten estrategiak eta politikak garatzen ahalko ditugu. Erronka pertsonalei eta desberdinkeria estrukturaleri helduko diegu, eta, hortik abiatuta, hezkuntzako esku-hartzean jarraitu beharreko estrategiak zehaztuko ditugu.

GIZARTERATZEA ZAILTZEN DUTEN ZENBAIT KAUSA	
Diskriminazioa eta aurreiritzia	Diskriminazioak (etnial, generoan, sexu-orientazioan, erlijioan, desgaitasunean edo beste alderdi batzuetan oinarritua) zaildu egiten ahal du gizarteratzea, oztopoak sortzen eta aukerak mugatzen baititu pertsona-talde jakin batzuentzat.
Desberdintasun sozioekonomikoa	Desberdintasun ekonomikoak eta baliabide eta aukerak eskura ez izateak gizarte-bazterkeria eragiten ahal dute, bai eta pertsonen gizarterean erabat parte hartzeko duten gaitasuna mugatu ere.
Hezkuntzarik eta prestakuntzarik ez izatea eskura	Kalitatezko hezkuntzarik eta prestakuntza-eskaintzarik eskura ez izateak zaildu egiten ahal du gizarteratzea, mugatu egiten baititu pertsonen lan-trebetasunak eta -aukerak.
Oztopo arkitektonikoak eta irisgarritasun falta	Ingurune fisikoetan, garraio publikoan, zerbitzuetan eta teknologian irisgarritasunik ez izateak eragotzi egiten die gizarterean erabat parte hartzea desgaitasuna eta beste behar berezi batzuk dituzten pertsoneri.
Isolamendu soziala eta babes-sareen falta	Gizarte-isolamenduak, gizarte-konexio garrantzitsurik ezak eta komunitatearen babesik ez edukitzea mugatu egiten ahal dituzte parte hartzeko aukerak eta kidetasun-sentimendua.
Osasun mentala eta estigma	Osasun mentalarekin eta gaixotasun mentalekin lotutako estigmak zaildu egiten ahal dute gizarteratzea; izan ere, oztopo sozialak sortzen ditu eta mugatu egiten ditu enplegu bat izateko eta komunitatean parte hartzeko aukerak.
Politika inklusiborik eza	Gizarte-inklusioa sustatzen duten eta oztopo estrukturaleri heltzen dieten gobernu-politika eta -programarik ez izateak betikotu egiten ahal ditu bazterkeria eta diskriminazioa.
Hezkuntza formalean eta ez-formalean —eta, zehazki, astialdiko hezkuntzan— sartzeko zailtasunak	Astialdiko prestakuntza-eskaintzetan (eskolaz kanpokoak, ludotekak, kanpalekuak...) ageri diren desberdintasunek mugatu egiten dute pertsonen trebetasunak garatzea, eta, era berean, zaildu egiten dute gizarteratzea.

## ○ Astialdiko hezkuntzan gizarteratzeko estrategiak

Lana optimizatzeko eta astialdian kalitatezko hezkuntza eskaintzeko, monitoreek jarduera inklusiboak diseinatu behar dituzte. Jarduera horiek banakako eta taldeko beharretara egokitzen diren estrategietan integratuko dira, prozesua eraginkorra eta aberasgarria izanen dela bermatzeko.

Beharrezkoa izanen da dagokion gaien sentsibilizatzea eta alde zuzenetik trbatzea, eta, esku-hartzearen ondotik, emaitza objektiboak ebaluatuko dira, jardueren eskaintza egokitzen eta hobetzen joan ahal izateko.



### Ikaskuntza-estrategiak

- ✓ Edukia eta jarduerak ikuspegi inklusiboa kontuan harturik egokitzea, parte-hartzaileen premia indibidualari erantzuteko eta helburuak ahaztu gabe.
- ✓ Parte-hartzaile bakoitzari aukera ematea bere alderdi, ezagutza eta balio indibidualak taldeari helarazi ahal izateko, eta, hartara, bere autoestimua indartzea.
- ✓ Aniztasuna ikaskuntza sozialerako tresna gisa erakustea. Ikaskuntza sakonagoa eta eraginkorragoa, hazkunde-prozesuak moteltzen eta geldiarazten dituzten aurreiritziei eta estereotipoei aurre egiteko.
- ✓ Elkarrekin lan egiteko espazioak sortzea, ideiak trukatzeko, arazoak konpontzeko, eztabaidak izateko eta bizitzako ezagutzak eta esperientziak partekatzeko.
- ✓ Ikaskuntza-modalitate bat baino gehiago txertatzea, irakaskuntza multisentsoriala lantzeko: ikusmena, entzumena, ukimena, dastamena...
- ✓ Esperientziak aberasteko tresna eta baliabide teknologikoak integratzea, eta, hala, guztien parte-hartzea erraztea.
- ✓ Banakako jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat izatea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan egokitu ahal izateko.
- ✓ Pertsona bakoitzaren eta taldearen premia espezifikotara egokitutako materialak diseinatzea eta erabiltzea. Informazioa eskuratzeko eta ulertzeko bideak erraztea, eta, horri esker, pertsonari garatzen laguntzea.

### Jokabide-estrategiak

- ✓ Gaitasun eta esperientzia desberdinak dituzten pertsonetikiko ulermena eta enpatia sustatzea, eta, hala, inklusioa eta elkarrekiko errespetua sustatzea.
- ✓ Ikaskuntza kooperatiboa sustatzea, eta lankidetzaren bultzatzea taldekide guztien artean. Eskatzen eta jasotzen ikasiko dugu, eta trebetasun sozialak garatuko ditugu, eta, bereziki, komunikazioa.
- ✓ Ikasgelako eta komunitateko kultura-, etnia-, hizkuntza- eta genero-aniztasuna balioestea, eta inklusioa eta kide izatearen sentimendua sustatzea guztiengan.
- ✓ Gatazkak ikasteko aukera gisa bizitzea, eta, halako egoeretan, erantzunak ematea. Hala, komunikazioa eta aniztasunarekiko errespetua sustatuko dira.

### Sentsibilizazio- eta egokitzapen-estrategiak

- ✓ Pertsona guztien gizarteratzearen eta eskubideen garrantziari buruzko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak antolatzea, eta jarrerak eta portaerak alda daitezen sustatzea.
- ✓ Parte-hartzaileei baztertutako pertsonen esperientziak eta erronkak hobeki ulertzen lagunduko dieten jarduerak praktiko eta dinamikoak egitea, eta, horri esker, enpatia eta elkar ulertzea sustatzea.
- ✓ Ingurune seguru eta abegikorrek sustatzea, non pertsona guztiak ongi etorriak eta baloratuak sentituko diren, komunitatean parte-hartze aktiboa eta elkarrekiko errespetua sustatzea.
- ✓ Berdintasun, ekitate, elkarrekikotasun, lankidetzaren eta integrazioaren oinarritutako sozializazio-esperientziak antolatzea.

## ○ Ikaskuntza kooperatiboa

Ikaskuntza-estrategien barruan, oso garrantzitsua da jardueretan erabiliko dugun metodoa aukeratzea. **Ikaskuntza kooperatiboa** nabarmentzen dugu, zeina pertsonen interakzioan eta elkarri laguntzean baitago oinarrituta. Metodo horrek banakoen trebetasunak eta ezaugarriak partekatze eta erakusteko aukera ematen du, eta emaitza ezin hobek, berritzaileak eta sortzaileak lortzen ditu taldearentzat, alderdiak batzeari esker.

**David W. Johnson** eta haren anaia **Roger T. Johnson** egileek ezagutarazi zuten nagusiki ikaskuntza kooperatiboa. Minnesotako Unibertsitatean egindako lanaren bidez, Johnson anaiek hamarkada luzeetan ikertu eta sustatu zuten ikaskuntza kooperatiboa. Haien ustez, ikaskuntza-eredu horrek barnean hartzen ditu taldeki-deen arteko interdependentzia positiboa, aurrez aurreko interakzio sustatzailea, erantzukizun indibiduala, pertsonen arteko eta taldeko trebetasunak garatzea, eta lankidetzaren prozesuari buruzko taldeko hausnarketa.

### Ikaskuntza kooperatiboa

Ikaskuntza kooperatiboa hezkuntza ikuspegi bat da, zeinean hezigiak talde txikietan lan egiten baitute helburu komunak lortzeko eta landutako gaiak hobeki ulertzeko. Metodo horren oinarria da ikaskuntza eraginkorragoa dela beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzean.

## ○ Esperientzia bidezko ikaskuntza

Beste ikaskuntza-estrategia nabarmenetako bat **esperientzia bidezko ikaskuntza** da. **John Dewey** (1859–1952) estatubatuarra eragin handiko filosofo, psikologo eta pedagogo izan zen, hezkuntza aurrekoiaren aldeko mugimenduaren teoriko nagusietako bat. Prozesu aktibo gisa definitu zuen ikaskuntza: hezigiak eraikitzen dute ezagutza, beren esperientziatik eta esperientzia horiei buruzko hausnarketatik abiatuta. Hala, hezigiak beren ikaskuntza-prozesuen protagonista bihurtzen dira, eta prozesu horiek eraginkorragoak dira, hezigiak proiektu eta jarduera garrantzitsuetan inplikatzeko direnean. Gainera, Deweyk azpimarratzen zuen garrantzitsua dela esperientzia aktiboa izatea, partaidetza soziala sustatuko duen espiritu kritikoa garatzeko.

Deweyren ideiak esparru sendoa dira astialdiko hezkuntzak eskaintzen dituen hezkuntza-aukerak balioesteko eta aprobetxatzeko, eta balioa ematen diote monitorearen lanari. Izan ere, esperientziaren, garapen integralaren, hezkuntza demokratikoaren, esperientziaren jarraitutasunaren, ikaskuntza-ingurune informaleen eta motibazio intrintsekoaren bidez sustatzen dute ikaskuntza.

### Esperientziaren bidez ikastea.

#### Deweyren definizioa

Deweyk prozesu gisa definitu zuen ikaskuntza-mota hori; haren esanetan, norbanakoek eza-gutzak eta trebetasunak eskuratzen dituzte, zuzeneko esperientziaren eta esperientzia horiei buruzko hausnarketaren bidez.

## ○ Ikaskuntza esanguratsua

**Vigotskik** nabarmentzen zuen testuinguru sozial eta kulturalak garrantzia duela garapen kognitiboan. Ikaskuntza lankidetzaren prozesu gisa ikusten du, eta tresna kulturalen bidez barneratzen da. Hala, interakzio sozialak eta babes egokiak funtsezko eginkizuna dute gizabanakoei beren gaitasunak erabat lortzen laguntzeko.

### Ikaskuntza esanguratsua

Ezagutzak elkarrekin eraikitzeko prozesu bat eskatzen du. Prozesu horretan, norbanakoak interakzio sozial eta kulturalaren bidez barneratzen eta eraldatzen du informazioa.



#### GOGOAN IZAN

Gure programak eta jarduerak diseinatzean, astialdiko monitoreak banakako zein taldeko garapena hartu beharko ditu kontuan.

## ○ Gizarte-inklusioa, gizarteratzeko estrategia gisa

Gizarte-inklusioa funtsezkoa da gizarteratzea lortzeko. Pertsona guztiek, beren arteko desberdintasunak alde batera utzita, aukera izan behar dute beren komunitateetako bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean bete-betean parte hartzeko. Estrategia horren bidez, ezabatu egin nahi dira zenbait talderen parte-hartzea eragozten duten oztopoak, gizarte bidezkoago eta kohesiboago bat sustatzeko.

Integrazioari esker, pertsonak bere izateko, erlazionatzeko eta antolatzeko modua baliatzen eta onartzen ikasten du, eta, horri esker, mesede egiten zaio bizikidetzari. Prozesu hori funtsezkoa da edozein gizartek modu harmoniatsuan funtziona dezan; izan ere, kohesioa, lankidetzeta eta ongizate orokorra sustatzen ditu.

**Emile Durkheim** soziologoak defendatzen duenez, gizarteratzea funtsezkoa da gizarte baten kohesioari eusteko. Haren ustez, integrazioa arau eta balio partekatuen bidez lortzen da: arau eta balio horiek gidatzen dute gizabanakoen portaera eta haiek konektatzen dituzte komunitatearekin.

**John Bowlby** atxikimenduaren alorrean eginiko lanagatik da ezaguna. Psikologiaren alorra abiapuntu harturik, haurtzaroan lotura emozional seguruak eratzearekin lotu du gizarteratzea. Bowlbyren aburuz, lotura afektibo goiztiarrak erabakigarriak dira bizitzan aitzina egin ahala harreman sozial osasungarriak garatzeko.

**Juan Marchesi Coll** akademikoa da hezkuntza inklusiboaren alorreko beste aditu bat. Gizarteratzearen eta hezkuntza-integrazioaren arloan eginiko ekarpenengatik da ezaguna. Haren lanak eragin nabarmena izan du hezkuntza-politiketan eta eskola-ingurune aniztasunari heltzeko moduan.

### Gizarte-integrazioa

Pertsonak egiaz eta eraginkortasunez parte hartzea gizarterean, edozein izanik ere gizabanako horren mugak edo berari dagozkion alderdi espezifikoak.



## MONITOREAREN ZAKO

### Iradokizunak

- ✓ Pertsona guztiek, edozein izanik ere beren gaitasunak edo inguruabar pertsonalak, eskura izan behar dituzte aisialdiko eta astialdiko programak.
- ✓ Aniztasuna aberastasun gisa ulertu behar da, eta ez arazo gisa.
- ✓ Garrantzitsua da pertsonak modu aktiboan parte hartzea gizarterean konpromisoa sortzen duten proiektuetan. Elkarlaneko eta lankidetzako proposamenak.
- ✓ Ikaskuntzaren benetako protagonistei errepertzea: haurrei eta gazteei, alegia. Prozesuei arreta gehiago jartzea emaitzei baino.
- ✓ Ekitateak izan behar du printzipio gidaria, ez hainbeste berdintasunak, eta bermatu behar da haurrek eta gazteek badutela laguntza ahalik eta potentzial handiena lortzeko.
- ✓ Astialdiko monitoreen prestakuntza funtsezkoa izanen da pertsona guztiei aukerak eskaintzea ahalbidetuko duten metodoak erabiltzeko.
- ✓ Sareko lana eta kasu bakoitzean eragina duten eragile sozializataile guztien arteko lankidetzeta. Laguntza-sareak sortzeak erraztu egiten ahal du praktika inklusiboak inplementatzea, eta ziurtatzen dute erantzun koherentea ematen zaiela gure proiektuen xede diren haurren eta gazteen premiei.
- ✓ Garapen pertsonala eragozten duten oztopoak ezabatzea: arkitektonikoak, komunikaziokoak, pertsonen arteko kalteak (beldurra, pena, portatzen ez jakitea, ezjakintasuna), egokitu gabeko baliabideak eta abar.
- ✓ Desberdintasunak onartze dituen talde-giroa sortzea, integrazioa eta, ondotik, normaltasuna lortzeko.
- ✓ Banakako aurrerapenak aitortuko eta balioetsiko dituzten ebaluazio-sistemak planteatzea.
- ✓ Aisialdiaren eta astialdiaren esparruan inklusioa eta ekitatea sustatuko dituzten hezkuntza-politikak definitzea.

## 2.4

### Jokabide asozialak, arrazistak eta/edo xenofoboak prebenitzeko eta detektatzeko oinarritzko teknikak eta baliabideak

Jokabide antisozialak prebenitzeak barnean hartzen ditu onartutako giza eskubideak eta arau sozialak urratzen dituzten portaerak saihesteko neurriak eta estrategiak, edo are gizartearen segurtasun, ongizate eta bizikidetzak baketsuari mehatxu egiten diotenak ekiditekoak. Jokabide horien artean agertzen ahal dira erasoak, indarkeria, bandalismoa, delituak eta substantzia-abusua, besteak beste.

Prebentzioa hiru mailatan sailkatzen ahal da: lehen, bigarren eta hirugarren mailakoa

#### Lehen mailako prebentzioa

Jokabide antisozialak saihesteko diseinatutako programak eta ekintzak, ageriko arazorik ez duten herritarrei, oro har, edo pertsona-talde handi ez hautatuei zuzenduak.

#### Bigarren mailako prebentzioa


Arrisku-zantzu goiztiar, arin edo moderaturen bat duten pertsonen zuzendutako programak eta ekintzak. Zenbat eta lehenago esku hartu, orduan eta aukera gehiago jokabide positiboak ezartzeko. Helburua da arrisku-egoerak detektatzea eta pertsonak goiz tratatzea.

#### Hirugarren mailako prebentzioa

Berriz erortzea eta konplikazioak saihestea, eta esku-hartzeen xede izan diren pertsonak gizarteratzen saiatzea.

Astialdiko hezkuntzak barnean hartu behar ditu jokabide antisozial, arrazista eta/edo xenofoboak prebenitzeko programak, haurren eta nerabeen garapen integralerako funtsezko tresna gisa. Helburua da alternatiba erakitzailerak eta aberasgarriak eskaintzea, arazo eta jokabide arriskutsuei aurrea hartu ahal izateko.

Astialdian hezteko gure proiektuek sustatzen ahal dituzte, esaterako, bakearen aldeko hezkuntza, osasuna,



balioetan oinarritutako hezkuntza, hezkuntza emozionala, herritarrek parte hartzeko hezkuntza eta indarkeria prebenitzea. Astialdiko hezkuntza-proiektu guztietan eta haien esku-hartze eremuetan landu beharreko arlo transbertsalak.

Jarraian, eremu horretan prebentzio-lan bat garatzeko inspirazio-iturri izaten ahal diren proposamen batzuk jasoko ditugu, balizko jokabide arriskutsu, asozial eta arrazista edo xenofoboak detektatzeko.

**Hezkuntza eta sentsibilizazioa.** Aniztasunari, tolerantziari eta elkarrenganako errespetuari buruzko gaiak gaztetatik lantzen dituzten hezkuntza-programak ematea. Programa horiek barnean hartzen ahal dituzte hitzaldiak, tailerrak, talde-jarduerak eta kultura-aniztasunaren kontzientzia eta ulermena sustatzeko diseinatutako material didaktikoak.

**Balio inklusiboak sustatzea.** berdintasuna, justizia, errespetua, enpatia eta beste zenbait balio sustatzea eguneroko bizitzako alderdi guztietan, hala nola etxean, eskolan, lanean eta komunitatean. Sentsibilizazio-kanpainak, tutoretza-programak eta portaera positiboak sustatzeko programak bidez egiten ahal da hori.

**Rolak, estereotipoak eta aurreiritziak haustea.** Estereotipoak pertsona talde bati buruzko uste orokortuak eta sinplifikatuak dira, hautemandako ezaugarrietan oinarrituak.

Estereotipoak positiboak edo negatiboak izaten ahal dira, baina murriztaileak izateko joera dute, eta ez dute islatzen dibertsitate indibiduala. Bestalde, aurreiritziak estereotipoetan oinarritutako jarrerak dira, gizabanako edo talde bati buruz aurrez sortuak, eta, oro har, negatiboak. Aurreiritziak erabateko jakintza izan gabe eraturako juzguak dira, eta erresistenteak dira aldaketarekiko, baita kontrako ebidentzia dagoenean ere.

**Espiritu kritikoa garatzea.** Pentsamendu kritikoko trebetasunak irakastea, estereotipoak zalantzan jartzeko.

**Banan-banako jarraipenak.** Jokabide asozial, arrazista edo xenofoboan zantzuei erreparatzea eta neurri azkar eta egokiak hartzea halakoei aurre egiteko. Horrek esan nahi du astialdiko monitoreak sarean lan egin behar duela: gorabeheren gaineko txostenak bildu behar ditu eta aintzakotzat hartu beharko ditu ezarritako arauak betetzen ez direnean hartzen ahal diren diziplina-neurriak.

**Esku-hartzea eta babesa.** Jokabide asozial, arrazista edo xenofoboan biktimei laguntza eta baliabideak ematea, bai eta portaera problematikoak dituztenei ere. Hor barnean sartzen ahal dira, esaterako, banakako aholkularitza, gatazken bitartekaritza eta baliabide komunitarioak eskuratu jartzea, behar emozional eta sozialei aurre egiteko.

#### Kasu praktikoa posible batean:

- Bildu ahal duzun beste **informazio**. **Diagnostiko** bat egin.
- Landu beharreko gai espezifikoari buruzko **prestakuntza**.
- **Balioak** kontuan izan eta konbentzimenduz transmititu.
- Une bakoitzerako **teknika** egokiak erabili:
  - ✓ Behaketa-teknikak.
  - ✓ Motibazio-teknikak.
  - ✓ Komunikazio baketsu eta asertiboko teknikak.
  - ✓ Gatazka konpontzeko teknikak.

**Behatzea** da astialdiko monitorearentzat alderdi garrantzitsuenetako bat, metodo eta teknika gisa. Behaketaren bidez, laguntza egokia eskaintzen ahal diegu haurrei eta gazteei, haien garapena errazten edota zailtzen duten jokabideak eta jarrerak detektatuko baititugu. Horri esker, banakako eta taldeko ongizateari mesede egingen dion prebentzio-lana egiten ahalko dugu.

Behaketarako teknika bat baino gehiago daude. Parte-hartzaileek ez dute beti jakiten inor haiek behatzen ari ote den ala ez, eta behatzaileak, berriz, ez dira beti sartzen behaketaren xede den taldean.



### GOGOAN IZAN


Pertsonen handitasuna ez dute definitzen haien bertuteek edo akatsek, ezpada giza-ki gisa duten kalitateak. Horrek izan behar du hezkuntzaren azken helburua.

Jarraipen-fitxa bat diseinatuko dugu, eta, han, hezkuntza-programa, -jarduera edo -proiektu bakoitzera egokitzen ahal diren adierazle batzuk jasoko dira. Adierazle hauetan oinarritzen ahal zara zure fitxa diseinatzeko.

Maiz haserretzen da	<input checked="" type="checkbox"/>
Zer hiztegi-mota erabiltzen du?	<input checked="" type="checkbox"/>
Gainerakoekin ongi erlazionatzen da	<input checked="" type="checkbox"/>
Frustrazioarekiko tolerantzia badu	<input checked="" type="checkbox"/>
Erronka jotzen dio autoritateari	<input checked="" type="checkbox"/>
Integratzen du iritzi-aniztasuna	<input checked="" type="checkbox"/>
Endredatu egiten ditu ikaskideak	<input checked="" type="checkbox"/>
Adierazten ditu emozioak	<input checked="" type="checkbox"/>
Motibaturik dago	<input checked="" type="checkbox"/>
Lankidetzan aritzen da gainerako lankideekin	<input checked="" type="checkbox"/>
Betetzen ditu ezarritako arauak	<input checked="" type="checkbox"/>
Entzuten du hitz egiten diotenean	<input checked="" type="checkbox"/>
Barneratzen ditu ematen diren jarraibideak	<input checked="" type="checkbox"/>
Begietara begiratzen du hitz egitean	<input checked="" type="checkbox"/>
Ardurak bere gain hartzen ditu	<input checked="" type="checkbox"/>
Adiskidetsu agertzen da gainerakoekin	<input checked="" type="checkbox"/>

**Motibazioa** da kontuan izan behar dugun beste alderdi bat. Horrek berebiziko garrantzia du astialdiaren eremuan inklusioa sustatzeko baliabide gisa. Horretarako, beharrezkoa da giro bizigarri eta abegikorra sortzea, autoestimua eta konfiantza indartzea, helburu lorgarriak ezartzea, interesak eta grinak aztertzea, bizitzarako helburu bat sustatzea eta parte-hartzaileen autonomia bultzatzea.

## Inklusioa motibazioaren bidez sustatzea



1. Giro motibatzailea, aktiboa eta partizipatiboa sortzea: Astialdiko monitoreek giro bizigarria eta abegikorra ezartzen ahal dituzte.
2. Motibazio positiboaren bidez, **autoestimua** eta norbere buruarekiko konfiantza indartzen laguntzen da. Banakako eta taldeko lorpenak aitortzeak eta talentuei balioa emateak ahaldundu eta motibatu egiten du jardueretan bete-betean parte hartzen jarraitzeko. Era berean, norberaren ikaskuntza kontrolatzeak eta zer jardueratan parte hartu nahi duten erabakitzeak **autonomia** garatzen du.
3. Helburu argiak eta garrantzitsuak izateak eta jomuga lorgarriak definitzeak **inspirazioa** eta **motibazioa** areagotzen dituzte.
4. Parte-hartzaileei beren interesak esploratzen uzteak modu aktiboan parte hartzera eta trebetasunak gatzera bultzatuko ditu. Horrek **sormena** sustatzen du eta, era berean, nahi eta **gogobetetze** handiagoak izaten dira egiten den horretan.
5. Askotariko jarduerak eskaintzeak guztien **motibazioa** bermatuko du; izan ere, aukera ugari eskaintzen

dira, banakako ezagutzen eta trebetasunen aniztasuna kontuan hartuta.

6. Banakako ekarpenek taldearen ongizateari nola laguntzen dioten ulertzen laguntzea. **Erantzukizun-sentimendua** eta kide izatearena indartzea, jardueretan inplikazioa areagotzea eta, horrekin batera, ikaskuntzaren motibazioa sendotzea.

Hona hemen arlo horretako azterlan eta dokumentu erabakigarri batzuk:

.....  
**J. S. Eccles eta B. L. Barber (1999)**. Eskolaz kanpoko jardueri buruz egin zuten ikerketan, nabarmendu zuten eragin positiboa izan zutela nerabeen garapenean.  
 .....

.....  
**J. L. Mahoney, H. Stattin, eta H. Lord (2004)**. Aztertu zuten eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeak murriztu egiten ahal duela portaera problematikoak izateko arriskua.  
 .....

.....  
**UNESCOren Kalitatezko hezkuntza eta astialdian ikastea txostenak (2010)** ikasgelatik kanpoko hezkuntza-jardueren garrantzia jorratzen du.

## 2.5

### Desgaitasuna duten pertsonekin lan egiteko teknikak

Atal hau irakurtzen hasi aurretik, bideo hau ikustera gonbidatzen zaitugu.



Lorenzoren kasua, YouTube



<https://bit.ly/4kaJWr0>



#### ARIKETA PRAKTIKOA

Idatzi orri batean bururatu zaizkizun ideiak.

Aisialdia eta astialdia desgaitasunen bat duten pertsonen eskubidea da. Espainiako Konstituzioak (49. artikulua) ez ezik, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioak ere babesten dute.

Nazio Batuen **2030 Agendak** hauxe definitzen du 4. helburuan: "Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea denentzat". 4.5. Genero desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-heziketan pertsona zaugarriari, horien artean izanik desgaitasunen bat dutenak, herri indigenak eta zaugarritasun-egoeran dauden haurrak. Helburu horri hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta, zehazki, astialdiko hezkuntzaren bidetik heltzen ahalko zaio.

CERMIk 2010ean eginiko *Ocio y Tiempo Libre de las Personas con Discapacidad en la Comunidad de Madrid* (Desgaitasuna duten pertsonen aisialdia eta astialdia Madrilgo Erkidegoan) azterketaren arabera, desgai-

tasuna duten pertsonen % 69k aukera mugatua dute aisialdi- eta kultura-jardueretan parte hartzeko, irisgarritasun-arazoek eraginda. Gainera, pertsona horien % 91k du oztoporen bat jarduera horiek egin ahal izateko. Oztopo horien artean ageri dira, esaterako, leku publikoetan eta ekitaldietan irisgarritasun fisikorik ez izatea, desgaitasun-motetara egokitutako jarduera-eskaintza mugatua izatea, eta desgaitasuna duten pertsonak jarduera horietatik baztertzea edo parte hartzeko mugak ezartzea eragiten duten jarrera sozialak izatea. Oztopo horiek gainditzea funtsezkoa da guztiek astialdiaz modu inklusibo eta ekitatiboan gozatzen dutela bermatzeko.

"Iguales pero diferentes. Un modelo de integración en el tiempo libre" (Berdinak baina desberdinak. Astialdian integratzeko eredu bat) liburuak jasotzen duenez, integrazioari esker, pertsonak —dela desgaitasunen bat duenak, dela desgaitasunik ez duenak— bere izateko, erlazionatzeko eta antolatze modua baliatzen eta onartzen ikasten du, eta, horri esker, mesede egiten zaio bizikidetzari.

Astialdiko monitoreak bere programak prestatu eta egokitu beharko ditu, pertsona guztien autonomia, parte-hartzea eta inklusioa eragozten duten oztopoak ezabatzeko. Egokitzapen horiek jarduera-eremu guztietan egingen dira: udalekuak, ludotekak, eskolaz kanpoko jarduerak, natura-ikasgelak, gazteen zentroak eta abar.

Astialdiko hezkuntzaren helburuen artean jaso behar da zailtasunak, desgaitasuna edo defizit sozialak dituzten pertsonen ahalik eta bizimodu normalena izan dezaten saiatzea. Horretarako, gizartean moldatzeko behar duten laguntza jaso behar dute, beren premien ondorioz baztertu gabe. Hala, ahalik eta gehien garatzen ahalko dituzte beren autonomia, autoestimua eta autorregulazioa.

Gizarteak beharrezko baliabideak jarri behar ditu, eta eskura dauden alternatibak pertsona horien beharrezkoak egokitu, haien garapen pertsonal eta sozialean laguntzeko.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, desgaitasuna termino generikoa da, eta elkarri lotutako hiru osagai hartzen ditu: gabeziak, jardueraren mugak eta parte hartzeko murrizketak.

Ikuspegi horrek, urritasun fisikoak ez ezik, kontuan hartzen ditu pertsona baten desgaitasunaren esperientzian eragina izaten ahal duten ingurumen-faktoreak eta faktore pertsonalak ere.

### 1. Urritasunak

Gorputzaren egitura edo funtzio bati eragiten dioten arazoak, hala nola gorputz-atal baten galera edo anormaltasuna.

### 2. Jardueraren mugak

Pertsona batek zailtasunak izatea ekintzak edo zereginak egitean, hala nola ibiltzean edo idaztean.

### 3. Parte hartzeko murrizketak

Pertsona batek bizi-egoeretan inplikatzeko dituen arazoak, hala nola lan egitean edo gizarte-jardueretan parte hartzean.

Desgaitasuna urritasunen ondorioztat hartzen da, urritasun horiek gaitasun funtzionalak eta gizartearen parte hartzea mugatzen dituztenean. Jaiotzetikoak edo garapen-prozesuan eskuratutakoak izaten ahal dira, eta aldi baterakoak edota iraunkorrak.

Hezkuntza-eremurako tresnak sortzen dituztenen gomendioei jarraituz, giza funtzionamenduaren zortzi eremu hautatu ditugu, hezkuntza-oztoporen bat sortzen ahal dutenak: ikustea, entzutea, mugitzea, gogoratzea, kontzentratzea eta arreta paratzea, beste batzuekin harremanetan jartzea, emozioak kudeatzea eta komunikatzea (Hollewenger, 2012; Castro eta Palaikara, 2013; UNICEF eta Washingtongo Taldea, 2021).

Puntu horiek *Glosario de apoyos educativos y ajustes razonables para garantizar la participación plena de estudiantes con discapacidad* lanean daude jasota (Hezkuntza-laguntzen eta arrazoizko doikuntzen glosarioa, desgaitasuna duten ikasleen erabateko partaide-tza bermatzeko. Moreno, M., 2023).

- **Ikustea.** Inguruan gertatzen dena hautemateko eta behatzeko gaitasun bisuala, barnean hartzen ditu ikusmen periferikoa eta egunez edo gauez, hurbiletik edo urrutitik, eta begi batekin edo biekin ikusteko zailtasunak.
- **Entzutea.** Entzuteko gaitasuna, ingurune hurbilean zer esaten den jakiteko edo soinuak jasotzeko. Entzumen murriztua belarri batean edo bietan.
- **Mugitzea.** Motrizitate larriaren zailtasuna, batez ere ibiltzeko; maila desberdinak.
- **Gogoratzea.** Gertaerak, ekitaldiak, esperientziak edo hurbileko ingurunean gertatzen dena gogoratzeko gaitasuna izatea.
- **Arreta jartzea eta kontzentratzea.** Irakurtzeko, kalkulatzeko edo zerbait berria ikasteko gaitasun mentala. Gai batean arretari eustea, distraitu gabe.
- **Beste pertsona batzuekin harremanak izatea.** Beste batzuekin interakzioan aritzeko eta sozializatzeko gaitasuna izatea, erabiltzen den hizkuntza edozein dela



ere, parte hartzea, ekarpenak egitea, jasotzea, erantzutea eta laguntzea eskatzen duten gizarte-jardueretan. Agertzen ahal dira zailtasun emozionalak, komunikatiboak, kognitiboak edo jokabidearekin loturikoak.

- **Emozioak kudeatzea.** Banakako eta taldeko egoeretan, emozioak adierazteko eta kudeatzeko zailtasuna, ezagunen zein arrotzen aurrean. Emozio horiek agertzen ahal dira tristura edo antsietate gisa, eta gerta liteke aldiaren behin izatea ere, eta horrek arriskuan jartzen du eskolara joatea eta baliteke ikasketak uztea. Maiztasunari egiten dio erreferentzia, intentsitateari baino gehiago.
- **Komunikatzea.** Ahoz, idatziz, keinuz edo gorputzez komunikatzeko zailtasuna. Barnean hartzen du bai besteak ulertzea (komunikazio hartzailea), bai aditzera ematea eta besteak ulertzea (komunikazio adierazkorra).

Astialdiko hezkuntzak babestu edo egokitu egin behar ditu programazioak, baliabideak eta jarduerak, pertsona guztiek eskuratzeko aukera berberak izan ditzaten. Horretarako, pertsonen autonomia sustatuko duten hezkuntza-laguntzak eskaini beharko dira, eta erraztu egin beharko dira komunikazioa eta ulermena. Hala, desgaitasuna duten pertsonen beren eskubideak baliatzen ahalgo dituzte komunitatean integratuta.

Jarraian, PDF baterako esteka bat aurkituko duzu. Han, **Marisol Moreno Angaritik** egindako hezkuntza-laguntzak zehazten dira, eta hantxe dago jasota hizpide dugun glosarioa.

Glosario hori hezkuntza formalean oinarritzen da, baina hezkuntza ez-formalean ere aplikatzen ahal da, jakinik ez direla berdinak hezkuntza-mota baten eta bestearen baliabideak. Puntu honetan, sareko lanaren garrantzia gogorarazten dugu, pertsonari eragiten dioten eragile sozializatzaile guztiak erlazionatuta egon daitezen.

Astaldiko hezkuntzaren esparruan, beti ez da eskura izaten behar den informazioa une egokian. Hori erronka berezia da esku-hartze laburrak direnean, hala nola hamar eguneko udalekuen kasuan edo baserri-eskola batean astebeteko egonaldiak antolatzen direnean. Testuinguru horietan, parte-hartzaileen banakako premiei eta ezaugarriei buruzko informazio faltak zaildu egiten du hezkuntza-programak pertsonalizatzea, eta eragotzi egiten du monitoreek pertsona bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea programa horiek.

Oztopo hori gainditzeko, funtsezkoa litzateke informazioa alde zurretik eta etengabe biltzeko estrategiak ezartzea. Era berean, komunikazio bizia sustatu beharko litzateke parte-hartzaileen, haien familien eta hezitzaileen artean, eta banakako edo taldeko errealitateetarako baliabide didaktikoak eta jarduera zehatzak prestatu eta eskuratu beharko litateke.



### Ariketa praktikoa

Ariketa praktikoa hau proposatzen dizugu hausnartzeko eta aukeratzen duzun kasuaren alderdiak kontuan hartzeko.

- Demagun udaleku bat antolatu behar duzula, eta joanen diren hiru pertsonak doikuntzak behar dituztela erabateko inklusioa lortzeko.
- Erabaki hiruren adina eta ezaugarri indibidualak.
- Zehaztu beharrezko jarduera, baliabideak edo metodoak.



### GOGOAN IZAN

Pertsonak ez dira desgaituak, baizik eta urritasun batek eragindako desgaitasuna dute. Gizartearen esku dago desgaitasun hori konpontzea.



Esteka honetan aurkituko duzue hezkuntza-laguntzen eta arrazoizko doikuntzen glosario bat, desgaitasuna duten ikasleen erabateko partaidetza bermatzeko.



<https://bit.ly/3EYoZkK>



## MONITOREAREN ZAKO

### Irakokizunak

- ✓ Askotariko garapenak dituzten pertsonak modu berean partaide egin eta kontuan hartu. Gainerakoekin interakzioan jardun, eta izan dezatela aukera jarduerak planifikatzean iritzia emateko eta laguntzeko.
- ✓ Aniztasuna taldean bizi eta balioa eman pertsona guztien ekarpenei, bai indibidualei, bai kolektiboari.
- ✓ Modu normalizatuan erlazionatu eta komunikatu, ez infantilizatu eta ez hitz egin gainerako parte-hartzaileekin ez bezala.
- ✓ Aisialdi-eskaintzak ezagutu, askatasunez aukeratu ahal izan dezaten.
- ✓ Hezkuntza-oztopoak eta dagozkien laguntzak, arrazoizko doikuntzak eta laguntza-tek-nologiak identifikatu.
- ✓ Gure lanaren xede izanen diren pertsonen oztopoak aztertu. Jarduera antolatzen duen elkartearen edo erakundearen sartu behar diren hezkuntza-laguntzak hautatu.
- ✓ Gure esku egoten ahal diren arrazoizko doikuntzak hautatu. Material egokiak izan.
- ✓ Prozesuaren emaitzak aplikatu, probatu, monitorizatu eta ebaluatu, arrazoizko laguntza edo doikuntzekin. Haien egokitasuna, kome-nigarritasuna, moldagarritasuna eta efizien-tzia arian-arian berrikusi.
- ✓ Astaldiko hezkuntzaren arloan lan egiten duten beste pertsona batzuekin esperientzia partekatu.

## 2.6

### Kulturarteko hezkuntzan esku hartzeko estrategiak eta teknikak

Gero eta askotarikoagoa eta globalizatuagoa den gizarte honetan, kulturarteko hezkuntza funtsezko premia bihurtu da. Astialdiko hezkuntzaren esparruan, kulturarteko estrategiak txertatzeak kultura desberdinen arteko inklusioa, errespetua eta elkar ulertzea sustatzen ditu. Jarraian, kulturarteko hezkuntza sustatzeko erabiltzen ahal diren esku hartzeko zenbait estrategia eta teknika aztertuko ditugu.

Hezkuntzak, bereziki astialdiko espazioetan, ingurune malgua eskaintzen du: topaketa kulturala sustatzeko aukera ematen du, aurreiritziak murrizten ditu, inklusioa eta kohesio soziala sustatzen ditu, eta gizabakakoak prestatzen ditu mundu globalizatu baterako. Hori funtsezkoa da kultura arteko benetako ikuspegiarekin lan egiteko, eta, hala, norberaren kulturaren eta beste kultura batzuen arteko harremanari testuinguru berean heldu ahal izateko.

Kulturarteko hezkuntza astialdiko hezkuntzaren esparruan lantzeko, zenbait alderdi hartu behar ditugu kontuan: errespetuan eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza, espiritu kritikoa duen identitatea eraikitzea rolak eta estereotipoak hautsi ahal izateko... Era berean, saihestu egin nahi dira iritziak eta aurreiritziak, eta, haien ordez, tolerantzia eta ulermena sustatu, funtsezkoak baitira balio horiek gaur egungo munduan.

Aurreko ataletan jasotako estrategiak eta teknikak txertatuko ditugu, eta kulturarteko jarduerak, dinamikak eta jolasak gehituko dizkiegu, beste kultura batzuetako ohiturak, kondairak edo ipuinak erakusteko, edo kultura-aniztasuna islatzen duten sormen-tailerrak antolatuko ditugu. Betiere aukeran izanen da taldeetara egokitzea.

Pertsona guztiek parte hartzeko zabalik dauden proiektu kolaboratibo edo kooperatiboak sustatuko ditugu, kultura guztiei buruzko informazioa eta ezagutza eskaintzen ahal dituztenak. Partaidetzan oinarrituriko ikuspegiaren bitartez, bermatzen da askotariko pertsonak eta kulturak motibatzen eta barnean hartzen direla auzo, gizarte-etxe, elkarte edo erakunde batean eginiko astialdiko hezkuntza-programetan.

Astialdiko monitoreak gainerakoak ezagutzeko sentsibilizazioa eta konpromisoa izan beharko ditu, baita horretarako gaitasunak garatu ere. Horretarako, beharrezkoa da besteren lekuan jartzea eta norberaren ezagutzan aurrera egitea, gainerakoekin alderatzeko eta haiengandik bereizteko.

Psikologia humanistaren ikuspegitik, **Carl Rogersek** *On Becoming a Person* (Pertsona bihurtzeari buruz) lanean nabarmentzen du garrantzitsua dela enpatia izatea gainerakoak eta norbere burua ezagutzeko.

Haren iritzian, rol eta ikuspegi desberdinak betetzeko ematen ditugun aukeren eta prozesu horretan ahalbidetzen dugun elkarrekikotasunaren mende egonen da, hein handi batean, hezkuntzaren kalitatea eta garapen soziala sustatzeko gaitasuna.

Ikuspegi desberdinak hartzeko gaitasuna garatzea funtsezkoa da astialdiko monitore baten egitekoan. Trebetasun horrek zehaztuko du jarduerak kudeatzeko eta horietan parte hartzen duten pertsonen garapena sustatzeko modua.

1. Gainerako pertsonak enpatiaren bidez ulertzea.
2. Norbere burua ezagutzea, konparazioaren eta bereizketaren bidez.
3. Astialdian aplikatzea.
4. Garapen pertsonala eta soziala sustatzea.



*Hezkuntzak ez du mundua aldatzen, baizik eta mundua aldatuko duten pertsonak aldatzen ditu*

Paulo Freire

## 1. Gainerako pertsonak enpatiaren bidez ulertzea

### Bestearen tokian jartzea

Ikuspegi desberdinak hartzeko gaitasuna enpatiarekin hasten da.

Astiaidiko monitoreak ahalegindu egin behar du parte-hartzaileen esperientziak, sentimenduak eta ikuspuntuak ulertzen. Horrek hobetu egingen du komunikazioa, eta lagungarri izanen zaio premia espezifikokoak eta agertzen ahal diren gatazkak identifikatzeko, bai eta horiei aurre egiteko ere. Gainera, baliteke ezinbesteko baldintza izatea indarkeria inhibitzeko, bai eta gatazkak modu burutsuan eta bidezkoan konpontzen ikasteko ere.



### Ariketa praktikoa

- Imajinatu hamar gazteko talde bat, bakoitza trebetasun eta aurrekari kultural desberdinekin.
- Irudikatu haien bizitzak eta profilak.
- Enpatizatu haien bizitzekin eta pentsatu haiei proposatzeko jarduera bat.

Parte-hartzaile bakoitzarekin enpatia duen astiaidiko monitoreak hobeki ulertuko du taldearen dinamika, eta jarduera inklusiboak eta beharretara egokituak diseinatzeko ahalko ditu.

### Entzute aktiboa

Gainerako pertsonak ezagutzeko, funtsezkoa da entzute aktiboa praktikatzeko. Parte-hartzaileei entzutea eta haien gorputz-hizkuntza eta seinale emozionalak behatzea eskatzen du. Adi-adi eta epaitu gabe entzutetik sortzen da sakoneko ulermena.

## 2. Norbere burua ezagutzea, konparazioaren eta bereizketaren bidez

### Norbere identitateari buruz hausnartzea

Testuinguru eta ikuspegi desberdinetako pertsonekin interakzioan aritzean, astiaidiko monitoreak ere bere buruaren ikuspegi argiagoa lortzen du. Norberaren esperientziak eta ikuspuntuak gainerako pertsonekin alderatzea lagungarria da norberaren identitatea eta sinesmenak hobeki ulertzeko.



### Ariketa praktikoa

Aurreko hamar laguneko taldea berriro hartuta, aztertu zer balio transmititu nahi dituzun eta zer ikuspegi duzun munduari buruz.

Saiatu ikusten haiek lehenesten dituzten balioak eta, beren bizi-errealitateen arabera, izaten ahal duten mundu-ikuspegia.

### Autoenpatia garatzea

Norberaren ikuspuntuak besteekin alderatuta nola eratzten diren jakiteak autoenpatia sustatzen du. Astiaidiko monitoreak bere erreakzio emozionalak eta aurreiritziak kudeatzen ikasten ahal du, eta hobetu egingen du interakzio eraikitzaileko gaitasuna.

### 3. Astialdian aplikatzea

#### Jarduera inklusiboak diseinatzea

Parte-hartzaileen ikuspegiak errotik ulertzeari esker, monitoreak jarduera inklusiboak diseinatzen ahalko ditu, eta, hala, parte-hartze ekitatiboa sustatuko du. Horren barnean sartzen da jarduerak egokitzea guztientzat irisgarriak izan daitezen, bakoitzaren trebetasunak eta beharrak kontuan hartuta.



#### Ariketa praktikoa

Pentsatu zure taldeari zuzendutako jarduera bat, eta zehaztu jarraitu beharreko metodologia eta jarduera garatzeko alternatibak eta aldaerak, inklusiboak izan dadin.

Talde jakin batzuei bakarrik mesede egiten dien jarduera baten ordez, monitoreak aukera bat baino gehiago sortzen ahal ditu jarduera beraren barruan, parte-hartzaile bakoitzak bere interesen eta trebetasunen arabera aukera dezan.

#### Gatazkak konpontzea

Ikuspegi desberdinak izateko trebetasuna funtsezkoa da gatazkak modu eraginkorrean konpontzeko. Jarduera batean parte hartzen duten pertsonen ikuspegiak ulertzeak lagundu egingen dio monitoreari bitartekari-lanak modu bizidun egiten eta inplikaturako pertsona guztien beharrak kontuan hartzen dituzten soluzioak topatzen.



#### Ariketa praktikoa

Prestatu zure baliabideak gatazka posible baterako. Zer tresna erabiliko zenituzke? Entzutea, meditatzea...

Bi parte-hartzailearen artean gatazka sortzen bada, monitoreak bi aldeek ikuspuntuak entzuten eta ulertzen ahal ditu. Hala, errazago konponduko da gatazka; parte-hartzaile bakoitzaren ikuspegiak errespetatuko dira eta elkar ulertzea sustatuko da.

### 4. Garapen pertsonala eta soziala sustatzea

#### Parte-hartzaileen artean enpatia sustatzea

Ikuspegi desberdinak izateko gaitasuna modelatzean, monitoreak gauza bera egiten irakasten die parte-hartzaileei. Horri esker, gizarte-trebetasun garrantzitsuak sustatzen dira, hala nola enpatia eta desberdintasuneko errespetua.

Taldeko jarduera batean, monitoreak baliatzen ahal ditu haurrak edo gazteak besteen lekuan jartzea eskatzen duten dinamikak, ulermenaren eta errespetuaren kultura sustatzeko.

#### Hezkuntza-esperientzia aberastea

Ikuspegi-aniztasuna ulertu eta baloratzean, monitoreak aberastu egiten du astialdiko esperientzia. Horri esker, jarduerak garrantzitsuagoak izanen dira, eta hartzaileak baloratuta eta ulertuta sentitzen dira.



#### Ariketa praktikoa

Pentsatu dinamika bat, ahalbidetuko duena zure taldean ordezkapena duten kulturen ezaugarriak jasotzea.

Jardueretan kultura desberdinetako istorioak eta ikuspegiak sartzean, monitoreak aberastu egiten du ikaskuntza-esperientzia eta parte-hartzaileen arteko ikuspegi globala sustatzen du.

Astialdiko monitoreek tresna eraginkorrak behar dituzte, eta halakoek bidez garatuko dituzte kulturarteko hezkuntzaren arloan gaitasunak eskuratzen direla bermatzeko gai diren hezkuntza-planteamenduak. Jolasa izanen da erronka hori lortzeko tresna eraginkorretako bat.

## 2.7

### Hezkidetzeta-metodologia: rolen, aniztasunaren, intimitatearen eta abarren eraikuntza soziala

Hezkidetzak berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa du oinarri, eta pertsonen aukera berdinak eskaintzean datza, haien arteko desberdintasunak eta indibidualtasunak errespetatuz. Generoa, kultura, klase soziala eta abar alde batera utzi eta desberdintasunetatik abiatu-rik berdintasunerantz hezteari deitzen zaio hezkidetzeta.

Metodo bat zein hezkuntza-proposamen bat izaten ahal da, eta pertsonak aisialdiko eta astialdiko jardueretan sartzera erraztuko du.

Hezkidetzeta gizakiak sozializatzeko prozesu bat da, eta hezkuntzan oinarrituriko esku-hartze bat gertatzen da. Desberdintasunetatik abiatzen da, eta alde batera uzten ditu, esaterako, pertsonen jatorria, sexua eta halako alderdiak.

Hezkidetzaren helburua da pertsonen garapen indibidualan laguntzea, ahalik eta potentzial handiena lortzeko eta, aldi berean, enfrentamendurik gabeko eraikuntza sozial erkidea lortzeko.

Astialdiko monitoreak genero-ikuspegia kontuan hartuta egin behar du hezkidetzeta-lana. Kontua da rola eta estereotipoak haustea, gizarteak aurrera egin dezan, pertsona guztien eskubideak errespetatuz.

#### KONTZEPTU BATZUK

##### ○ Berdintasuna

Sexua, kultura eta/edo klase soziala gorabehera, erabat garatzeko aukera berberak izateko eskubidea. "Berdintasun" terminoak alderdi horien gainetik baloratzen du gizakia, eta balioetsi egiten du pertsonen artean dagoen alde berezia.

##### ○ Sexua

Termino hori desberdintasun biologikoa deskribatzeko gordetzen da (alderdi genetiko, endokrino eta neurologikoan), eta ez ditu nahitaz portaerak zehazten.

Sexu-garapen osoan, pertsona izaki sexuatu gisa eratzten duten egitura-multzoa da. Alde biologikoak daude gizonen eta emakumeen artean.

##### ○ Generoa

Generoari dagokionez, definizio bat baino gehiago daude. Guztiek ere alderdi kulturalen, araututa dagoenaren eta espero izatekoa denaren arteko eraikuntzari egiten diete erreferentzia.

Generoak gizarte jakin batean gizon edo emakume izateari lotutako ezaugarri sozial, kultural eta psikologikoei egiten die erreferentzia. Sexuak arra eta emea bereizten dituzten ezaugarri biologiko eta fisikoei egiten die erreferentzia (kromosomak, hormonak eta genitalak, kasurako); generoa, ordea, eraikuntza sozial eta kultural bat da, eta aldatu egiten da testuinguru eta kultura batetik bestera.

Bi kontzeptu horiek erlazionatuta, nerabezaroa aldaketa-aldia dela ulertzen da. Etapa horretan, pertsona bakoitzaren nortasuna eratzten ari da, eta harremanak eta ereduak garrantzitsuak dira, ez jarduteko moduan bakarrik, baita sentitzeko eta bizitzeko moduan ere.

Gazteen testuinguruan, "genero" terminoak gizonei eta emakumei esleitzen zaizkien erantzukizunen eta rolen gizarte-esleipen bereizari egiten dio erreferentzia; horiek baldintzatzen dituzte identitateak eta bizi-proiektuak.

Esleipen hori kulturaren, ohituren eta indarrean dauden bestelako baldintza sozialen arabera da. Estereotipo sozialek sexuaren arabera definitzen eta baloratzen dituzte rola eta zereginak; gizonarentzat, lehentasunez gordetzen dute ekoizpenaren eremu publikoa, eta emakumearentzat, berriz, ugalketarekin eta beste pertsona batzuk zaintzarekin lotutako eremu pribatua.

##### ○ Rolak

Itxaropen edo eskakizun sozial eta subjektibo gisa sortzen diren funtzio, zeregin eta erantzukizunen multzoa. Pertsona batek rol bat bere gain hartu ondotik, haren inguruneak rol hori betetzea eskatzen du, eta, bete ezean, zigorrak jartzen ditu. Pertsonak berak batzuetan bere gain hartzen du eta batzuetan haren inguruan eraikitzen ditu bere psikologia, afektibitatea eta autoestimua.

## ○ Genero-estereotipoak

Emakumeen eta gizonen ustezko atributu “naturalei” buruz aurrez pentsatutako ideietan oinarritzen diren sinismenen multzoa. Klise gisa ezartzen zaizkie pertsoneri, sexu batekoak edo besteak diren kontuan harturik.

Hautzaroan eta nerabezaroan, emakumeek eta gizonek beren nortasuna osatzen dute, kultura bakoitzean indarrean dauden eta nagusi diren ereduak atxikitze eta identifikatzeko prozesu konplexu baten bidez. Estereotipo hierarkizatuek azkenean oztopatu eta baldintzatu egiten dituzte gizonen eta emakumeen jarduteko moduak, ohiturak eta zereginak.

Hezitzaileen lana da estereotipo horiek haustea eta aukera-sorta zabaltzea, pertsona bakoitza bere nortasunaren arabera garatu ahal izan dadin.

## ○ Feminismoa

Feminismoa emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna bilatzen duen mugimendu sozial, politiko eta ideologikoa da. Diskriminazioa, zapalkuntza eta genero-desberdinkeria iraunarazten duten botere-egiturei eta praktika sozialei heltzea du helburu, bai eta horiek desegitea ere.

Ekitatea defendatzen du bizitzaren eremu guztietan —lana, hezkuntza, politika eta bizitza pertsonala barne—, eta justizia soziala eta genero-esperientzia eta -ikuspegi aniztasunarekiko errespetua sustatzen ditu.

## ○ Hezkidetzak: berdintasunerako heztea, desberdintasunetik abiatuta

Hezkidetzarako, beharrezkoa da hezitzaileek aurrez sensibilizatzeko eta kontzientziatzeko prozesu bati jarraitzea. Hasteko, analisi pertsonal bat egiten da, guztiok ditugun sinismenak eta portaera inkontzienteak hausteko. Hausnarketa-prozesu hori haurren eta gazteen hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak egin behar dute: monitoreak, irakasleak, gazteak, familiak... Eta, oro har, komunitate osoak.

Hezkidetzak pertsona guztiak berdindutzea esan nahi du, generoaren arabera hierarkizatuta ez dagoen balio, portaera, arau eta itxaropenez osaturiko sistema baten esparruan.

Helburua da gaitasun indibidualak garatzea eta positibotzat hartutako jarrerak lantzea, eta berdindutzea da tradizionalki zein sexuri esleitu izan zaizkion gaitasun horiek.

Hezkidetzak esan nahi du hezkuntza integrala lortzeko lan egin behar dela.

Berdintasuna, elkartasuna, ekitatea, errespetua eta bakea dira hezkidetzak aldeztu dituen balioetako batzuk. Sexu-desberdintasunak trukatu beharreko aberastasun gisa defendatzen dira, baina, horrekin batera, baita beste balio batzuk ere, hala nola elkarrizketa, negoziazioa, adostasuna, parekotasuna karguak betetzean, humanizazioa, malgutasuna eta ekitatea espazioak eta denborak erabiltzean, bi sexuen arteko lankidetzak eta genero-estereotipoak haustea —eta, bereziki, eremu publikoan eta pribatu gauzatzeko eginkizunei loturikoak—.

Hezkidetzak askatasunean hezteko aukera eskaintzen du. Pertsona bakoitzaren gaitasunak indartzen ditu, eta, hala, espiritu kritikoa garatzen da, une bakoitzean komeni zaiona aukeratu ahal izateko, esate baterako, helduarora baldintza ezin hobeetan iristea ahalbidetuko dion lanbidea.

### HAUSNARTZEKO GONBITA EGITEN DUTEN ZENBAIT GALDERA

- Errespetatzen duzu gazteen nortasuna haien premia indibidualak asetzen saiatzean?
- Zerk kezkatzen zaitu gehiago, tailer batzuen emaitzak edo tailerrek egiteko prozesuak?
- Zenbat denboran hitz egiten duzu taldeekin jarduerak egiten dituzunean? Tailerrak eta jarduerak osorik zuzentzen dituzu edo uzten duzu tarterik iradokizunetarako?
- Zenbat denboran hitz egiten dute taldekideek?
- Zenbat denbora hitz egiten dute mutilek? Eta neskek?
- Zer motatako galderak egiten dizkiezu neskei edo mutilei?
- Badago alderik neskei eta mutilei exijitzeko orduan? Baldin badago, zer jarduera-motatan? Zure ustez, zergatik gertatzen dira desberdintasun horiek?
- Zer irudi-mota proiektatzen duzu? Jarrera desberdina izaten duzu neskekin eta mutilekin?
- Elkarrizketa eta parte hartzea sortzen dituzu?
- Taldearen egoera kontuan hartu gabe egiten dituzu programatutako jarduerak?
- Zer ondorio ditu neska-mutilen sozializazioan kolektibo gisa beti maskulinoan hitz egiteak?
- Uste duzu taldearen aurrean duzun jarrera egokia dela aukera-berdintasuna lortzeko?
- Zure programazioetan, planteatzen duzu helburu gisa astialdiko estereotipo sexistak eraldatzea, eta positiboki baloratzen duzu beste sexuari dagokion guztia?



### Ariketa praktikoa

Bizi dugun errealitatetik abiatuta, hezkidetzaren garrantziaz sentsibilizatzeko ariketa praktikoa proposatzen dizugu. Pertsona guztiei aukera berdinak eskaintzea izanen da gakoa.

- ✓ Egin zerrenda bat tailer, jarduera, kirol eta abarretan sexismoa transmititzen ahal duten elementuekin (lan-tresnak, materialak, joko-proposamenak, hizkuntza, balioak, arauak, irudia eta abar).

## HEZKIDETZA-PROPOSAMENA

Aisialdiko eta astialdiko gure programetan pertsona guztiak hartu behar ditugu kontuan, eta ikasteko aukera berdinak eskaini behar ditugu.

Horretarako, **hizkuntza** eta halako beste zenbait alderdi hartuko ditugu kontuan, eta inklusioa eta ez-sexista izan dadin saiatuko gara. Irudiak erabiltzean, orobat, rola eta estereotipoak ez erreproduzitzen saiatuko gara, eta bestelako forma eta jarrerak erakutsiko ditugu.

Gure lantokietako espazioak kudeatzea da kontuan izan beharreko beste puntu bat. Bi sexuei espazio berdinak eskainiko dizkiegu, bai hedaduraz, bai kalitatez.

Berebat, zaindu egingen ditugu sexu bakoitzari eskaintzen dizkiogun **denborak**. Hori erreferentzia izanen da gure hezkidetzaren balioetsi ahal izateko.

Era berean, baloratu egingen ditugu **aukeraturiko jarduerak** (bi sexuentzat erakargarriak izan daitezten) eta **erabiltzen ditugun materialak** (liburuak, ipuinak, abestiak...), dibertsitatea zaindu dadin neskek eta mutilak ikusarazteko moduan.

Gainera, **parte hartzeko metodologiak** txertatzen badiugu, taldeei neurria hartuko diegu, eta errazago egokitzen ahalko gara haietara, interes eta motibazio partikularrak batuko baititugu.

## PARTAIETZAN OINARRITURIKO METODOLOGIA IREKIA

Hezkidetzaren garatzeko, beharrezkoa da taldeko pertsona guztiek ekitea, parte hartzea, behatzea eta ikeritza bultzatuko duen metodologia bat aplikatzea. Hala, jardueretan parte hartzen duten pertsona guztiek hausnarketarako, kritikarako, plangintzarako, behaketarako eta ikerketarako gaitasunak garatzea lortuko da, eta beren identitatea sortzeko tresnak emanen zaizkie, zer diren eta zer pentsatzen duten kontuan hartuta.

Eginez ikastea da kontua. Hala, pertsona bakoitza gai izanen da aurrera jarraitzeko, bere esperientziatik abiatuta eta sortzen zaizkion mugak eta eragozpenak gaindituta.

Astaldiko monitoreen zereginak bizitza-errealitatea izan behar du ardatz, bai taldearena, bai gizartearena. Talde-lana sustatuko du, eta errespetuz eta tolerantziarekin bultzatuko ditu elkarrizketa eta lankidetzaren gainerako pertsonengandik ikasteko.

Komunikazioak bizia eta egokia izan behar du. Entzutea, enpatia eta asertibitatea izanen dira esku hartzeko gure tresna nagusiak. Garrantzitsua da gatazka ikasteko aukera gisa bizitzea, besteak hobeki ezagutzeko, malguak izateko eta inor ez diskriminatzeko, adostasuna edo desadostasuna adierazteko eta abarretarako.

Haurren eta gazteen motibazioa da abiapuntua taldearekin lanean hastean, eta beharrezkoa da hura lantzea, orain arte esan dugun guztia kontuan hartuta. Ikaskuntza banakako eta taldeko beharretara egokituko da, eta monitoreen zein taldearen bilakaera-prozesuei jarraituko die. Hala, pertsonak gizartearen hobeki inplikaturik eta konpromiso handiagoarekin egotea lortuko da.

## METODOLOGIA AKTIBOAK

Pertsona guztiek ekitea, parte hartzea eta behatzea eskatzen dutenak.



## MONITOREARENTZAKO

### Iradokizunak

- ✓ Aldez aurretik sentsibilizatu, hezkidetza-konzeptua gure lanera egokitzeko.
- ✓ Niaz jabetu, eta, hortik abiatuta, gure garapen pertsonala eraiki.
- ✓ Aniztasunarekiko jarrera positiboak sustatu, eta, horretarako, pertsona bakoitzaren nortasuna errespetatzea eta berdintasuna bultzatu.
- ✓ Ingurunea astialdiko jardueretan egiten dugun lanaren bidez aztertu, eta egiaztatu ea estereotipoek eta aurreiritziek markatutako gizarte bat erakusten duten —hau da, bi taldetan banatua, maskulinoa eta femeninoa—.
- ✓ Pertsonak norberaren gaitasun indibidualen arabera definitzen garela ulertu, ezarritako sexu estereotipoak alde batera utzita.
- ✓ Hezkidetzaren alde egiten duen astialdiko monitore orok helburu hauek hartu behar ditu bere hezkuntza-lanaren abiapuntu gisa:
  - Sexismoaren zergatiei buruz hausnartzea, hezkuntza-proposamen berriak egiteko.
  - Identitate indibiduala errespetatzea, eta, bide horretan, pertsonen arteko harremana erraztea eta banako guztiei aukera berberak eskaintzea.
  - Bazterketa horren zergatietan edo sorreran sakontzea, hala lan-ildoak eta jarduteko proposamenak zehazteko.
  - Hezkidetza proiektu bat formulatu behar denean nahiz curriculum ezkutuari heltzerakoan irizpideak eta jarduteko jarraibideak azaltzea.
  - Astialdian hezkidetza lantzeko baliabideak bilatzea.
  - Partaidetzan oinarrituriko lan-metodologia irekia eskaintzea, eta lehendabiziko tokian jartzea esperimendazioa, bizipenak eta ikas-kuntza-prozesua.

## Hezkidetza-lana sustatzen duten alderdiak

Bestalde, kontuan hartu behar ditugu hezkidetza-lana errazten duten beste alderdi batzuk ere —ongi zehaztu beharrekoak, gizarte berdinzaleago bat lortzeko—, hala nola errespetua, elkar ezagutzea, aniztasunarekiko arreta, hezkuntza integrala, dinamika moldagarriak eskaintzen dituzten programazio malguak eta baterako ebaluazioa.

### Errespetua

Errespetua norberarekin hasten da. Hori da besteekin harreman osasungarriak eta errespetuzkoak ezartzeko abiapuntua.

**Norberaren ahalduntzea.** Nork bere buruarekiko errespetua lantzeko ahaldundu egiten gaitu gure bizitzaren jabe izateko eta gure ongizatearen kontrola hartzeko. Erronkei eta ezbeharrei konfiantzaz eta iraunkortasunez aurre egiteko aukera ematen digu.

### Errespetua

Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruan, gero eta beharrezkoagoa da hausnarketa-esparruak aurkitzea elkarrekin bizi diren pertsonen arteko desberdintasunei, haien artean ezartzen diren harremanei eta harreman horietako batzuen ondorioei buruz.

Bizikidetza ona izateko jarrerak eta gaitasunak garatuko dira, lehenik eta behin norbere burua, eta, ondotik, gainerakoak errespetatuz.

## Pertsonen elkar ezagutzea

Pertsonen arteko harremanak aberasteko, garrantzitsua da nork bere burua ez ezik gainerakoak ere ezagutzea, baita haien ezaugarriak, potentzialak, desberdintasunak eta abar ere. Horrek jasota gelditu behar du ekintzak, jarduerak, espazioak eta denborak garatzean, eta pertsona bakoitzaren prozesuak errespetatuko dira.

### Elkar ezagutzea

Gurekin harremanak dituzten pertsonen nortasuna benetan ezagutzea tresna egokia izaten ahal da aurreiritziak eta aurrez pentsatutako ideiak doitzeko. Horri esker, gizabanako- eta kolektiboredu berri baterantz egiten dugu, eta pertsonen arteko harremanak aberastu ditzake.

Astaldiko monitoreak jarrera irekia eta kontzientea izan behar du, horrek ekarriko baitu besteak ezagutu ahal izatea. Sentsibilitatea, jarrera eta interesa izan behar ditu portaera desberdinak eta pentsatzeko eta sentitzeko bestelako moduak behatzeko eta ulertzen saiatzeko. Haurren nortasunei aurreiritzirik eta usterik gabe erreparatu behar die.

Orobat, beste identitate batzuk ezagutzeko jarrera positibo eta ireki hori helarazi beharko dio taldeari, eta kide guztiak gonbidatuko ditu harreman pertsonalen proiektio sozial, moral eta sentimentala egitera.

## Aniztasunarekiko arreta

Hezkidetzak aberastasun gisa hartzen ditu sexu, kultura, arraza, sinesmen, ideologia eta abarren arteko desberdintasunak, eta ez mehatxu gisa. Hala, modu espezifikoan artatzen dira horiek guztiak.

### Aniztasunari erantzutea

Hezkidetzak banakoen eta taldeen aniztasunari erantzuten dio, eta horietako bakoitzarentzat zehaztutako erantzun-gaitasunarekin jarduten du, edozein eratakoak direla ere desberdintasun horiek (sexua, kultura, arraza, sinesmenak, ideologiak eta abar). Hala, aberastasun-faktoretzat hartzen ditu desberdintasunak, ez ezabatu beharreko mehatxutzat.

## Hezkuntza integrala

### Hezkuntza integrala

Haurrentzako garapen integrala ekarriko duten ezagutzak eta baliabideak prestatzea eta eskaintzea. Hartara, beren nortasuna sortzeko tresnak ematen zaizkie, beren dimentsio pertsonala, pribatua eta familiarra garatu ahal izan ditzaten. Era berean, gizarteratzeko tresnak jartzen zaizkie eskura, erabakiak hartzeko parte-hartze parekidearen bidez, herritartasun demokratikoa gauzatzen baitute.

## Jarduerak programatzea

Astaldiko monitoreak antolaketa bizia sortzen saiatu behar du, hausnarketa autokritiko partekatuaren eta talde-lanaren bidez ikasteko gai dena. Programazio dinamikoak garatuko ditu, egokitze modukoak egoera, behar eta talde bakoitzera. Eskura dauden baliabideak aniztasunera zabalduko ditu, eta kontuan hartuko du baliabide horiek tradizionalki ikuspegi eta nagusitasun maskulinoan oinarriturik antolatu izan direla.

Monitoreek helburu batzuk markatu beharko dituzte, eta horien artean egonen da sexismoaren aurkako borroka, helburua ez baita hezte bakarrik, baizik eta hezkidetzaz lortzea. Horretarako, aukera-berdintasunak esplizituki agertu beharko du helburu orokor gisa, eta neska-mutilen arteko parte-hartze orekatu eta ekitati-boaren alde egin beharko da hezkuntza-proiektuaren jarduera guztietan.

Transmititu nahi diren edukiak aztertuko dira. Ahaleginak egiten dira jarduerak ez diezaieten eman lehentasuna maskulinitasunarekin lotutako alderdiei (indarra, potentzia, abiadura, erresistentzia...), eta, aldiz, bereziki jorra ditzaten erritimoarekin, adierazpenarekin, koordinazioarekin edo lankidetzarekin lotutako alderdiak. Arreta berezia eskainiko zaio jolasen aniztasunari, eta rola estereotipatuta ez egoten saiatuko da.

### Egitaraua

Inguruabar, premia eta talde desberdinetara egokitzen ahal diren dinamikak, gizartearen egungo eskaerekin bat datozenak.

Adibide gisa, jarduera fisikoa gorputz-osasunaren eta bizi-kalitatearen kontzeptuarekin lotzen ahal da. Hala, neska-mutilei beren gorputza den bezala onartzen laguntzen ahal diegu, ez daitezen epaitu edertasun-este-reotipo sexistei jarraikiz.

Hori lortzeko, kirol-zereginak eta -trebetasunak proposatzen ahal ditugu pixkanaka, globaletatik espezifikoetara, esate baterako, oinarrizko trebetasunak lantzen dituzten jolasekin hasi eta kirol jakinetara igarotzea, guztia ere bi sexuen partaidetza ahalbidetuz eta lankidetzat sustatuz.

Konparazioak saihesten ahaleginduko gara: neskak indartuko ditugu edo generoak txandakatuko ditugu lider-posizioan, antolaketan edo materialak kontrolatzerakoan, bai eta garbiketa-lanetan ere, banaketa ekitatiboa izan dadin.

Esate baterako, txango batean mendira joanez gero, ibilbidearen erritmoa jarduera osoaren helburuak kontuan harturik ezarriko dugu —landaredia, ingurunea, herriak eta beste zenbait elementu ezagutzea—. Orientazio- eta ezagutza-jolasak egiten ditugu parte-hartzailekin.

Jarduerak programatzeko orduan, jakin beharko dugu zer baliabide ditugun eta zer metodologia probestuko dugun, eta zehaztu egin beharko ditugu, orobat, teknikak, materialak, ordutegiak, espazioak, hizkuntzaren erabilera eta aplikatu beharreko ebaluazio-sistema.



### GOGOAN IZAN

Jarduera berriak deskubritu behar dira, pertsona guztiak identifikatuta eta motibatuta senti daitezen.

## Ebaluazioa - baterako ebaluazioa

Ebaluazio-irizpideak eta -tresnak definitu ondotik, genero-ikuspegiari buruzko hausnarketa sakona egiten ahalko dugu. Hasiera batean finkatutako helburuek zehaztuko dute prozesu hori. Helburuek ongi definituta eta hezkidetzaren printzipioetara egokituta egon beharko dute.

Ebaluazioaren bidez lortuko dira pertsona bakoitzaren potentziala garatzeko diagnostikoa eta autoezagutza. Komunitateko sektore guztientzat onartzen ditu baterako ebaluazioa eta hobetzeko aukera, hau da, naturalizat jotzen da inor ez egotea autoebaluaziotik salbuetsita.

Jarraipen egokia egiteko eta hobetzeko proposamen posibleak planteatzeko, gure adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak definitu beharko ditugu, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Hala, errespetuarekin, parte-hartzearekin, lankidetzarekin, portaerarekin eta abarrekin lotutako galderak sartu beharko dira taldeari zuzendutako ebaluazioetan.

Monitore-taldea berrikusteko eta autoebaluatzeko garaian, lana errazten ahal dugu; horretarako, hezkidetzat aplikatzeko erabili behar dugun metodologiarekin lotutako zenbait galdera planteatzen ahal dira. Adibidez:

- Egiten dugu lan-saioen sarrera bat?
- Argitzen dizkiegu helburuak parte-hartzaileei?
- Lantzen ditugu funtsezko alderdiak?
- Bukatzen ditugu saioak?
- Antzematen dugu neska-mutileen interesak?
- Eusten diogu interesari?
- Bultzatzen dugu parte-hartzea?
- Hitz egiten dugu neska-mutilekin?
- Orientatzen ditugu lana eta zereginak?
- Sortzen dugu lankidetzat eta errespetu-giroa?

Astialdiko monitorearen helburua hezkidetzat-lana egitea da, berdinen arteko harremana benetakoa izan dadin eta pertsona guztiek aukera berberak izan ditzaten. Aldeztu beharrekoak izanen dira desberdintasun indibidualak, baita elkarrekintzaren bidez aberastea ere, pertsona guztiek beren nortasuna garatu eta sortu ahal izan dezaten.

## Zer irabazten dugu hezkidetzarekin?

Hezkidetzeta funtsezkoa da **genero-indarkeria prebenitzeko**. Gainera, hezkidetzeta-proiektuen bitartez:

- Indartu egingen dugu autoestimua, baita norberarekiko, besteekiko eta ingurunearekiko errespetua ere.
- Gainerako pertsonen ikuspuntua ezagutzea eta pertsona horiek pentsatzeko eta sentitzeko modu-gatik bereiztea gizarte-ezagutza lantzeko prozesu konplexua da. Hala, gizartea tolerantziarantz irekiko da, eta hautsi egingen ditu besteak arbuatzea sustatzen duten aurreiritziak eta arketipoak.
- Pertsonen nortasuna egiaz ezagutzeak gizakien arteko ulermena ahalbidetuko du, hobeak, askeagoak
- eta zoriontsuagoak izan gaitzen. Hori lortzeko, harreman afektiboak ezarri eta indartuko ditugu errespetuan eta onarpenean oinarrituta, indarkeria eta diskriminazioa alde batera utzita.
- desadostasunak baretzen eta tentsioak murrizten dira, eta gatazkak konpontzeko baliabideak eskuratzen ditugu. Pertsonen arteko komunikazioa bizia eta egokia izanen da pertsonen arteko harreman afektiboak indartzeko.
- Gure bizitzaren protagonista izanen gara, eta modu arduratsu, kritiko eta koherentean planifikatu, programatu eta parte hartuko dugu gizartean. Horrek areagotu egingen ditu konpromiso soziala eta herri-tarren parte-hartzea.



### GOGOAN IZAN

Berdintasunerako heztea, desberdintasunetik abiatuta.



**HEZKIDETZA-GOMENDIOAK ASTIALDIKO MONITOREENTZAT**

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	ETA NEURE BURUARI GALTZEN DIOT...	AUKERAK
<b>Taldea</b>	Nesken eta mutilen kopurua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Saiatu talde parekideak egiten, neska- eta mutil-kopuru berekoak.</li> </ul>
<b>Parte hartzea</b>	Berdin parte hartzen dute neskek eta mutilek?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Partaidetzara zabaldu. Parte-hartzaileek egiten dituzten proposamenek aukera berdinak eskaini neskei eta mutilei.</li> </ul>
<b>Jarrera</b>	Erreparatzen diet sexuaren arabera bereizitako portaerei?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proposamen askotarikoak eta inklusiboak, pertsona guztiak barnean hartzen ahal dituztenak.</li> <li>Ez lotu jokabideak neska edo mutila izateari, eta ez justifikatu neska edota mutila izateagatik.</li> </ul>
<b>Naturaguneak</b>	Nola erabiltzen dituzte espazioak neskek eta mutilek?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Begiratu nork okupatzen dituen erdiko eremuak eta muturrak. Ez dadila izan desberdintasunik sexuaren arabera.</li> </ul>
<b>Denbora</b>	Nire jardueretan, zenbat denbora eskaintzen diet neskei eta mutilei?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sexu bakoitzak denborak modu desberdinean okupa ditzan saihestu.</li> </ul>
<b>Harreman afektiboak</b>	Sustatzen ditut taldearen kohesioa eta haien arteko harremanak? Erakusten dut maitasunik?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Giro afektiboa sortzeko denbora eskaintzeak lana eta ekintza erraztuko ditu.</li> </ul>
<b>Emozioak</b>	Erakusten ditut nire emozioak eredu eta erreferentzia gisa, eta ematen dizkiet beren sentimenduak eta emozioak adierazteko erraztasunak neskei eta mutilei?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Askotariko adimenen garapenetik abiatu, jarduerak proposatu.</li> <li>Material askotarikoak eta estereotipatu gabeak erabili.</li> </ul>
<b>Jarduerak eta materialak</b>	Inklusiboak eta askotarikoak dira nire proposamenak?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Askotariko adimenen garapenetik abiatu, jarduerak proposatu.</li> <li>Material askotarikoak eta estereotipatu gabeak erabili.</li> </ul>
<b>Pertsonen adibideak edo erreferentziak jardueretan</b>	Zer motatako adibideak jartzen ditut pertsonen buruz hitz egiten dudanean?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Rolak eta estereotipoak saihestu adibide eta erreferentzietan.</li> </ul>
<b>Jakinarazpena</b>	Nola komunikatzen naiz hurrekin edo gazteekin?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa.</li> </ul>
<b>Hizkuntza</b>	Erabiltzen dut hizkera inklusiboa?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gomendagarria da hartzaileari egokitutako hizkuntza erabiltzea.</li> <li>Bilatu hobeki komunikatzen lagunduko dizun gida bat. Hauxe proposatzen dizut: Guía sobre estrategias de comunicación incluyente. El Género como prioridad. Nafarroako Gobernuak argitaratua.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Taldeen beharretara egokitutako metodoak erabiltzen ditut?	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ideiak proposatzeak –eta ez edukiak transmititze hutsak– lagundu egiten du espiritu kritikoa garatzen. Balioak eta edukiak bereganatzeko jarrera egokia motibatuko eta sustatuko du.</li> <li>Funtsezkoa da errotazioa eta rol aldaketa antolatzea zeregin eta jardueretan.</li> <li>Partaidetzan oinarrituriko metodologia aktiboak, errealitatetik abiatuta.</li> <li>Taldea kontuan izatea erabakiak hartzean.</li> </ul>

## 2.8

### Banakako eta taldeko aldaketen aurrean baloratzeko eta jarduteko prozedurak

Jarraian, aurretik jorratutako edukiez arituko gara, baina kasu bakoitzera egokitzen ahal diren alderdi orokorrak aipatuko ditugu.

#### 1. Hasierako ebaluazioa eta diagnostikoa

- Banakako zein taldeko behar espezifikoak identifikatzeko ebaluazio sakona egitea. Hor barnean sartzen da trebetasunak, baliabideak, oztopoak eta tesuinguruak ebaluatzea.
- Tresna estandarizatuak eta pertsonalizatuak erabiltzea, pertsona interesdunen, haien familien eta inplikaturako profesionalen zuzeneko informazioa biltzeko, elkarriketen edo galdetegien bidez.
- Ingurune naturaletan zuzeneko behaketa egitea, interakzioak eta portaerak hobeki ulertzeko.

#### 2. Esku-hartze plan pertsonalizatuak garatzea

- Pertsona edo talde bakoitzarentzako estrategia espezifikoak diseinatzea, haien ezaugarri eta behar bakarrak kontuan hartuta.
- Helburu argiak, neurgarriak eta lorgarriak ezartzea, bai epe laburrera, bai luzera.
- Baliabideak ematea eta inguruan beharrezko egoitzapenak egitea, inklusioa eta parte-hartze aktiboa errazteko.

#### 3. Hezkuntza- eta babes-estrategiak ezartzea

- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodoak egokitzea askotariko beharrei aurre egiteko, eta, horretarako, ikuspegi bat baino gehiago erabiltzea, hala nola ikaskuntza kooperatiboa, esperientzian oinarrituriko ikaskuntza eta laguntza-teknologiak erabiltzea.
- Laguntza emozionala eta psikosoziala ematea, departamentuaren, laguntza-taldeen eta mentoretza-programen bidez.

- Kultura-aniztasuna errespetatzen eta txalotzen duten edukiak eta praktikak txertatzea, genero-berdintasuna sustatzen dutenak.
- Monitorizatzea eta etengabeko ebaluazioa egitea.
- Gizabanakoek eta taldeek beren helburuetarantz egiten duten aurrerapena aldi-aldi ebaluatzea, eta esku-hartzeak premietara egokitzea.
- Parte hartu duten pertsonen eta beste pertsona garrantzitsu batzuen etengabeko atzeraelikadura sustatzea, praktikak hobetzeko.

#### 4. Diziplina anitzeko lankidetzak

- Diziplina askotako profesionalak inplikatzeko (hezitzaileak, psikologoak, gizarte langileak...), beharrei ikuspegi batetik baino gehiagotatik heltzeko.
- Familiak eta komunitatea inplikatzeko prozesuan, eta, hala, ikuspegi holistikoa eta kolaboratiboa sustatzea.

#### 5. Sentsibilizazioa eta prestakuntza

- Monitoreei eta beste profesional batzuei etengabeko prestakuntza eta garapen profesionala eskaintzea, gaitasun hobekia izan ditzaten inklusio- eta aniztasun-kontuetan.
- Hezkuntza-programak ezartzea aniztasunari buruzko kontzientzia areagotzeko eta errespetuaren eta inklusioaren kultura sustatzeko.

#### 6. Politikak eta araudia

- Politika instituzionalek inklusioa eta diskriminaziorik eza maila guztietan babesten dituztela ziurtatzea.
- Urritasunak, jatorri kultural desberdinak, zailtasun ekonomikoak eta/edo beste egoera zaurgarri batzuk bizi dituzten pertsonen eskubideak babesteko legeak eta araudiak —bertakoak zein nazioartekoak— betetzen direla bermatzea.

## 2.9

### Banakako eta gizarteko arazoak lantzen dituzten oinarrizko zerbitzu espezializatuak: gizarte zerbitzuen oinarrizko sareak


Espainiako gizarte-zerbitzuen sistema publikoa bi jardue-ra-mailatan egituratzen da: Lehen mailako edo komunitateko arreta (oinarrizko gizarte zerbitzuak) eta gizarte-zerbitzu espezializatuak. Hurrengo taulan, haietako bakoitza definitzen duten alderdiak identifikatzen ahalko dituzu.

#### ○ Oinarrizko gizarte-zerbitzuak

Zerbitzu horiek gizarte-zerbitzuen sistema publikora sartzeko atea dira, eta Foru Komunitate osoan banatu-ta daude, herritarren irisgarritasuna eta hurbiltasuna bermatzeko. Bakoitzak gizarte-zerbitzuen oinarrizko eskualde bat artatzen du, lurraldearen arabera mugatua, hurbileko arreta eraginkorra errazteko.

#### ○ Gizarte-zerbitzu espezializatuak

Zerbitzu horiek arreta espezifikoa ematen diete premia konplexuagoei, eta lurraldeko sare moduan antolatzen dira, deszentralizazio-printzipioari eta biztanleguneen ezaugarriei erreparatuta. Eskuarki, dagokion oinarrizko gizarte zerbitzutik bideratzen dira haietara, erregelamenduz ezarritako kasuetan izan ezik.




### Oinarrizko gizarte-zerbitzuen bilatzailea

Udalerrri jakin bateko oinarrizko gizarte zerbitzua aurkitzeko, Nafarroako Gobernuak onlineko bilatzaile bat eskaintzen du, esleitutako zerbitzua udalerrriaren arabera identifikatzeko.



<https://bit.ly/3RT7qWg>



KATEGORIA	LEHEN MAILAKO GIZARTE-ZERBITZUAK	GIZARTE-ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK
Definizioa	Oinarrizko eta orotariko arreta, herritar guztientzat eskuragarri.	Premia konplexu eta espezializatuagoetarako arreta espezifikoa.
Helburua	Prebentzioa, sustapena eta gizarte-laguntza komunitatean.	Esku-hartze espezializatu arazo jakinetan.
Jarduketa-esparrua	Tokian tokikoa, udalerrikoa.	Eskualdekoa edo udalaz gaindikoa.
Erabiltzaileak	Herritar guztiak, batez ere kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak.	Behar espezifikoak dituzten pertsonak (degaitasuna, genero-indarkeria, droga-mendekotasunak...).
Zerbitzu nagusiak	Informazioa, orientazioa, etxeko laguntza, telelaguntza, dinamizazio komunitarioa.	Adingabeak hartzea eta babestea, degaitasuna duten pertsonentzako arreta, indarkeriaren biktimentzako arreta, osasun mentala.
Profesionalak	Gizarte-langileak, gizarte-hezitzaileak, komunitate-animatzaileak.	Psikologoak, terapeutak, familia-interbentzioko espezialistak, legelariak.
Sarbidea	Gizarte-zerbitzuetara sartzeko atea, normalean udaleko gizarte-zerbitzuetako zentrozen bidez.	Lehen mailako zerbitzuetatik bideratzen da, edo, kasu espezifikoetan, zuzeneko sarbidea du.

# 03

## Talde-teknikak haur eta gazteentzako astialdiko jarduerak garatzeko

### 3.1

#### Sarrera

Astialdiko hezkuntzan aplikatzen ahal diren talde-teknikak funtsezkoak dira pertsonen arteko parte-hartze aktiboa, lankidetzeta eta ikaskuntza sustatzeko. Haien bidez, bermatzen da jarduerak entretenigarriak direla, eta, horretaz gainera, trebatu eta jantzi egiten dutela.

Kapitulu honetan, taldearen definizioa eta garrantzia landuko ditugu abiapuntu gisa, baita astialdiko monitoreaak une bakoitzean eta taldearen prozesuen arabera erabiltzen ahal dituen teknikak ere.

#### TALDEA

Elkarrekin interakzioan jarduten duten, helburu komun batzuk lortzeko motibatuta dauden eta arauak, rolak eta nolabaiteko egitura partekatzen dituzten gizabanakoen multzoa

### 3.2

#### Taldeak balioesteko eta kudeatzeko metodologia: tipologia, elementuak, rolak, faseak eta talde-dinamikak

##### ○ Definición de grupo

Taldeari buruzko definizio asko daude. Oro har, elkarrekin interakzioan jarduten duten eta kide izatearen sentimendua partekatzen dituzten pertsonen multzoa da. Taldeko zein elementu diren funtsezkoak zehazterakoan agertzen dira alde nagusiak egileen artean.

Mariano Yela psikologo espainiarrak honela definitzen du taldea: "Elkarrekin interakzioan jarduten duten, helburu komun batzuk lortzeko motibatuta dauden eta arauak, rolak eta nolabaiteko egitura partekatzen dituzten gizabanakoen multzoa". Definizio horrek arreta berezia jartzen du interakzioan, helburu partekatuetan eta taldearen barne-egituran. Yelaren ustez, taldeak ez dira osatzen banakoen agregazio hutsaz, baizik eta haien artean sortzen diren harremanen kalitatearen eta tasunaren poderioz.

Hala, errealitate berri eta desberdin gisa agertzen da taldea, eta askoz haratago doa gizabanako bakoitzaren batuketatik. Taldea energia-iturri bat da taldekide isolatuentzat, banako gisa ezagutzen ez duten gaitasun bat.

Pertsonei taldeetako sozializazio-prozesuetan lagundu ahal izateko, talde-teknika egokituak aplikatuko ditugu. Teknika horiekin, bi helburu lortzen ahalko ditugu: produktibitatea hobetzea eta taldekide izatearen gogobetetasuna lortzea.

Bitarteko eta prozedura horiek taldearen ekintza errazten eta suspertzen lagunduko digute, eta, hala, eraginkortasunez lortzen ahalko ditugu proposatutako helburuak.

Aplikatu beharreko teknika aukeratzeko orduan, zenbait alderdi hartu beharko ditugu kontuan:

- ✓ Heldutasuna eta esperientzia.
- ✓ Taldearen tamaina.
- ✓ Ingurune fisikoa.
- ✓ Kanpo-ingurunearen ezaugarriak.
- ✓ Taldekideen ezaugarriak.
- ✓ Taldeko animatzailearen gaitasuna.

## ○ Talde-garapena. Nola lortu taldea eraginkorra izatea?

Talde-dinamiek taldea osatzen duten pertsonek portaera aztertzen dute. Laguntza proposatzen dute eraginkortasuna hobetzeko. Horretarako, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Lidergo-estiloak eta eragin-patroiak.
- Taldearen erabakiak hartzeko prozesuak.
- Arauak: jokabide egokiak eta prozedura zuzenak zehaztea.
- Talde-kohesioa errazten duten faktoreak.
- Nola identifikatu taldea eraginkorra den?
- Taldekideek elkar ulertzen eta elkar onartzen dute.
- Taldekideen arteko komunikazioa irekia da.
- Taldekideak beren ikaskuntzaren eta jokabidearen erantzule sentitzen dira.
- Taldekideek lankidetzan jarduten dute elkarrekin.
- Badira aurrez zehaztutako prozesuak erabakiak hartzeko.
- Kideek beren arazoei aurre egiten diete eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzen dituzte.

## TALDE-GARAPENAREN FASEAK ETA ETAPAK

Talde batek zer fase igarotzen dituen ulertzea funtsezkoa da eraginkortasunez kudeatzeko eta proposatutako helburuak lortzeko. Bereziki haur eta gazteen astialdiko hezkuntza-jardueren inguruabarretan.

Talde-garapenaren faseak ezagutzeari esker, monitorea prestakuntza- eta sendotze-etapan bidez gidatzen ahal dute taldea, eta, hala, ingurune positiboa eta produktiboa ziurtatzen da. Hauek dira etapak.

### 1. ETAPA

#### Orientazioa

Hasierako fasean, taldearen funtzionamendu-oinarriak ezartzen dira. Puntu horretan, funtsezkoa da argi eta garbi jakinaraztea zer helburu izanen dituen eta zer metodo baliatuko diren egiten dugun jardueran, programan, udalekuan edo tailerlean.

Programa aurkeztuko dugu, jardueren egituraren xehetasunak emanen ditugu, eta egutegi edo kronograma bat gaineratuko dugu, egoki iritziz gero. Informazio horrek jardueren sekuentzia eta edukia ulertzen lagunduko die parte-hartzaileei.

Ziurtatuko dugu taldekideek ulertzen eta partekatzen ditzutela helburu horiek. Hala, lerrokatu egiten dira igurikimenak eta helburu partekatua izatearen sentimendua sustatuko du.

Fase horretan, oso garrantzitsua da parte-hartzaileek beren burua aurkezteko eta ezagutzeko moduko giroa ahalbidetzea. Hori lortzeko, komunikazioa eta elkar ulertzea sustatzen duten talde-dinamiketara, aurkezpen-jokoetara edo integrazio-jardueretara joko dugu.

### 2. ETAPA

#### Arauak ezartzea

Bigarren etapa horretan, taldea zuzenduko duten arauak eta itxaropenak ezartzen dira. Astialdiko monitorea arreta jarri beharko du arau horiek ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen.

Taldea arduratuko da ongi funtzionatzeaz, eta hartu beharreko erantzukizunak hartuko dira.

Taldekilde bakoitzak jakinen du zer ekarpen egiten dion taldeko jarduerari, eta jakinen du, orobat, gainerakoek zer gaineratzen duten ere.

Taldekildeek erantzukizunak beren gain hartu ahala, lidergoa taldekideen artean banatuko da. Fase horretan, oso garrantzitsuak dira komunikazioa eta entzutea, eta, horretarako, elkarrizketarako espazioak eta denborak proposatuko ditugu, parte-hartzaileak askatasunez mintzatu ahal izateko.

Lankidetzaren ere oso garrantzitsua da etapa horretan; hala, jabetuko gara gainerako pertsonen taldeari egingadako ekarpenak lagungarriak direla proposatutako helburuak lortzeko. Erabakiak elkarrekin hartzeko espazioak eta denborak bilatuko ditugu, pertsona guztiek edo gehienek egin ditzaten ekarpenak.

### 3. ETAPA

#### Gatazkak konpontzea

Taldearen garapenak erritmoa hartzen duenean eta kide bakoitzak bere zeregina eta rola badakizkienean, pertsonen arteko gatazkak agertzen hasten dira. Etapa horretan, monitoreak sentimenduak, jarrerak, posizionamenduak eta abar ulertzen lagundu eta ulertzerantz bultzatu beharko du.

Horretarako, gatazkak konpontzeko metodo eta teknika erakitzzaileak planteatuko ditu, betiere ulerturik aukera eskaintzen dutela pertsonalki eta taldean hazteko.

### 4. ETAPA

#### Efizientzia

Fase horretan, talde-nortasunaren sentimendu sendo eta sakon bat sortzen da. Taldeak sormena eta eraginkortasuna garatzen ditu, bai proiektuak egitean, bai kideen behar afektiboak asetzeari. Kohesio-maila handitu egiten da, eta nortasun kolektibo indartua sentitzen da.

### 5. ETAPA

#### Bukaera

Taldeak desagertu egin ohi dira lehenago edo geroago. Astialdiko hezkuntzaren arloan, mota askotako kasuak aurkitzen ahal ditugu. Taldea kohesionatuta aritu ez bada, talde baten bizitzaren bukaera lasaigarria izaten ahal da; beste kasu batzuetan, guztiz kontrakoa gertatuko da, sentimendu eta zailtasun emozionalak

agertuko dira, zeinak mezu positiboekin kudeatu beharko baitira, esperientzia berriei horizonteak irekiz.

Astialdiko monitoreen lanak taldeen garapen-etapara egokitu behar du, taldearen bilakaeran parte-hartzaileak eraginkortasunez gidatu eta laguntzeko. Etapa bakoitzera egokitzeak giro segurua eta erakargarria sustatzeko aukera emanen dio, eta ziurtatuko da taldea modu osasungarri eta eraginkorrean garatzen dela. Hartara, astialdi-esperientzia aberasgarria eta trebatzailea eskainiko da guztiontzat.



### 3.3

## Astaldiko taldeen ezaugarri bereizgarriak balioestea



Astaldiko taldeen ezaugarri bereizgarriak balioesteko, pertsona bakoitza eta talde-dinamika definitzen dituzten berezitasunak ezagutu eta balioetsi behar dira.

Hezkuntza-jardunbide egokia gauzatu ahal izateko, zenbait alderdi hartu beharko dira kontuan, hala nola kultura- eta gizarte-aniztasuna.

Astaldiko taldeak jarduera edo interes espezifikoaren inguruan antolatzen dira (kirola, artea, ingurumena...), baina kideen banakako lehentasunak ere islatzen dituzte. Kultura, maila sozioekonomiko edo familia-tesuinguru desberdineko kidez osaturik egoten dira: horrek aberastu egiten ditu elkarrekintzak eta erraztu egiten du kulturen arteko ikaskuntza.

Taldearen barruan, aldatzen ahal dira adiskidetasun-, lidergo- eta lankidetzadynamikak, eta ingurune ezin hobea sortzen da trebetasun sozial eta emozionalak garatzeko.

Astaldiko hezkuntzaren esparruan, malgutasun estrukturalak taldeen beharretara eta ezaugarrietara egokitzten laguntzen du. Espazio horietan, pertsonak beren nortasun pertsonala eta kolektiboa adierazten eta aztertzen ahal dute, eta, horri esker, indartu egiten dira haien autoestimua eta kide izatearen sentimendua.

Talde bakoitzak bere erritmoa du antolatzeko, lidergoa integratzeko, rolak banatzeko, bere arauak zehazteko eta abarretarako.

Astaldiko monitoreak ezagutu egin beharko ditu ezaugarri bereizgarri horiek, aldezturik bildutako datuak behatuz edo aztertuz, eta talde edo talde-prozesu bakoitzari teknika egokiak aplikatuz.

Talde-desberdintasunak baloratuta, taldeko pertsona guztiak errespetatuak eta onartuak sentitzen diren ingurune bat sustatzen da, eta horrek mesede egiten dio gizarte-kohesioari.

## 3.4

### Talde-teknikak aztertzea eta aplikatzea

#### Animazio-teknikak, taldeen bilakaeraren arabera

Astialdiko monitoreek teknika eta estrategia espezifikoak baliatzen ahal dituzte taldeak beren garapen-faseetan barna laguntzeko eta gidatzeko. Animazio-teknikak taldeak bizi duen etapara egokitzeak parte-hartzaileentzako esperientzia positiboagoa eta aberasgarriagoa erraztuko du, eta, hala, maximizatu egingen da jardueren hezkuntza- eta prestakuntza-ahalmena.

Astialdiko monitore batek taldeen bilakaerara egokitzeko eta teknika egokiak aplikatzeko duen gaitasuna funtsezkoa da interakzioak maneiatzeko, kohesioa sustatzeko eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko.



### 3.4.1

#### Aurpezpen-teknikak

Pertsona bat talde batera iristen denean, egoera ezezagun bati egin beharko dio aurre, eta horrek urduritasuna, ziurgabetasuna, antsietatea eta abar eragiten ahal dizkio. Une horretan, zenbait galdera planteatzen dira, eta erantzuna topatu beharko die horiei.

*Zer gertatuko da hemen?*

*Zer-nolako izanen da esperientzia?*

*Zein dira besteak?*

*Nolakoak dira?*

*Zein da nire postua?*

*Nola hartuko naute?*

Galdera horiek guztiak erantzunak eskatzen dituzte taldea martxan hasten den lehen unetik.

Lehen une horiek oso garrantzitsuak dira, eta arduradunak oso adi egon behar du segurtasuna transmititzeko eta taldekide guztiei harrera ona egiteko.

#### HELBURUAK

Animazio-teknika horien helburua da pertsonen taldeen azkar samar aurkezten laguntzea, eta ahalik eta gehien gainditzea erresistentziak, beldurrak, mugak eta lotsak.

#### Astialdiko monitorearen jokabide positiboak

- Ongi hasteko, oso garrantzitsua da harrera ona egitea, giro atsegin eta inspiratzailean. Gertutasuna, segurtasuna eta lasaitasuna erakutsiz aurkeztu du bere burua.
- Aurkezpenean, aplikatu beharreko helburuak, edukiak, ordutegiak, denborak eta metodologiak azalduko ditu monitoreak. Adierazten ahal ditu, orobat, igurikimenak, jokabide-ildo orokorrak eta ebaluazio-irizpideak.
- Parte hartzaileen galderei erantzuteko tarte bat eskainiko du.
- Gomendagarria da elkar ezagutzeko denbora ematea. Monitorea ahalik eta gertuen agertuko da, eta

bere bizitza pertsonalaren, zaletasunen, ohituren eta abarren alderdiren bat aurkeztuko du, parte-hartzaileek haren alderdirik gizatiarrena ikus dezaten.

- Lehenbiziko une horietan sortzen dira lehen inpresioak, eta oso garrantzitsuak dira. Ez da ahaztu behar monitoreak erreferentzia bihurtzen direla parte-hartzaileentzat. Garrantzitsua da hezkidetzan oinarrituriko jarrera agertzea, atsegina, inklusiboa, komunikatiboa eta irisgarria, taldeari segurtasuna emateko.



### JOKOAK, JARDUERAK ETA DINAMIKAK

- Ejercicios de presentación.
- Ejercicios y juegos para conocer nombres.
- Ejercicios y dinámicas para romper el hielo.

## 3.4.2

### Ezagutza- eta konfiantza-teknikak

Aurkezpenaren ondotik, elkar ezagutzean sakonduko da. Monitoreen eta taldekideen arteko harremana sakonagoa eta gizatiaragoa izatea bilatuko da, bat-batekotasunari, irekitasunari eta halako ezaugarriari esker.

Ezagutza- eta konfiantza-teknikak lotuta daude, informazio pertsonala partekatzean areagotu egiten baita konfiantza taldekideen artean. Lagungarria izaten zaie besteengandik zer espero dezaketen jakiteko, partekatzen dituzten alderdi guztiei erreparatzen diete gus-turago sentitzen dira.

Dinamika batzuetan norberaren ezagutza bilatzen da, eta beste batzuetan, berriz, gainerakoena.

#### OBJETIVOS

- Taldekideek elkar ezagutu dezaten laguntzea.
- Autoestimua eta ezagutza pertsonala sustatzea.
- Taldean konfiantza-giroa sortzea, ongi sentitzen eta helburuak lortzen laguntzeko.

Dinamika horiek taldearen lehendabiziko bizitza-uneetan erabili ohi dira.

### Monitorearen jokabide positiboak

- Ariketa horiek autorrebelazio-maila txikienetik handienera egituratu behar dira, antsietatea murrizteko.
- Horrelako teknikak batzuetan mehatxagarriak dira pertsonentzat, lotuta baitaude balioekin, sentimenduekin, desioekin eta abarrekin. Horrek zalantzak eta ziurgabetasuna sortzen ahal ditu, gainerakoek nola hartuko ote dituzten eta taldean hobeki edo okerrago integratzea ekarriko ote dien.
- Besteak ezagutzea, gainerako pertsonen esku hartzea edo monitoreak parte hartzea lagungarriak dira antsietate-maila jaisteko.
- Ariketa horiek egiteko, nolabaiteko lasaitasuna eta konfiantza-giroa behar dira. Funtsezkoa da taldea motibatzea serio har ditzaten, eta, hala, baliagarriak izan daitezen gure helburuak lortzeko.



### JOKOAK, JARDUERAK ETA DINAMIKAK

- Norbere burua ezagutzeko jokoak.
- Garapenaren esparru guztietan elkar hobeki ezagutzeko jokoak eta dinamikak.

## 3.4.3

### Sormen-teknikak

Sormenak aurkikuntza, irudimena eta inprobisazioa eskatzen ditu, eta jarrera irekia eskatzen du berritasunak onartzeko. Baliteke trebetasun hori pertsona guztiek izatea, baina beharrezkoa da harekin konektatzea eta aldian behin trebatzea.

Sortzea gure gaitasuna probatzen duen ariketa erabilgarria eta egunerokoa da. Hezkuntzaren arloan, asko saiatzen gara lehendik dauden ideiak, teoriak eta ezagutzak ikasten, eta gutxi arduratzen gara ideia berriak pizteaz: sortu, imajinatu, asmatu, ekoitzi...

### OBJETIVOS

- Pertsonen sormena sustatzea eta garatzea, modu original, malgu eta kritikoa pentsatzeko gaitasuna indartzeko. Gaitasun hori arazoak konpontzeko, adierazteko eta modu eraginkorrean laguntzeko erabiltzea.
- Taldekideei beren ideiak adierazteko aukerak eskaintzea; zenbat eta originalagoak izan, orduan eta gogobetetasun handiagoa lortuko da.

Teknika horiek erabiltzea baliagarria da desblokeatzeko: originaltasuna sustatzen du, lagungarria da gatazkak konpontzeko eta erronkei aurre egiteko, malgutasun mentala bultzatzen du, eta aukera ederra da modu berritzaile eta benetakoan adierazteko.

### Monitorearen jokabide positiboak

- Sormena nekez agertuko da monitorearen praktikotasunera mugatzen bada, prozedura tradizionaleraino zorroztuz jarraituz eta akatsak egiteko beldurrez.
- Norbere burua motibatzea, gauza berriak saiatzeko eta aurkikuntzetatik abiatuta eraikitzeko. Bereziki, ideia txikiek proposamen berritzaileak ekartzen ahal dituzte, taldeei egokitutakoak, taldearekin konektatu eta helburuak lortu ahal izateko.
- Monitoreak sormenerako oztopoak ezabatu behar ditu, lehenik bere buruarengan eta ondoren taldean: norberarengan konfiantzarik ez izatea, aldaketarekiko erresistentzia, konformismoa, erosotasuna eta sormenari uko egitea.
- Adiskidetasun-, laguntasun- eta askatasun-giroa izatea oso garrantzitsua da esperientziak trukatu ahal izateko.
- Gaur egungo gizartean, beharrezkoak dira hutsetik dena ateratzeko, mentalki malguak izateko eta arau berriak sortzeko gai izan diren gizon-emakumeak, soluzio alternatiboak, proposamen koherenteak, inklusiboak, jasangarriak eta errespetuzkoak ematen dituztenak.



### JOKOAK, JARDUERAK ETA DINAMIKAK

- Antzerki-inprobisazioko jokoak.
- Elkarlaneko ipuinak.
- Rol-jokoak.
- Sormen artistikoko jokoak.
- Ideiak lotzeko jokoak.
- Arazoak konpontzeko jokoak.

### 3.4.4

### Balioak adierazteko teknikak

Balioetan oinarritutako hezkuntza gizadian oinarritutako hezkuntza da. Hezkuntza-eredu horretan, balioak transmititzera deituta daude pertsonak. Testuinguru horretan, monitorearen oinarritzko eta lehenetsutako zereginetako bat da autonomia eta libreaki aukeratzea ekarriko dituen nortasunaren dinamismoak bultzatzea.

Pertsona eta talde bakoitzak balio-eskala bat du, askotariko iturrietatik etortzen ahal dena: interes pertsonalak, inposatutako balio kolektiboak (esaterako, arauak, jokabide-jarraibideak, moda, prestigioa...).

Monitorearen egitekoen artean dago pertsonen beren buruarekin harremanetan jartzen laguntzea, uler dezaten zer estimatzen, aukeratzen eta nahi duten egiaz, eta zergatik eta nola egiten duten.

### HELBURUAK

- Beren esperientziaz jabeatzea, beren ideia eta sentimenduez eta beren jokabidearen irizpide eta motibazioez ohartzeko.
- Beren bizitzan egiten ari diren balioak argitzea eta balio berriak garatzea.

### Monitorearen jokabide positiboak

- Kultura baten barneko balioei buruzko prestakuntza ahalbidetzeko esperientziak eman beharko ditu, giza eskubideak integratzen dituztenak.
- Doktrinamendua saihestea.
- Norberaren ezagutza, hausnarketa eta balioen in-guruko praktika aktiboa eta kontzientea bultzatzea.
- Baliozko jokabide jakin batzuekiko jarrerak eta ohiturak piztea, erlatibismoan erori gabe.
- Prozesu horiek guztiek ekintza komunitarioa eskatzen dute. Horregatik, garrantzitsua izanen da pres-takuntzarako eredu interakzionista bat bilatzea, in-terakzioan diharduten pertsonen errealizatu gabeko aukerak ezagutu ahal izateko.



#### JOKOAK, JARDUERAK ETA DINAMIKAK

- Gau-ekitaldiak.
- Sormen-muralak.
- Norberaren ezagutza, enpatia eta emozioak lan-tzen dituzten jokoak eta dinamikak, espiritu kriti-koa garatzen dutenak.
- Zineforuma.
- Ipuinak.
- Jolas kooperatiboak.
- Balioei buruzko hausnarketa-jokoak.

### 3.4.5

#### Gaiak aztertzeo eta lantzeo teknikak

Talde baten helburu garrantzitsuenetako bat da elkarre-kin biltzea, guztien artean hitz egiteko, hausnartzeko, az-tertzeko eta interes komuneko gai bat lantzeko.

##### HELBURUAK

- Talde bateko kide guztiek lan batean aktiboki parte har dezaten bultzatzea. Pertsona bakoitzak daukan onena ematea da kontua, pasibotasuna alde batera utzita.
- Taldearen lanean eraginkorrak izatea eta antolaketa hobetzea.

### Monitorearen jokabide positiboak

- Teknika bakoitzak lortu nahi dituen helburuak eza-gutzea eta onartzea. Parte-hartze eraginkorrerako prozesua bultzatzea.
- Talde-lanean kohesioa areagotzen duen oro susta-tzea. Orientabide zehatzak ematea.
- Antzeko teknikak behin eta berriz erabiltzea, den-bora galtzea eta eraginkortasunik eza saihesteko. Dibagazio horiek frustrazio-sentimendua eragiten ahal dute, eta, ondorioz, gerta liteke talde-lanaren balioan eta taldeagan beragan fedea galtzea.



#### JOKOAK, JARDUERAK ETA DINAMIKAK

- Ideia-jasa (brainstorming).
- Kontzeptu-mapak.
- Eztabaidak.
- Kasuak aztertzea.
- Role playing-a (rol-jokoa).
- Lankidetzak proiektuak.
- Simulazioak eta estrategia-jokoak.
- Zineforuma.
- Elkarrizketak eta testigantzak.
- Taldeko hausnarketa-dinamikak.

### 3.4.6

#### Giroa sortzeko teknikak

Teknika horiek talde-tekniken eta jokoen arteko dira, oso erabilgarriak talde baten bizitzako lehen etapetan. Batez ere haurrekin eta aurrenerabeekin. Motibatzeo ere ba-lio dezakete.

##### HELBURUAK

- Besteei buruz dugun ezagutza eskasak sortzen dituen mesfidantza-hesiak hausten laguntzea.
- Alaitasun- eta irekitasun-giroa sortzea ondotik eginen den lanerako.
- Tentsioak lasaitzen laguntzea, izan taldekoak, izan taldez kanpokoak.
- Adierazpen askea sustatzea.

## Monitorearen jokabide positiboak

- Pertsonak elkar ezagutu dezaten laguntzea, eta pertsona lotsatienei edo iritsi berriei mesede egitea.
- Nahi gabe sortzen diren azpitaldeak haustea.
- Taldeari tentsioa kentzea, giro atsegina sortuz.
- Denok barruan daramagun gaitasun ludikoa garatzea. Pablo Nerudak zioen bezala: “Jolasten ez den haurra ez da haurra, baina jolasten ez den gizakiak betiko galdu zuen beragan bizi zen haurra, eta sumatuko du, sumatu, haren falta”.
- Astialdiko monitoreak izan behar du lehendabizikoa jokoaren dinamikan sartzen. Hori bai, ez da ahaztu behar batzuetan beharrezkoa izanen dela jokoaren bilbetik ateratzea, taldean gertatzen dena behatzeko; ekintza batzuen zergatia bilatu beharko du, eta ondotik taldeari jakinarazi.



### JOKOAK, JARDUERAK ETA DINAMIKAK

- Arauak eta itxaropenak ezartzeko bilerak.
- Espazio abegitsuak eta egokituak sortzea.
- Kohesioa sustatzeko talde-dinamikak.
- Errituak eta tradizioak ezartzea.
- Adierazpen pertsonaleko espazioak sortzea.
- Erlaxazio- eta mindfulness-teknikak erabiltzea.
- Feedback positiboa sustatzea.
- Jolas-jarduerak eta jarduera dibertigarriak inplementatzea.
- Jarduera inklusiboak diseinatzea.
- Autonomia eta erantzukizuna sustatzea.

## 3.4.7

### Talde osoak aktiboki esku hartzeko beste teknika batzuk

#### ○ Role playing-a

##### Kontzeptua

Bi pertsonak edo gehiagok bizitza errealeko egoera edo gertaera bat irudikatzea, kasuaren rola bere gain hartuz, taldeak hobeki ulertu eta tratatu ahal izan dezan. Antzezleak egoera ahalik eta hobekien irudikatzen saiatzen dira, eta taldeak egoera hori benetakoa balitz bezala bizi dezan saiatzen dira.

##### Helburua

Egoerarekiko interesa, objektibotasun handiagoa eta gertakariaren ulermena sustatzen ditu, baita taldea arazoan eta kritikarako eta autokritikarako gaitasunean zentratzea ere.

##### Garapena

Arazoa azaltzen da, eta zehatz-mehatz egiten da haren deskribapena. Ondotik, boluntarioei dei egiten zaie, jokoan esku hartzen duten rola antzezteko. Rola askatasunez eta bat-batean interpretatzen ahalko dituzte, errealitateari leial izanik.

Bi tarte ditu: Hasiera batean antzezpena egiten da, baina ez da eten behar, nolana ateratzen dela ere. Bigarren unean, antzezpenaren objektibotasunari eta gauzatzeari buruzko eztabaida eta iruzkinak egiten dira. Aktoreak izanen dira mintzatzeko lehenak, eta zer egiten saiatu diren azalduko dute. Ondotik, talde osoak eskatuko dizkie azalpenak antzezleei, eta garapena eztabaidatuko dute (errealitatea/irrealtasuna, xehetasun garrantzitsuak, keinuak...).

#### ○ Ideia-jasa

##### Kontzeptua

Zenbait kidek osatutako talde batek gai edo egoera bati buruzko ideia edo iradokizun berritzaileak eskaintzen ditu. Hori askatasun eta bat-batekotasun giroan gertatzen da erabat, eta, horri esker, parte-hartzaile guztiek intuizio-, berrikuntza- edo aurkikuntza-gaitasun handia lortzen dute.

##### Helburua

Adierazpen askea, irudimena, sormena eta originaltasuna bultzatzen ditu.

**Garapena**

Monitoreak zehatz-mehatz deskribatzen du gai bat. Parte-hartzaile guztiei ohartarazten die askatasunez eta modu informalean mintzatzen ahal direla, eta ez dutela eginen eztabaidarik edo etenik.

Jarraian, adierazitako ideia guztiak hartuko dira kontuan, eta kasu bakoitzean iradokitzaileenak, sortzaileenak eta egokienak azpimarratuko dira.

Gomendagarria da taldeak bilera baino lehen denbora bat izatea gaiari buruz pentsatzeko.

**○ Phillips 6.6****Kontzeptua**

Taldea sei pertsonako azpitaldetan banatuko da, eta sei minutuz gai bat eztabaidatuko dute, ondorio batera iristeko. Jarraian, azpitaldeek beren ondorioak azalduko dizkiete talde osoari, eta ondorio orokor bat aterako dute.

**Helburua**

Talde-kide guztiek aktiboki parte-hartzea eta iritziak lortzea bultzatzen du, oso epe laburrean.

**Garapena**

Lehenik, gaiaren azalpen txiki bat egiten da, eta azpitaldeak osatuko.

Jarraian, idazkari bat izendatuko da azpitalde bakoitzeko. Sei minutu igaro ondotik, azpitalde bakoitzak bere ondorioak azalduko ditu.

Monitoreak ondorioak aterako ditu, eta akordioak, proposamenak edo erabakiak hartuko. Gomendagarria da guztiek parte har dezaten sustatzea, norberaren iritziak eman gabe eta aurrez adierazitako denborak eta formalitateak betez. Oso garrantzitsua da laburtzeko eta sintetizatzeke trebetasuna.

**○ EZTABAIDA GIDATUA****Kontzeptua**

Gai bati buruzko ideia- eta informazio-truke informala. Talde txiki batek egiten du, gidari- eta galdetzaile-lanak egiten dituen monitore batek zuzendurik.

Gaiak konprometitua eta problematikoa izan behar du, eta alde aurretik galdera-plan bat eramanen da idatzita, gaia alde aurretik ezagutzeko eta informazioa jasotzeko.

**Helburua**

Parte-hartzearen bidez ikastea du helburua.

**Garapena**

Lehenik eta behin, monitoreak gaiaren sarreratxo bat egiten du.

Ondotik, lehendabiziko galdera egiten du, eta guztiei luzatuko die parte hartzeko gonbita.

Monitoreak ez du eztabaidan sartu behar: haren funtzioa eztabaida gidatzea da, eta, desbideratzen bada, onbideratzea. Eztabaida bukatu aurretik, ondorio batera iritsi behar da.

**○ Eztabaida-talde txikia****Kontzeptua**

Pertsona-talde txiki batek gai edo arazo bat tratatuko du eztabaida ireki, aske eta informal batean, zuzendari edo koordinatzaile batek zuzenduta.

**Helburua**

Gogoeta kolektiboa eta ideia-trukea sustatzea, gai jakin bati buruzko elkarlaneko ikaskuntza baliatuz. Ideiak adieraztea sustatzen da, elkarrizketa-espazio bat ezarriz.

**Jardueraren nondik norakoak**

Gai bati buruzko sarrera bat egin eta testuingurua zehaztu ondotik, galdera motibatzaile bat egiten da, parte-hartzea sustatzeko. Pertsona bakoitzak bere ikuspuntua adierazten ahalko du, ideiak kontrastatuz eta bere jarrerak argudiatuz. Libre da parte hartzea, baina monotorea arduratuko da esku hartzeko denbora orekatzeaz. Jarduera bukatzeko, ondorioak aterako eta ideia nagusiak laburbilduko dira.

## 3.5

### Monitoreak taldean dituen eginkizunak balioestea

Astialdiko monitoreak, proposamen erakargarri eta ludi-koak egiteaz aparte, hezkuntzaren aldetik esku hartu behar du. Horretarako, garrantzitsua da astialdiko hezkuntzan aritzen diren pertsonen zenbait jarrera eta trebetasun garatzea, beren lana eraginkortasunez egin ahal izateko.

Monitoreek gai izan behar dute beren metodoak, teknikak eta ikuspegiak banakako zein taldeko ezaugarri eta beharretara egokitzeko. Egokitzeko gaitasun horrek astialdiko eta astialdiko jardueretan parte hartzen duten pertsona guztien garapen integrala eta orekatua sustatuko du.

**Víctor J. Ventosa Pérezek**, Educación en el Tiempo Libre y Animación Sociocultural (Hezkuntza astialdian eta animazio soziokulturala) liburuan, astialdiko monitoreek behar dituzten jarrerak sailkatzen ditu:

#### ○ Astialdiko monitoreak izan behar dituen jokabideak

- Nortasun orekatua.
- Jarrera demokratikoa, errespetuzkoa, tolerantzia eta adeitsuak.
- Heldutasun psikologikoa eta afektiboa, segurtasun pertsonala eta sen ona.
- Errealitatearen zentzua eta ingurunean integratuta egotea.
- Motibazioa eta ekimena.
- Erantzukizuna eta konpromisoa.
- Elkarrizketarako gaitasuna.
- Autonomia afektiboa.
- Objektibotasuna eta oreka.
- Etengabeko prestakuntza.
- Gizarte-taldeekin harremanetan eta konektatuta egotea.

#### ○ Gizarte- eta komunikazio-trebetasunak

- Ideiak taldean adierazteko gaitasuna izatea.
- Emozioak eta sentimenduak modu positiboan entzuteko eta adierazteko gaitasuna izatea.

- Harremanak pertsonalizatzeko eta “ni” mezuak bidaltzeko gaitasuna.
- Empatia-gaitasuna.
- Pertsonen arteko gatazkei heltzeko eta halakoak konpontzeko gaitasuna.
- Kritikei aurre egiteko gaitasuna.

#### ○ Dinamizazioarekin eta sormenarekin lotutako trebetasunak

- Taldea motibatze eta animatzeko gaitasuna.
- Teknika- eta jolas-sorta zabala izatea, eta nola erabili jakitea.
- Inprobisatzeko gaitasuna

#### ○ Astialdiko monitorearen egitekoak

##### Jarduerak diseinatzea eta planifikatzea

- Epe luzerako jarduera-plan orokor bat garatzea, programaren hezkuntza- eta jolas-helburuak kontuan hartuta.
- Beharrezko baliabideak identifikatzea eta antolatzeko, materialak, espazioak eta denbora barne.
- Taldeen bilakaera dinamizatzea eta erraztea.
- Taldeko kide guztiak parte hartzera motibatzea, eta pertsona bakoitzak jardueretan rol aktiboa duela ziurtatzea.
- Giro segurua eta abegikorra ezartzea, parte-hartzaileak baloratuta eta errespetatuta sentitzeko.

##### Balioetan eta garapen pertsonalean hezteak

- Jarduerak elkartasuna, errespetua, lankidetzak, erantzukizuna eta beste zenbait balio sustatzeko erabiltzea.
- Trebetasun sozialak, emozionalak eta kognitiboak garatzen laguntzea, esperientzia praktikoen bidez.

##### Gainbegiratzea eta segurtasuna

- Parte-hartzaileak etengabe gainbegiratzea, haien segurtasun fisikoa eta emozionala ziurtatzeko.
- Larrialdi-egoeretan jarduteko prest egotea.

### Ebaluatzea eta hobetzeko proposamenak egitea

- Jardueren eta programen etengabeko ebaluazioa egitea, hobetu beharreko arloak identifikatzeko.
- Parte-hartzaileen eta beste laguntzaile batzuen feedbacka eskatzea, etorkizuneko jarduerak doitzeko eta hobetzeko.

### Komunikatzea eta koordinatzea

- Beste hezitzaile, monitore eta profesional batzuekin lankidetzan aritzea, ikuspegi integratua eta koherentea ziurtatzeko.

- Komunikazio argia eta eraginkorra izatea inplikaturako pertsona guztiekin, baita parte-hartzaileekin, haien familiekin eta lantaldearekin ere.

### Mentore-rola eta jarraitu beharreko eredu

- Parte-hartzaileei orientazioa eta laguntza ematea, mentore eta eredu positibo gisa jardunez.
- Parte-hartzaileen autonomia sustatzea, eta jardueretan erabakiak hartu eta erantzukizunak asumitu ditzaten adoretzea.



# 04

## Bibliografía

### GORPUTZA, IKASTEKO TRESNA

**HOMO LUDENS: A Study of the Play-Element in Culture.**

*Huizinga, J. (1938).*

**La formación del símbolo en el niño: imitación juego y sueño, imagen y representación.**

*Piaget, Jean, 1896 - 1980*

**La mente en la sociedad: el desarrollo de procesos psicológicos superiores.**

*Vygotsky, L. S. (1978). Mind in Society: The Development of Higher Psychological Processes. Cambridge, MA: Harvard University Press.*

**Aprender... ¡sí, pero cómo!**

*Meirieu, P. (2002). Bartzelona: Octaedro.*

**Juegos para el desarrollo infantil.**

*Garaigordobil, M. (2008). Madrid: Pirámide.*

**Educación y tiempo libre: teoría y práctica de la educación no formal.**

*Pérez Serrano, G., eta Brito A. (2010). Madrid: Narcea Ediciones.*

**Juegos y deportes alternativos**

*Navarro, E., eta Alcaraz, S. (2004). Bartzelona: Inde Publicaciones.*

**Juegos y actividades físicas en el tiempo libre educativo.**

*Barcelona: Graó. Arnaiz, P., eta Ramírez, R. (2012).*

**La educación en el tiempo libre: fundamentos, principios y estrategias.**

*Prats, M. A., y Puig, J. (2000). Bartzelona: Graó.*

### ○ **Jokoari eta jokoak garapenean duen garrantziari buruzko artikulua akademikoak**

**Juegos cooperativos y creativos para grupos de todas las edades.**

*Garaigordobil, M. (2003). Revista de Educación, 331, 95-110.*

**La importancia del juego en la educación infantil.**

*Palacios, M. P., eta Gómez, R. (2006). Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado, 9(3), 19-27.*

**El juego como facilitador del desarrollo de competencias emocionales en la infancia.**

*Chacón, F., Pérez, E., eta Guerrero, E. (2009). Revista de Psicodidáctica, 14(2), 251-266.*

**El valor educativo del juego en contextos de educación no formal: Una revisión de estudios recientes.**

*Martínez, M. A., eta Garvis, S. (2014). Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud, 12(2), 463-477.*

**La importancia del juego simbólico en el desarrollo cognitivo y social de los niños y niñas en edad preescolar.**

*Aranda, M. (2015). Cuadernos de Educación y Desarrollo, 7(3), 42.*

**Juego y aprendizaje: una mirada desde la neurociencia.**

*Moyano, R., eta González, M. (2017). Revista de Investigación en Educación, 15(2), 302-318.*

**La implementación de juegos tradicionales en el aula para el desarrollo de competencias sociales en primaria.**

*Torres, A., eta González, J. (2019). Revista de Educación Inclusiva, 12(2), 235-250.*

**La gamificación en la educación: análisis y propuesta para su implementación en el aula de educación primaria.**

Ibáñez, C., eta Ruiz, B. (2020). *Revista Complutense de Educación*, 31(1), 15- 30.

**Beneficios del juego en el desarrollo socioemocional de los adolescentes: una revisión bibliográfica.**

González, D., eta Romero, A. (2021). *Revista de Psicología Educativa*, 27(3), 310-323.

## TALDE DINAMIKAK

**Talde dinamikak.**

[www.elmonitordetiempolibre.com](http://www.elmonitordetiempolibre.com)

<https://bit.ly/4m6RGgc>



**456 Juegos y dinámicas de integración grupal.**

González, Enrique.  
[www.inau.gub.uy](http://www.inau.gub.uy).

<https://bit.ly/450PaSu>



**700 Dinámicas de integración grupal.**

Portal de Educación.  
[www.portaldeeducacion.com](http://www.portaldeeducacion.com).

<https://bit.ly/4jMGTPY>



**Libro dinamicas de grupo.**

Bárbara Ivo - [Academia.edu](http://Academia.edu).

**Libro de 750 dinámicas grupales de integración grupal 2024.**

[www.webdelmaestrocmf.com](http://www.webdelmaestrocmf.com)

<https://bit.ly/42KgRgW>



**Juegos para el desarrollo infantil: 120 actividades para fomentar la cooperación, la creatividad y la educación emocional.**

Garaigordobil, M. (2008). *Madrid: Pirámide*.

**Juegos para el desarrollo de habilidades sociales.**

Berrocal, E. (2000). *Madrid: CCS*.

**100 Juegos para la educación en valores.**

Gutiérrez, J., eta Del Valle, J. (1998). *Madrid: Narcea*.

**Técnicas participativas para la educación popular: 200 dinámicas de grupo.**

Ander-Egg, E. (2000). *Buenos Aires: Editorial Lumen*.

**Juegos y dinámicas para el tiempo libre.**

Pérez Serrano, G., eta Brito, A. (2009). *Madrid: CCS*.

**Dinámicas de grupo para el desarrollo humano: juegos, actividades y técnicas participativas.**

González, C., eta Mora, P. (2014). *Madrid: Narcea*.

**50 Juegos para conocernos mejor.**

Torreblanca, M. (2003). *Barcelona: Graó*.

**Juegos y deportes alternativos.**

Navarro, E., eta Alcaraz, S. (2004). *Barcelona: Inde*.

**Juegos y dinámicas para grupos de todas las edades.**

Martínez, J., eta Martínez, C. (2010). *Bilbao: Desclée de Brouwer*.

**Dinámicas de grupo para animación sociocultural.**

Peiró, V., eta Colom, A. (2007). *Valencia: Nau Llibres*.

## ○ Sareko baliabideak

3.0 Hezkuntza

[www.educaciontrespuntocero.com](http://www.educaciontrespuntocero.com)

<https://bit.ly/455NUgO>



Jokoak eta talde-dinamikak – Actiludis.

[www.actiludis.com](http://www.actiludis.com)

<https://bit.ly/44thVXU>



Talde-dinamikak. Edutekaren hezkuntza-baliabideak.

[www.eduteka.org](http://www.eduteka.org)

<https://bit.ly/4jGRFOL>



Psicología y Mente - Jokoak eta talde-dinamikak.

[www.psicologiyamente.com](http://www.psicologiyamente.com)

<https://bit.ly/44n5k8x>



## DESGAITASUNERAKO HEZKUNTZA ASTIALDIAN

Desgaitasunaren Errege Patronatua Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioaren erakunde publiko bat da. Haren helburua da desgaitasuna duten pertsonen eskubideak babestea, gizarte-inklusioa bermatzeko. <https://www.rpdiscapacidad.gob.es>

<https://bit.ly/4jMORRG>

Desgaitasunari buruzko Espainiako araudia, gaika: desgaitasuna; irisgarritasuna; kultura; bizitzarako eskubidea; hezkuntza; larrialdiak; enplegua eta gizarte-erantzukizuna; nahitaezko esterilizazioa; haurtzarora; justizia; zerga- eta finantza-legeria; politikan parte-hartzea; gizarte-babesa; osasuna.

<https://bit.ly/4jGSbvJ>

Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzkoa. Irakurketa erraza.

<https://bit.ly/3GW8VR6>

Guías para la elaboración de materiales educativos accesibles: generación de documentos PDF desde Word, Excel o PowerPoint.

<https://bit.ly/3F6frnP>

Guías para la Elaboración de Materiales Educativos Accesibles: Vídeos con Subtitulado, Audiodescripción y Lengua de Signos.

<https://bit.ly/4k3iIN>

Hezkuntza inklusiboari buruzko koaderno-sorta.

<https://uni.cf/3GIWXu1>

## ○ Hezkuntzaren arloan desgaitasunei heltzeko gidak eta eskuliburuak

Manual de atención al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de trastornos generales del desarrollo.

*Argitaratzailea: Junta de Andalucía Consejería de Educación. Dirección General de Participación e Innovación Educativa. Egileak: Pilar Aguirre Barco, Rosa Álvarez Pérez, M<sup>a</sup> del Carmen Angulo Domínguez, Inmaculada Prieto Díaz.*

Manual de atención al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de discapacidad intelectual.

*Argitaratzailea: Andaluziako Junta. Hezkuntza Kontseilaritza. Dirección General de Participación y Equidad en Educación Egileak: Mercedes Antequera Maldonado, Beatriz Bachiller Otero, María Teresa Calderón Espinosa, Antonio Cruz García. Pedro Luis Cruz García, Francisco Javier García Perales, Manuel Luna Reche, Francisco Montero Alcaide, Francisca María Orellana Rodríguez, Reyes Ortega Garzón.*

Guía para la atención educativa del alumnado con deficiencia motora.

*Servicio de Programas Educativos y Atención a la Diversidad. Argitaratzailea: Consejería de Educación, Ciencia y Tecnología. Dirección General de Formación Profesional y Promoción Educativa.*

Guía para la atención educativa del alumnado con ceguera y deficiencia visual.

*Servicio de Programas Educativos y Atención a la Diversidad. Laguntzailea: Equipos de Atención a Deficientes Visuales de la Comunidad Autónoma de Extremadura. Protocolo de Intervención Educativa con el alumnado con TDAH. Educación, Cultura y Turismo Gobierno de la Rioja.*

Guía sobre la discapacidad auditiva.

*Federación de Padres y Amigos del Sordo de Castilla y León (FAPAS CyL).*

## ○ Liburu eta artikulu akademikoak

### Definición y clasificación de la discapacidad.

2. koaderno Unicef.

[www.unicef.org](http://www.unicef.org)

<https://uni.cf/3ESFz5I>

### Glosario de apoyos educativos y ajustes razonables para garantizar la participación plena de estudiantes con discapacidad: documento de información.

UNESCO. *Liburutegi digitala*. 2023.

### Glosario de apoyos educativos y ajustes razonables para garantizar la participación plena de estudiantes con discapacidad.

Documento encargado por la Oficina Regional de Educación para América Latina y el Caribe (OREALC/UNESCO Santiago). Moreno, M., 2023, © UNESCO 2023.

### Manual del monitor especializado. Integración de personas con discapacidad intelectual.

Víctor Juan Ventosa. *Escuela de Animación*.

### Ocio, tiempo libre y discapacidad: una propuesta de intervención.

Blanco, R., eta Garrido, M. (2007). *Editorial CCS*.

### Ocio y discapacidad: estrategias y recursos para la inclusión.

González, M. J., eta Gil, P. (2009). *Editorial Narcea*.

### Actividades recreativas para personas con discapacidad.

Escudero, R. (2015). *Editorial Paidotribo*.

### Educación en el tiempo libre y discapacidad: fundamentos y metodologías.

Ediciones Morata. Serrato, A., eta Fernández, L. (2013).

## ○ Txostenak eta ikerlanak

### Inclusive Education: The Way of the Future.

UNESCO (2006).

### Access to Social Rights for People with Disabilities in Europe.

Europako Kontseilua (2012). *Council of Europe Publishing*.

### Guía de ocio inclusivo para personas con discapacidad intelectual.

Plena Inclusión (2017).

## ○ Aldizkari espezializatuetako artikuluak

### El ocio inclusivo como derecho: Propuestas para la intervención.

Ruiz, M., eta Sánchez, A. (2014). *Revista Española de Discapacidad*, 2(1), 23-40.

### Educación y discapacidad en el tiempo libre: Un enfoque inclusivo.

García, J., eta López, M. (2015). *Revista de Educación Inclusiva*, 8(2), 65-82.

## ○ Sareko baliabideak

### ONCE fundazioa: Guía de ocio inclusivo para personas con discapacidad.

[www.fundaciononce.es](http://www.fundaciononce.es)

<https://bit.ly/43jSCGC>

### Plena Inclusión: Materiales y recursos sobre ocio inclusivo.

[www.plenainclusion.org](http://www.plenainclusion.org)

<https://bit.ly/4jV8G7q>

### CEAPAT (Centro de Referencia Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas): Documentación y recursos sobre discapacidad y ocio.

[www.ceapat.es](http://www.ceapat.es)

<https://bit.ly/3G1slsR>

### TAFAD, Juegos para Discapacitados, Juegos y Actividad Física.

[www.tafadycursos.com](http://www.tafadycursos.com)

<https://bit.ly/42KiQlo>

## AUKEKULTURARTEKO HEZKUNTZA ASTIALDIAN

### ○ Liburu eta artikulu akademikoak

**Interculturalidad en la educación: perspectivas y propuestas.**

*Aguado, M. T., eta Malik, B. (2006). Narcea Ediciones.*

**Cultural diversity and education.**

*Banks, J. A. (2015). Routledge.*

**Programas de educación intercultural en europa: análisis de su eficacia y recomendaciones para su aplicación.**

*Díaz-Aguado, M. J. (2004). Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.*

**La educación intercultural en la práctica.**

*García Castaño, F. J., eta Granados Martínez, M., (2009) Editorial Octaedro.*

**Educación intercultural: estrategias pedagógicas para el tiempo libre.**

*Mata-Benito, P. (2010). Sevillako Unibertsitatea.*

### ○ Txostenak eta ikerlanak

**Educating Teachers for Diversity: Meeting the Challenge.**

*OECD (2010). OECD Publishing.*

**Intercultural Competences: Conceptual and Operational Framework.**

*UNESCO (2013).*

**Toolkit for Diversity and Intercultural Learning in Youth Work.**

*Europako Kontseilua (2014). Council of Europe Publishing.*

### ○ Aldizkari espezializatuetako artikuluak

**Estrategias para la educación intercultural en el ocio educativo.**

*Ruiz, R. M., eta Sánchez, M. A. (2015). Revista de Estudios y Experiencias en Educación, 14(2), 203-218.*

**La educación intercultural en el ámbito del tiempo libre: Un reto y una oportunidad.**

*Fernández, J., eta López, N. (2016). Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado, 30(3), 45-62.*

### ○ Sareko baliabideak

**Guía de Buenas Prácticas en Educación Inclusiva.**

<https://www.savethechildren.es>

<https://bit.ly/3GJMILG>



## BALIABIDEAK ETA JOLASAK

### ○ Kulturarteko jokoei eta jardueri buruzko liburuak eta baliabideak

**Juegos para la diversidad: actividades para la integración cultural.**

*José Manuel Marrero. Editorial Graó. (2015).*

**Educación intercultural: estrategias y juegos para el aula.**

*María José Díaz eta Ana García. Octaedro argitaletxea. (2017).*

**Dinámicas de grupo para la educación intercultural.**

*Francisco Javier Fernández. CEPE argitaletxea. (2019).*

**El juego como herramienta para la inclusión cultural.**

*Carlos Ruiz. Editorial Popular. (2020).*

**Juegos interculturales: actividades para fomentar el respeto y la comprensión.**

*Laura Martínez. Ediciones Narcea. (2021).*

**Juegos multiculturales. 225 Juegos tradicionales para el mundo global.**

*Editorial Paidotribo. Jaume Bantulá eta Janot, Josep Maria Mora Verdeny.*

## ○ Kulturarteko jokoei buruzko artikulu akademikoak eta ikerketak

**El Uso de Juegos Interculturales en la Educación: Beneficios y Aplicaciones.**

Patricia González eta Ricardo López. *Revista Española de Educación Comparada*. (2018).

**Juegos y Actividades para la Educación Intercultural en el Aula.**

Elena Jiménez eta Sergio Fernández. *Aldizkaria: Educación y Diversidad*. (2019).

**Estrategias Lúdicas para la Inclusión Cultural en el Aula.**

Marta Álvarez eta Luis García. *Aldizkaria: Journal de Psicología Educativa*. (2020).

**Dinámicas de Grupo para la Promoción de la Diversidad Cultural.**

Ana Belén Ortega eta Julio Morales. *Aldizkaria: Psicología y Educación*. (2021).

## ○ Sareko baliabideak

*Recursos y Actividades para la Educación Intercultural. Educaweb. www.educaweb.*

<https://bit.ly/4hnfTeD>



*Juegos Interculturales: Actividades para el Aula. Fundación La Caixa. www.fundacionlacaixa.org.*

<https://bit.ly/3GIL4EA>



## HEZKIDETZA

**Guía sobre estrategias de comunicación incluyente. El género como prioridad.**

*Nafarroako Berdintasunerako Institutuak argitaratua. Nafarroako Gobernua. Elaborada por Ered Consultores S.L.*

**LABORAMORIO: Genero-indarkeriaren prebentzioa nerabezaroan. Galderak, jolasak eta jarduerak.**

Juan Lillo Simón. *Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak argitaratua. Nafarroako Gobernua. 2015.*

**Educación en el tiempo libre: perspectivas para una intervención coeducativa.**

Ana María Cuenca López. *Editorial Graó, 2010.*

**Coeducación y tiempo libre: propuestas y experiencias.**

M. Díaz Aguado eta P. L. Royo. *Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. 1995.*

**El género en el tiempo libre. Guía práctica para el monitorado. Prevención de la violencia sexista en las actividades de tiempo libre.**

*Arabako Foru Aldundia.*

**Tiempo libre e igualdad de género. Propuesta para la formación del monitorado de tiempo libre.**

*Aragoiko Gobernua*

**Nuevas formas de jugar. Guía para transformar los juegos tradicionales.**

*Andaluziako Emakumearen Institutua.*

**Guía de actividades para fomentar la igualdad de oportunidades entre niños y niñas.**

*SIJE.*

**Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades.**

*Emakunde Instituto Vasco de la Mujer Vitoria - Gasteiz 2008.*

## ○ Sareko baliabideak

**ONU, Emakumeak.**

*www.unwomen.org/es.*

<https://bit.ly/3GYQf36>



**UNESCO.**

*es.unesco.org.*

<https://bit.ly/4dd9xy6>



**Irakasle-hezkuntza.**

*www.educaciondocente.es.*

<https://bit.ly/3F36taU>



**Hezkidetza.**

*www.coeducacion.es.*

<https://bit.ly/3SnIK8m>



**Emakumearen eta Aukera berdintasunaren Institutua.**

*www.inmujer.gob.es.*

<https://bit.ly/4k387sF>



**Emakumeak eta nazioarteko lankidetzak.**

*www.cooperacionespainola.es.*

<https://bit.ly/44Yo7XR>



**Emakumeak eta kirola.**

*www.csd.gob.es.*

<https://bit.ly/450UCoq>



**Genero-indarkeriaren behatokia.**

*www.observatorioviolencia.org.*

<https://bit.ly/4dgR1ET>



**Emakumeak landa-ingurunean.**

*www.mapama.gob.es.*

<https://bit.ly/4k0GTCc>



**Genero-indarkeriari buruzko datuak.**

*violenciagenero.igualdad.gob.es.*

<https://bit.ly/4iTuzTE>



**Espainiako gizon-emakumei buruzko datuak.**

*www.ine.es.*

<https://bit.ly/4jJ04Rk>

